



KULTURARTEKO HEZKUNTZA

Eskolan aniztasun etniko eta kulturalari hezkuntz erantzuna emateko orientabideak.



KULTURARTEKO HEZKUNTZA

**Eskolan aniztasun etniko eta
kulturalari hezkuntz erantzuna
emateko orientabideak**

M^a Luisa Jaussi Nievak eta
M^a Trinidad Rubio Carcedok idatzitako txostena

Pilar Altuzarra Artolaren eta
Alicia Sainz Martínezen laguntzaz

AURKEZPENA

Aniztasun kultural eta etnikoa gure gizartearen ezaugarri bat da eta era berean hezkuntz sistemarena.

Aniztasun honi dagokion hezkuntz erantzunak erronka bat suposatzen du, eta desafio honi aurre egin beharko zaio eskolarizatutako ikaslego osoari kalitatezko hezkuntz eskaintza egin ahal izateko.

Hezkuntza Sailaren ardura da, sistema integratzaile eta muinbakarraren eraikuntzan laguntzea, aukera-berdintasuna eta desberdintasunarako eskubidea uztartzen duena, horrela gizarte berdindu eta demokratiko baten ideial hori guztiz betez. Horretarako beharrezkoa deritza irakaslegoak daraman hezkuntz lanari eta laguntza-zerbitzuek egiten dituzten aholkularitza eta prestakuntza lanei laguntzea materiale praktikoaren bidez.

“Kulturarteko Hezkuntza. Eskolan aniztasun etniko eta kulturalari hezkuntz erantzuna emateko orientabideak” izeneko agiri honetan esparru teoriko-praktikoa planteiatzen da, non alde batetik, gaiaren ulermen eta bereganatze eginkizunak errazteko zenbait elementu ematen dira; eta bestetik, zentru zein gela mailan, ikaslegoaren behar eta eskakizunei hezkuntz eskuhartzea egokitzeko, proposamen ezberdinak eskaintzen dira.

Alfonso Unceta Satrustegi
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

AURKIBIDEA

HITZAURREA

LEHENENGO ZATIA:

I. KAPITULUA: KULTUR ANIZTASUNA

- 1 Kultur aniztasuna Euskal Eskola Publikoaren Legean eta LOGSEn
- 2 Kultur aniztasuna eskolan
- 2.1 Gutxiengo etnikoen integrazioa eskolan
- 2.1.1 Ohiko erantzuna
- 2.1.2 Eskola gutxiengo etnikoetako pertsonen premietara hurbiltzeko gogoetak
- 3 Kulturarteko ikuspegia

II. KAPITULUA: KULTURARTEKO HEZKUNTZA

1. Aniztasunaren trataera
2. Hizkuntz aniztasuna
3. Irakasleen egitekoa eta elkarreraginak
4. Igurikapenak
5. Gaitasunen garapena: Helburuak
6. Edukien hautaketa eta sekuentziazioa: Ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala
7. Printzipio eta estrategia metodologikoak
8. Ebaluazioa
9. Familiekiko harremana

BIGARREN ZATIA:

III. KAPITULUA: HEZKUNTZ PROIEKTUA

- 1 Testuinguruaren azterketa
- 2 Ikastetxearen nortasun-printzipioak
- 3 Oinarrizko helburuak
- 4 Ildo pedagogikoa
- 5 Antolamendu-eredua

IV. KAPITULUA: IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA.....

1. Aniztasunaren trataera.....
2. Hizkuntzaren trataera
3. Helburuak
4. Edukiak.....
5. Ebaluazio-irizpideak
6. Metodologia

V. KAPITULUA: IKASGELAREN PROGRAMAZIOA. LAN PROPOSAMEN BAT.....

- 1 Proposamenaren kokapena
- 2 Ikasgelaren programazioa
- 3 Hamabostaldi baterako lan-proposamena: *Kontaidazu ipuin bat*
- 3.1 Hasierako ebaluazioa
- 3.2 Arloetako irakas-helburuak eta edukiak
- 4 Proposamenaren garapena.....
- 4.1 Zergatik ipuin bat?
- 4.2 Nola garatuko da proiektuan?
- 4.3 Nola garatuko da lantegietan?
- 4.4 Nola burutuko da arloetako berariazko lanean?
- 5 Unitatearen ebaluazioa

BIBLIOGRAFIA

HITZAURREA

Eskolan gizartean dugun interes, premia, gaitasun, estilo eta kultur aniztasuna aurki dezakegu. Gaur egun, hezkuntz sistemak dituen hezkuntz erronken artean aniztasun horri erantzutea dugu. Hortxe kokatzen dira bazterketa egoeran bizi duten gutxiengo etnikoak integratzeko planteamenduak.

6-16 urte bitarteko hezkuntza derrigorrezkoa denez, eskolak ikasle guztiei erantzun beharko die, “eskola muinbakar eta integratzailea” izan beharko du eta gizabanako eta talde guztiak bere baitan hartu. Arrazoi etiko eta demokratikoei zor zaio hori eta, batik bat, aukera-berdintasuna izateko eskubideari.

Bazterketa egoeran dauden taldeekin hori gertatu dadin, “kalitatezko” irakaskuntza eskaini beharko da, talde horiei bereziki zuzendutako planteamenduak egin beharrean, printzipio batzuei erantzun eta ikasle ororentzako aberasgarriak eta beharrezkoak diren estrategiak erabiltzen dituen irakaskuntza, hain zuzen ere.

“Kalitatezko irakaskuntza” batean izango da talde hauetako kultur osagaiak txertatu beharko ditugu derrigorrez. Errazago izango da hori ikasgelan eta ikastetxean gizartean dauden talde desberdinen kulturak (emakumea, haurrak, gazteak, pobrezia, emigrazioa... eta gutxiengo etnikoak) berreskuratu eta euren artean lotura bat eratuz gero, hots, ikasleei bere kasa moldatzeko eta, beren errealitatetik abiatuta, gizarte konplexu batean moldatu ahal izateko aukera ematen dien kulturarteko planteamendu bat erabiliz gero, horrela aukera-berdintasunaren printzipioa gauzatu egiten baita.

Honela bada, kulturarteko planteamendu honekin bat datozen eta ikasleek beren gaitasun pertsonal eta sozialerako izan ditzaketen premiak modurik egokienean asetzea ahalbidetuko dieten estrategiak landu beharko dira eskolan.

Bestalde, kultur aniztasuna ikasle guztientzako aberastasun-iturri dugu, jarrerak (kritiko, tolerantante... izaten ikastea), gaitasun, ezagutza eta abar ikastea ahalbidetzen baitu, gizarte geroz eta heterogeneo eta konplexuagoan moldatzen lagunduko dioten gaitasunak garatzea, alegia.

Txosten honetan ikastetxean eta ikasgelan ditugun ikasle guztiei erantzuten dion kulturarteko planteamendu bat gauzatu ahal izateko behar diren osagaiak zeintzuk diren aztertuko dugu, baztertutako gutxiengo etnikoetako ikasleei erantzun egokia emateko esparrua hau dela uste baitugu. Planteamendu honek aniztasunaren altxorra erabili eta ikasle horien premiak asetzea ahalbidetuko du.

Horretarako, eskolan gutxiengo etnikoei eman izan zaizkien erantzunen gaineko hausnarketa egiten da lehenbiziko zatian eta kulturarteko ikuspegi batetik egindako proposamen bat garatzen da, gaiarekin lotutako alderdi ezberdinak jorratuz: aniztasunaren trataera, hizkuntzaren trataera, elkarreraginak, helburuak... Era berean, planteamendu hauek gauzatzeko iradokizunak eta ondorioak aipatzen dira.

Bigarren zatian, aurretik Ikastetxearen Hezkuntz eta Curriculum Proiektuan landutako alderdiak zehazten saiatzen gara. Horretarako, alegiazko ikastetxe bat oinarri hartuta, Proiektuotako osagai ezberdinekin lotutako erabakiak hartzen dira. Era berean, eta hirugarren zehaztapen-mailan, ikasgela batean burutu beharreko hamabost egunerako proposamen bati buruzko adibidea eskaintzen da.

Txosten honetako hausnarketa eta azterketa kultura jakin batzuetan oinarritzen bada ere, baztertuta dauden kulturetan hain zuzen ere, proposatutako erantzunak ikasle guztiak hartzen ditu, bai gutxiengoetako bai gehiengoetako. Baztertutako gutxiengorik ez dagoen ikastetxeetan ere baliagarri eta beharrezkoa da ikuspegi hau, izan ere, ez baitago kultura bakarreko ikastetxerik eta, bestalde, ikaslea bizi deneko gizartean kultura desberdinak daude, baita bazterketa, bereizkeria eta arrazismoa ere.

LEHENENGO ZATIA

I. KAPITULUA: KULTUR ANIZTASUNA

1. Kultur aniztasuna Euskal Eskola Publikoaren Legean eta LOGSEn

Eskola haur eta gazteak gerora munduan etorkizuna izateko moduan prestatu behar dituen kultur gune anizkoia bada berez, areago izan behar du euskal eskolak ahal izanez gero. Horixe da hezkuntzak egun duen erronka: euskal kulturaren berezko balioak garatuz, nola eman eskola horri ikasleek egungo munduan eta datorren mendean beren izaerari aurre egiteko behar duten kulturarteko hedadura.

Honela jasotzen da otsailaren 19ko 1/1993 Legean, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, 3.1. artikuluan:

Euskal eskola publikoa, horko ikastetxe bakoitza, anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultur mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitatearen bateratzailea.

Helburuetan guztiek duten hezkuntzarako eskubidea nabarmentzen da *hori galarazten duten ekonomi eta gizarte-oztopoak edo beste edonolakoak ezabatuz (EEPL; 3. art. 2a)*. Sustatu beharreko balio demokratikoak helburuotako osagai garrantzitsuenetakak ditugu eta ondokoak dira garrantzitsuenak: *gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai giza eskubideen aldeko jarrera ere (EEPL; 3. art. 3. 2b)*.

Eskola muinbakarra da derrigorrezko etapan:

(...) derrigorrezko irakaskuntza-aldian zehar muinbakar, aniztasuna modu bateratzaile eta banakakoan bereganatzeko asmokoa eta ikasleei beren hezkuntza-helburuak erdiesteko aukera emango dien kalitatezko eskola ahalbideratuz (EEPL;10.6. art.)

Era berean, LOGSEk ere jasotzen ditu helburu hauetako asko, maila orokorragoan bada ere. Hitzaurrean derrigorrezko hezkuntzak lortu beharreko helburuen artean, gizabanako guztien eta bakoitzaren hezkuntz garapena, bakoitzaren premia eta interesei egokitutako garapena hain justu, agertzen zaigu. Eta funtsezko balioen artean tolerantzia, berdintasuna eta begirunea, beste kulturekikoa bereziki, aipatzen dira.

(...) ikasleek gizarte axiologikoki anitz batean askatasuna, tolerantzia eta elkartasuna modu kritiko batean gauzatu dezatela izango da heziketa osoaren helburua.

(...) bereizkeria eta desberdintasunen aurkako borrokan aurre egitea, direla jaiotze,

arrazaz, sexu, erlijio edota iritzi arlokoak, direla familiak edo gizarteak eragindakoak (LOGSE; Hitzaurrea, 3).

Printzipio hauek zehazkiago agertzen zaizkigu etapa desberdinetako helburuetan. Bertan begirunezko joerak; joera kritikoa, ikasle guzti-guztien adimen-gaitasunen eta gaitasun pertsonalen garapena, hurbileko ingurunearen ezagutza eta partaidetza, beren ohitura, balio eta sinesmenak eta horien balorazio kritikoa... aipatzen dira.

Gainera, berariaz aipatzen da bereizkeriarekiko gaitzespena eta beste kulturekiko begirunea.

Sexuen arteko benetako eskubide-berdintasuna, bereizkeria ororekiko gaitzespena eta kultura ororekiko begirunea.(LOGSE; 2. art.)

Eta, besteak beste, alderdi kultural eta teknikoekin lotutako desberdintasuna orekatu beharra.

Hezkuntza orekatzailea sustatzeko politikak hezkuntz sistemaren egitekoa sendotu egingo du, faktore sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko eta abarrek eragindako desberdintasunak saihestu ahal izateko.(LOGSE; 63. 2. art.)

Planteamendu hauek guztiak etapa desberdinetako Curriculum Dekretuetan jaso eta garatzen dira, bai helburuetan, bai eduki eta ebaluazio-irizpideetan ere.

Laburbilduz, hona eskolan eta gizartean kultura desberdinak egotearekin lotutako printzipio nagusiak, bai EEPLn, bai LOGSEan, bai lege horien hurrengo garapenetan jasotakoak:

- ◆ Ikasle guztiek eskubidea dute kalitatezko hezkuntza izateko.
- ◆ Ikasle guztiak balio demokratikoetan eta kulturarteko balioetan hezi behar dira: gaitasun eta jarrera kritikoa, berdintasuna, justizia, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzia-askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, tolerantzia eta elkarrekiko begirunea, zein giza eskubideen babesa eta kultura guztiekiko begirunea ditugu balio hauek, besteak beste.
- ◆ Bereizkeriaren eta desberdintasunen gaitzespena.
- ◆ Irakaskuntza muinbakar eta integratzailea izango da derrigorrezko etapan eta ikasle guztiek beren helburuak lor ditzatela sustatuko du.

2. Kultur aniztasuna eskolan

Eskolan aurki ditzakegun aniztasunen artean kultur alorrekoa dugu. Kultur aniztasun honi erantzuteko modua, darabilgun kultura kontzeptuaren araberakoa izango da, besteak beste. Txosten honetan ondokoak uztartzen dituen *kultura* kontzeptu zabal eta dinamikoa erabiliko dugu: balioak, errealitatea ulertu eta berari egokitzeko moduak, ohiturak, antolamenduak, espazio-denboraren egituraketak, botere-harremanak, elkarreragin-jarraipideak eta arau-sorta aldagarriak.

Ikuspegi honen arabera kultura desberdinak aurkituko ditugu eskolan, gizartea osatzen duten taldeak adina: gazteriaren kultura, emakumearen kultura, haurtzaroko kultura, langileen kultura, burgesen kultura, gutxiengo etniko desberdinen kultura...


Dena den, ez ohi da kultura desberdinak daudela aitortzen, bai alde batera utzi eta aintzat hartzen ez delako (gazteen, emakumeen, langile-munduaren kasua, esaterako), bai gatazka eta zailtasun sortzailatzat hartzen delako. Azken egoera horretantxe aurkitzen dira gutxiengo etnikoak gehienetan. Gutxiengo etnikotzat bazterreko edo gizarte handiago bateko talde soziokulturala hartzen da, bertako kideek kultura, itxura edo erlijio mailako bereizgarriak dituzte eta taldeko kide diren kontzientzia, esaterako inmigrazioetik sortutako gutxiengoak (marokoarrak...) eta gizartean bertan baztertutako gutxiengoak (ijitoak...).

Kultura hauek daudenik ere ez aitortzeak kultura horiekiko ukoa edo gaitzazpena eragiten du. Horren ondorioz, ikasleei, eta bereziki gutxiengoan dauden kulturetatik datozenei, ez zaie beti erantzun egokia ematen, askotan, nahi baino gehiagotan, hezkuntz porrota edota hezkuntza uztea eragiten da.

2.1. Gutxiengo etnikoen integrazioa eskolan

Eskolak erantzun egokia emateko eta baztertutako gutxiengoetako ikasleak integratzeko dituen arazoak elkarrekin lotutako kausa ugariri zor zaizkie. Ezin zaizkio soilik eskolari egotzi, ezta ohi den bezala, gutxiengoan dauden talde horiei ere, eta gizartea ere ez da guztiaren erantzule. Faktore ezberdinen arteko loturak eta faktoreok aldi berean gertatzeak oztopatu egiten dute integrazio hori.

Kausen artean gizarteak berak gutxiengoak bere baitan hartzeko dituen zailtasunak ditugu, batetik, eta eskolak berak dituenak, bestetik. Eskolan gizartearen osagai den neurrian, gizarte horretako prozesu ugarietz gain, eskolak berezko dituen beste batzuk aurki ditzakegu.



Kausa hauek zabalago deskribatzen dira jarraian:

◆ ***Gizarteak gutxiengoak bere baitan hartzeko duen zailtasuna***

Gizartean oso joera desberdinak aurki ditzakegu, baina, oro har, eragozpen handia dago gutxiengoan dauden kultur taldeak, desberdina dena, baztertuta dagoena parekotzat hartzeko. Besteak beste, ondokoei zor zaio hori:

- * *Gutxiengoan dauden taldeen kultur ezaugarrien ezagutzarik eza. Ezezagutza*

honek estereotipoak eta aurreiritziak, mesfidantza eta arbuioa eragiten du. Talde hauetaz dakiguna gehiengo taldeak hauei buruz duen iritziaren bidez dakigu. *Talde nagusiaren partaide izatearen sentimendua sendotzea helburu nagusi duten topiko zimel eta estereotipo sortzaileetan ointarritutako irudia. Alderdi honetatik gureak ez bezalakoei buruzko iritziak plazaratzen dira. Ezagutza ordezkatzan duten aurreiritzi guztiak agerian utziko ditu iritzi horrek. Ezezagutza zenbat eta handiagoa, orduan eta handiagoa iritzia ematen deneko aurreiritziz osatutako oinarria (Soria Gutiérrez, A.L. 19;1997).*

Aurretiazko iritzi edo aurreiritzi hauek “berretsi” egiten dira gutxiengoekiko harremanak urriak badira eta egoera arazotsuetan soilik gertatzen badira: alegia, komunikabideen bidez edo gertakizunen bati buruzko esandakoen bidez (gertaera arazotsuak izaten dira, horietan direlako deigarrienak).

* *Norberaren kultur nortasuna galtzeko edo kutsatzeko beldurra.* Talde nagusietan zein gutxiengoan dauden taldeetan ageri da beldur hau. Gehiengoek boterea galtzeko beldurrarekin eta gutxiengoek bizirauteko botere eskakizunarekin batera agertzen zaigu.

* *Kultura bakarra eta mundu-ikuskeraren egoki bakarra dagoeneko ustea,* kultura nagusiarena noski (kultura nagusizat gehiengoarena ez, nagusia baizik hartzen delarik, hots, botere sozioekonomikoa duen taldearena, mendebaldeko klase ertaineko helduarekin bat datorrena alegia). Oso balio gutxi ematen zaie beste kulturei eta menpekotzat hartzen dira, gehienez ere beren ohitura eta usadioak nabarmentzen direlarik. Kultura hauek horrez gain, pobrezia (ondorioz, ez zaie berezko ezaugarririk edo ezaugarri positiborik aitortzen) eta bazterketa bizi badute, gutxiengo etnikoen kasuan esaterako (ijitoak, Afrika iparraldeko etorkinak...), akastun eta arazo-sortzailetzat hartzen dira askotan.

* *Kultura nagusiaren joera “asimilatzailea”.* “Integrazioa” eta “asimilazioa” berdintzeko joera dago, beste kulturetako pertsonak kultura nagusira egokitu, bere balio, arau eta harreman-motei egokitzeko joera alegia. Kultura hori nagusiagotzat edo kultura izena eman dakiokkeen bakartzat hartzeari edota lurralde jakin bateko berezko kultura izateari zor zaio hori. Ikuspegi honen arabera, gizartean “arrakasta” izateko norbere kultur nortasunari uko egin, halako itxura izan ezta beste kultura bereganatu beharra dago. Gutxiengoan dauden taldeen arbuioa —zilegizkoa— edota helburu hori lortzen saiatuta ere ezinezkoa zaiela eta etsipena eragin diezaioke horretan saiatzen denari.

* *Taldeen arteko gatazkak.* Gutxiengoan dauden taldeak ez ezagutzeaz eta gainerakoak bezalakoak izateko eskatzeaz gain, taldeen artean gatazkak sortzen dituzten beste faktore batzuk aipatu behar ditugu: arrazoi historikoak —gizarte nagusiak ijitoak jazarri eta erasotu izan ditu historiako hainbat unetan eta, jatorrian babeserakoak diren hainbat jokamolde, erasotzat hartzea ekarri du horrek; langabezia handiko gizarte honetan, gutxiengo etniko hauetako askok bizi duten pobrezia; arazoak izateko, beren seme-alabek behar beste ez ikasteko edota ikaskuntza kaltegarriak izateko beldurrez, familia askok gutxiengoan dauden taldeekin bizitzeko arbuioa... Gatazka hauen funtsean, kultur desberdintasunak berak baino, faktore sozioekonomikoek eta boterearen banaketak eragindako eta taldeok bizi duten desberdintasun egoera datza.

◆ *Eskolaren zailtasunak gutxiengoak bere baitan hartzeko*

* *Ohiko eskolak homogeneizaziorako duen joera.* Eskola kultura mota bat da berez. *Eskola-erakundea kultura bat bailitzan hartzen da, berezko dituen hainbat baliotan oinarritzen delako eta osatzen duten kideen gaineko eragina duelako, hauek gizarteratzen laguntzen duelarik (Vásquez, A eta Martínez, I; 42,1996)*

Balio eta portaerazko eta sozializazio-jarraipide hauek eta beste ez dira beti agerikoak eta kideek ez dituzte beti antzematen, eguneroko funtzionamenduan integratuta daudelako eta eskolak behar bezala funtzionatzeko berezko eta ezinbestekotzat hartzen dira, aldatzeko aukera zalantzan jarri gabe edota benetan duten zentzuaren inguruan galdetu gabe.

Behaketa ugariren bidez eta Vásquez, A eta Martínez, I (1996) autoreek egindako azterlanei esker, “eskolako kultura” osatzen duten jokamolde eta balio horietako asko laburbil ditzakegu. Nabarmentzekoak dira:

- desplazamendu eta sarrera-irteera erritualak.
- ordenuak eta isiltasunak duten garrantzia, denbora asko ematen baita horretan.
- irakasle eta ikasleen arteko elkarreraginetan botereak duen egitura asimetrikoa:
 - ikaslea izaki ahula da, ez daki eta irakatsi egin behar zaio;
 - irakasleak soilik alda dezakeen eredu baten arabera errituala jarraitzen dute elkarreraginek;
 - irakasleak burutzen edo hasten ditu elkarreragin gehienak (eta ikaslea eskatzen zaionean soilik parte har dezala espero da);
- jarduerak ereduazko ikaslearen edo ikasle ertainaren arabera taxutzen dira eta

- modu jakin batera eta denek batera burutu behar dituzte;
- askotan, eskema metodologiko zurrun samarra erabiltzen da (irakaslearen azalpena, bakar-lana, bakar-lanaren zuzenketa);
- banan banako lanaren eta arrakastaren nagusitasuna...

Autoreok aipatzen dutenez, praktika hauetako asko berezko zaizkio eskolatzeari eta beti mota honetako eskoletan ibili diren haurrak askotan ez dira daudenik ere konturatu egiten, “berezkotzat” dituzte.

Kultura jakin batekoei zaizkie berezkoak, maila ertaineko mendebaldeko kulturakoei hain zuzen ere, izan ere, “eskolako kulturak” berezko zaizkion osagaiez gain (praktika eta jokamolde “erritual” jakin batzuk) kulturako ezaugarriekin bat datozen beste osagai asko baititu. Eskola bera ere, erakunde gisa kultura horren fruitu dela esan liteke halaber.

Egoera hauetan, beste kultura batzuetako hurrek sozializazio-eredu hauetan aurkituko dituzte oztopo handienak, arrotzak baitzaizkie, ez datoz bat beren kulturako balioekin, alde handia dago ohituta daudenaren eta eskolan eskatzen zaienaren artean eta, batzuetan, beren kulturako hainbat alderdiren kontrakoak dira. Esate baterako, zenbait kulturek joera handiagoa dute bakarrik baino, taldean jarduteko eta haurrak ez dituzte espazio mugatuak eta mota askotako betekizunak dituen izaki ahula, aitzitik, helduen jardueretan parte hartzen du eta txiki-txikitandik helduen lanetan laguntzen du (etxean gelditzen da haur txikiak zaintzeko, familiaren ekonomian laguntzen du), bestalde, kultura hauetan garrantzi handiagoa ematen zaie gizarte-harremanei ordenu eta isiltasunari baino (Jordán, 1996).

Honela bada, eskolak bere ereduak zalantzan jartzen ez baditu eta berberak ikasle guztiekin erabiltzen baditu, batzuei beste batzuei baino erantzun hobe eta egokituagoa ematen ari zaie.

* *Gutxiengoan dauden ikasleen eta gainerakoen arteko alderaketa.* Ohiko eskolan gutxiengoan dauden ikasleak eta gainerakoak aipatutako eskema homogeneizatzailaren arabera alderatzen dira, ikasle “ertaina” egitura zehatz gisa hartzen delarik. Alderaketa honetan ikasleak ez dakiena eta dituen “arazo” eta zailtasunak nabarmentzen dira, batzuetan egitura horrexek sortuak edo areagotuak gainera. Ez ditu bere gaitasun, trebetasun eta aukerak baloratzen, zer egiten dakien, zer ezagutzen edo baloratzen duen. Gabezietan oinarritzen da, trebetasunetan beharrean, falta zaizkion baliabideetan,

badituenetan baino.

Horrela bada, ikaslearen ohitura eta azturei edo ustezko gabeziei egozten zaio eskolaren sistemara ezin egokitua eta aldatu edo orekatu beharrekoa dela irizten zaio. Ikuspegi honen arabera, eskolako porrota ustezko “kultur hutsune” bati egozten zaio, ikasteko gainerakoek baino zailtasun handiagoa duen ikasleak du arazoa (edo familiak, ez baitio behar bezala irakasten) eta, hortaz, balio, ohitura eta “jokamolde egokiak” ikasi behar ditu, bestela ez baitio eskolan egoteari etekinik aterako, eta ez ditu beharrezko ezagutzak eskuratuko ere.

Alderaketa egitean eskolak prozesu horretan duen papera ahaztu edo ukatu egiten da. Ez da aintzakotzat hartzen hezkuntz sistema bera kultura mota bat dugula berez, aldeztu dituen balioak ez direla absolutuak, zalantzan jarri baitaitezke, eta jarri behar dira, guzti-guztiak jarri ere (existitzen al da benetan ikasle “ertaina”?, horrenbesteko garrantzia al du ikaskuntzan denek ariketa berbera eta denbora berean egiteak?, hobe al da bakarrik eta besteen laguntzarik gabe lan egiten ikastea, taldean lan egiten ikastea baino?, irakaslearen azalpenetatik abiatzea al da ikasteko modu onena?, ordenua berez eskuratzen da ala ikaskuntzako helburu gisa berariaz aipatu beharra dago?).

Atzerriko haurrei dagokienean, hutsunea ez datza beraiengan, sozializatu zituzteneko kulturaz oso bestelako kultura batekin aurkitzean baizik. Bestalde, bizi behar duteneko gizarte-egiturak “gutxiengo” egoeran kokatzen ditu de facto (Vásquez, A y Martínez, I; 71, 1996).

* *Eskola denarekiko aldeak, bere funtzioak, talde desberdinek beregandik espero dutena.*

Mendebaldeko gizartean, kultur maila batzuetan besteetan bainoago, oso zabaldua dago haurrak txiki-txikitandik eskolatzearen garrantzia eta eskolaren esku uzten dira familiak burutu izan ohi zituzten funtzioak. Gaur egun, gutxiengo batek soilik jartzen du zalantzan eskolara joateko beharra eta, esate baterako, haur-hezkuntza derrigorrezkoa ez bada ere, ia haur guztiak eskolatuta daude 3 urte betez geroztik.

Nolanahi ere, zenbait taldek ez diote garrantzi bera ematen, esaterako, ijitoek, haurraren ongizatearen beste alderdi batzuei balio handiagoa ematen baitete eskolara joateari baino, adibidez, familiarekin egoteari eta, ahal denean,

biziraupenerako laguntzeari. Gainera, *familia ijitoek ez dute eskolaren esku utzi beren balioak eta kultura igortzeko erantzukizuna, gizarte nagusiak egin duen bezala (Lasa, Begoña; 25,1990)*. Ijitoen artean eskola irakurtzen, ikasten eta kalkulua ikasteko erakundetzat hartzen da, oro har.

Ijito-familia gehienek murgilduta daudeneko gizarte ez-ijitoan beharko dituzten funtsezko teknika instrumentalak (irakurmena, idazmena eta kalkulua) ikasteko, ijito ez direnekin harremanak izaten ikasteko eta gurasoak lanean diren bitartean, norbaitek zaindu ditzan bidaltzen dituzte haurrak eskolara (Lasa, Begoña; 31,1990).

2.1.1. Ohiko erantzuna

Gehienetan, eta aurreko guztiaren ondorioz, gutxiengoan dauden taldeei egotzi ohi zaizkie zailtasun eta liskarrak, haien “kultura” eta interesik ezari, eta ikasle hauek hutsune handiak dituztela nabarmentzen da: ikasteko zailtasun handiagoa, erritmo motelagoa, baita gaitasun gutxiago ere, faktore soziokulturalek (familiak, inguruneak...) baldintzatua dena ere.

Okerreko planteamendu honen ondorioz, “arazoa” konpontzeko burututako ekintza gehienak gutxiengo horietako ikasle jakinari edo ikasle-taldeari zuzendutako berariazko tratamendua ematean oinarritu dira. Ikuspegi homogenezatzaile batetik taxututako ekintza eta gainerako ikasleei eskatutako eskakizun, prozesu eta arauak bultzatzen dituzte. Honela bada, berariazko ikastetxeak, ikasgela bereziak (aldi baterako edo egokitzapenerako biak ere) eta ikasleak ordu jakin batzuetan berreziketa lantzeko joango diren laguntza-gelak sortzeko joera egon da.

Ikuspegi honek ondoko ondorioak ekarri ditu, besteak beste:

- ◆ Kasu askotan, bidezkoa dena baino gehiagotan, berariazko ikastetxe eta ikasgela itxi hauek dakarten bazterketa egonkorra egin da.
- ◆ Lorpenak izateko igurikapenak zapuztu egiten dira, gutxieneko eskakizunak murriztu egiten dira, baita estimuluak ere, hau da, beren ahuleziak edo zailtasunak jorratzeko errepikapen-ariketak erabiltzean oinarritutako asmo pedagogikoa ahuldu egiten da.
- ◆ Bestelako espazioetan kokatu izanak ez du ohiko eskolaren egituraren

gaineko gogoeta egitea eta hura zalantzan jartzea ekarri, geroz eta berariazko baliabide gehiagoren beharrean dagoeneko ustea baizik.

- ◆ Ezagupen ezari, aurreritziei eta ikasleen bazterketari eutsi egiten zaie.

Ekintza hauen bidez ez dira eskola-porrota edota eskola-uztea gainditzea lortu. Gutxiengo etnikoetako ikasle gehienek (ijitoak eta etorkinak, baita bigarren belaunaldikoak ere) ez dute lortzen, nahita ere, gizarte-bazterketatik ateratzen lagunduko dioten lan-alorretan jarduteko beharrezko zaien prestakuntza hautatzeko behar duten kualifikazioa.

Mota honetako planteamenduek lortu nahi denaren kontrako fruituak eman ditzakeela frogatu da, ikasleek eta familiek aurkako jarrera hartzen baitute batzuetan. Askotan ikasleen familiak edo komunitateak berak arbuiatzen du eskola, ordezkatzan ez dituelako, asimilatuko dituen eta beren kultura arbuiatuko duten beldurrez, sortzen diren bazterketengatik, gurasoek eskolan izandako esperientzia txarrengatik (kexu izateko deitzea etengabe, seme-alaben porrota) eta han egiten dena ezagutzen eta ulertzen ez dutelako.

Dena den, nabarmendu beharra dago gutxiengoan dauden taldeek gizarte-bazterketatik ateratzeko aukeratzat dutela eskola, gerora lan-munduratzeari eta gizarteratzea ahalbidetuko dien prestakuntza lortzeko modutzat.

2.1.2. Eskola gutxiengo etnikoetako pertsonen premietara hurbiltzeko gogoetak

Eskolak erantzun egokia ematen lagunduko duen gogoeta egin behar du, batetik, eta, bestetik, egoera nola hobetu hausnartu behar du. Eskolak garrantzi handia du ikasle hauen ikaskuntzan eta ikaskuntza horren onerako eta kalterako faktoreak zeintzuk diren ikusi beharko da, eskolaz kanpoko beste faktore batzuk —soziokulturalak adibidez— bazterrean utzi gabe.

Arazoa ez da soilik ikaslea aztertzearekin konpontzen. Eragina duten aldagai ezberdinek (kulturalak, sozialak, pertsonalak, ikasteko egoerak, irakatsi nahi diren edukiak, irakasteko modua...) duten elkarreragina ere aztertu beharko da. Egoera informalagoetan edo ikaskuntzaren ingurunea eta baldintzak aldatzean, gutxitu edo desagertu egiten dira eduki batzuk edo beste eduki konplexuago batzuk ikasteko zituen

zailtasunak. Irakaslearen eta ikaslearen artean harreman ona dagoenean, zailtasun gutxiago dituzte ikasteko, laguntza-gelan edo tailerretan frogatu ahal izan denez. Bestalde, askotan irakasle guztiek arazoak ez dituzte ikasle berekin izaten eta estrategia metodologiko aktiboagoak erabiltzean ikasteko interesa handitu egiten da. Beraz, ikasteko egoera eta ingurune jakin batzuek lagundu egiten dute eduki desberdinak eskuratzen eta gaitasunak garatzen.

Aipatu dugunez, gogoan hartu behar da garatu beharreko arau, balio, ohitura eta gaitasunak eta eskolak igortzen dituen ezagutzak urruti samar egoten direla gutxiengoan dauden talde hauen kultura, interes eta errealitatearen ikuskeratik, eta haustura ematen da askotan bi munduen artean. Ikasleak bizi duena, ezagutzen duena, interesatzen zaionaren eta ikasi behar duenaren artean loturarik ez badago nekez ikasiko ditu ikasi beharrekoak.

Erantzun egokia emateko eta ikasle guzti-guztiak integratzeko gogoan hartu behar dira ezaugarri komunak eta desberdintasun pertsonal eta kulturalak. Horrek gizarte bereko taldeak eta urrutixeagokoak edo ezezagunak direnak -gutxiengo etnikoak, adibidez— aintzat hartzea eskatzen du. Eskolako ikasle eta talde bakoitzaren ezaugarri, interes eta premiak ase behar ditugu, horretarako ikasleen gaitasun guztiak, bai komunak, bai bereizten dituztenak, garatzeko duten eskubidea sustatu eta errespetatu behar da.

Kultur aniztasun hau faktore aberasgarritzat hartzeko, berdintasunean, elkarriketan eta trukean oinarritutako ikuspegi batetik heldu behar zaio. Ikuspegi honen arabera, ez da ikasle edo talde bat beste batean integratu eta, hortaz, bertara egokitu behar; aitzitik, guztiak integratzen dira eskolako taldean eta taldea bakoitzaren desberdintasun, ikusmolde, ohitura, balio, ezaugarri eta alderdi komunekin trinkotzen da.

◆ ***Zenbait jarraipide edo gogoeta:***

- * *Eskolak garapenerako ingurune eta baliabide egokiak eskaini behar ditu. Beharrezkoa da eskolara joatea edo ikasgela arrunt batean egotea, baina hori ez da aski. Elkar ezagutzeko aukera emango duen ingurune aproposa sortu behar da, aurreiritziak gutxitu edo desagertu eta ikasleak bere premia, interes eta gaitasunak asetzen dituen erantzunak aurki ditzan, horrela pertsona gisa eta osatzen duen taldeko kide gisa onartzen dutela sentiarazteko.*

- * *Desberdintasunarekiko begirunea eta eskubide- eta aukera-berdintasuna uztartzen dituzten estrategiak bilatu behar dira eta taldeen arteko bizikidetza eta elkarrizketa sustatu.* Norbere kulturari uko egiteko eskatzen ez duten planteamenduak egin behar dira, baina gutxiengoan dauden kulturarekiko “gehiegizko begiruneagatik”, kultura horietako ikasleen premiak asetzeko eta errealitatearen gaineko ezagutza izateko baliabideak ez ematea dakarten jarrera erlatibistak hartu gabe ere. Ikasleei gizartean moldatu ahal izateko giza baliabideak eta baliabide materialak eman behar zaizkie, baliabide hauek nola erabili eta gizartean nola eta nondik parte hartu beraiek erabaki dezaten.

- * *Gutxiengoan dagoen kultura eskolara hurbiltzeak ikasgelaren funtzionamendua berrantolatzea eskatzen du, hezkuntza-praktikaren osagai guztiak eta curriculumaren funtsezko osagaiak beste modu batera taxutzea alegia.* Kontua ez da ikasgelak apaintzean kultura horretako ezaugarri batzuk jasotzea edo irakasgaren batean kultura horri buruzko gairen bat txertatzea edo egun jakinetan alderdi folklorikoenak jasotzea, eta ez da aski, ezta ere, alderdi horiek ikastetxeko pertsona batek edo gutxi batzuek soilik aintzat hartzea. Hezkuntza-praktikaren osagai guztiak eta curriculumeko funtsezko osagaiak (helburuak, edukien hautaketa, sekuentziazio eta garapena, metodologia...) hartzen dituen gogoeta eta berrantolamendua egin beharra dago, nahiz eta ikasleen kultura eta egoera desberdinak aintzat hartzen dituen aldakuntza oro onuragarri den.
 - ... *azpitaldeak edo kulturak bazterketatik ateratzeko konponbide orok hezkuntzaren funtzionamendu-eredu orokorrak eta, zehazkiago, curriculumaren edukiak hautatu eta garatzeko jarraitutako ereduak aldatzea eskatzen du.*
 - ... *Planteamendu orokorra behar izateak ez du esan nahi pentsamendua, praktikak eta erakundeak berak ere aldatu arte ijitoen kulturari heltzea bezalako inolako neurri zehatzak ezin direnik hartu. Aitzitik, kulturantzitasun zehatzek eragindako arazoek —gutxiengo etnikoen, emakumearen eta abarren bazterketa— egun dugun eskolaren kultur monolitismo eta etnozentrismoa zalantzan jartzen laguntzen dutelakoan nago (J. Gimeno Sacristán; 128-129, 1992).*


Honela bada, zenbait ikastetxetan, ikasgela edo ziklo mailan, edota ikastetxe mailan ere, zenbait ekintzatan (proiektu berritzaileak, talde malguak, laguntzen partaidetza ikasgelan edota proiektu horietan...) aintzat hartzen dira ingurunearekiko, familiarekiko... harremanak ere. Esperientzia onuragarri huez baliatu behar dugu geroz eta curriculumeko osagai gehiagorengan eragina duen kulturarteko proiektu bat ikastetxe osoan hedatuz joateko.

- * *Planteamendu orokorra egin behar da, ikastetxearen bizitza osoan eragina duen planteamendua. Hau aniztasunaren trataeran txertatu beharko litzateke oro har, eta ikastetxeko talde guztien kultura guztiak, erritmo, ikasteko tankera, gaitasun... desberdinak jaso beharko lirateke bertan, eta ez gutxiengoan dauden ikasleen arazoei erantzuteko modu gisa ulertu. Une eta egoera jakin batzuetan berariazko programak (aberaskuntza, sendotze, gizarte-gaitasunerako eta abarrerako programak) burutu beharko direla ukatu gabe ere, planteamendu orokor batetik abiatu behar da.*

... eskolako kulturak nekez hartuko ditu aintzat gutxiengoan dagoen kultura bateko kideak bere eduki eta praktiketan, harik eta, eskolako kultura guztiak curriculum kulturantzaren arazo orokorragoari behar bezala heltzen ez badio; eta nekez lortuko da curriculum hori aniztasuna orokorrean aintzat hartzen ez bada...

... Lehenik eta behin, gutxiengoek dituzten arazo bereziak ulertzeko premia gisa eta eskolako kultura zabaltzeak duen garrantziaren hedadura osoa ulertzen lagunduko duen eremu zabalago baten baitan. Bestalde, burutu daitezkeen ekintza mugatuagoek zentzua hartuko duten baitan burutuko diren eragin handia izan dezaketen estrategiak soilik ikuspegi honetatik proposa daitezkeelakoan gaude. Aldaketak, hurrenez hurren eta une jakin batean burututako ekintzen bidez ekin beharrekoak izanik ere, orokorrean pentsatu behar dira beren konplexotasun osoa ulertu eta, horrela, ekintza zehatzei zentzua eta ordenua emateko (J. Gimeno Sacristán; 127 1992).

- * *Planteamendu orokor hau norbere balio, estrategia eta helburuak berrikusiko dituen kulturarteko ikuspegi batean oinarritu behar da. Alegia, eskolan dauden kultura desberdinak aintzat hartu behar dira, baita eskolaren kultura bera ere; kultura hauen arteko harremana eragin eta, elkarreraginean oinarrituz, bakoitzaren osagaiak ikuspegi kritiko batetik berrikusi behar dira, elkarren aberasgarri izan dadin. Ikastetxeko erabakitze-maila guztietan hartu behar da ikuspegi hau, hau da, IHP (Hezkuntz Proiektua) eta ICPn (Curriculum Proiektua), osatzen duten osagai guztietan edota ziklo eta ikasgelaren programaziotan ere. Gauza bera, eta benetako curriculumean batik bat, ikaskuntzei, joera eta harremani, testu-liburuei eta irakasleen hizkerari dagokienean ere. Guztia ere, programok aldatzen laguntzeko gogoeta eta azterketa eginez etengabe.*



3. Kulturarteko ikuspegia

Eskolan kulturarteko planteamendu bat egiteko premia antzematen da, bai ikuspegi pedagogikotik bai soziologikotik. Norberak dituen balio, ohiturak eta ezagutzez oso bestelakoak direnak ikasteak eskolako porrota dakarrela frogatu da, batetik. Eta bestetik, kultur desberdintasunak errespetatzeko motibazio demokratiko eta etikoa, hots, norberaren desberdintasunean hezteko eta aukera-berdintasunerako eskubidea. Jatorrizko kultura ezabatzen saiatu beharrean eta aintzat hartzean soilik soilik izango dugu benetako aukera-berdintasuna.

gizarteko talde batek bere kulturak eskolan isladarik ez duela edo ez, behintzat, gainerako kulturak bestekoa, ikusten badu, aukera-berdintasun arazo baten aurrean gaude (J. Gimeno Sacristán; 128, 1992).

Kulturarteko ikuspegiak helburu bikoitzeko planteamendu orokorra eskatzen du:

- ◆ **dagoen elkartrukea sustatzea** kultura desberdinen arteko elkarrizketaren bidez aberastasun kulturalak erdiezteko. Honek kulturen arteko topaketa eta elkartasuna eskatzen du eta bakoitzaren (norberarenaren eta besteen) balio, ohitura, elkarreragin sozial, botere-harreman, faktore soziopolitiko eta abarren gaineko gogoeta eta azterketa egitea. Ikuspegi honen arabera, aniztasuna aberasgarria da, bai gutxiengoan dagoen kulturako kideentzat bai kultura nagusikoentzat ere, eta era askotako ikusmolde, egoera eta harremanak biltzen dituen gizarte konplexu bat ulertzeko eta bertan moldatzeko aukera ematen digu.
- ◆ **aukera-berdintasuna sustatzea:** kultur talde desberdinei (gutxiengoan zein gehiengoan egon) gizarte konplexu eta anitzkoitz batean moldatzeko eta txertatzeko beharrezko zaizkien tresnak eskaini behar zaizkie. Zailtasunak dituzten, gutxiengoan edo baztertuta dauden kulturekin aipatu dugun hori lortzeko, beraiengana jo behar dugu bereziki, eta eskola-mailako prestakuntza hobea eta eskola-arrakasta sustatu behar ditugu. Horretarako beren premietara egokitu, eta beren gaitasun eta trebetasunetan aintzat hartuz, beren abileziak sustatu, ahuleziak osatu eta beren kulturatik abiatu beharko dugu: *“baina horretara mugatu gabe, norberaren kultur egoeraz jabetzeko baizik”* (Flecha; 77, 1994a)

KULTURARTEKO IKUSPEGI BATEN PLANTEAMENDU OROKOR BATEN HELBURUAK

**aukera-berdintasuna
sustatu beharrezko
baliabideak eskainiz**

**elkartruke eta
aberastasun kulturala
sustatu kulturen arteko
elkarrizketaren bidez**

Kulturartekotasunak bi alderdi ditu, beraz: batetik, ikasgelan dauden kultura desberdinen bereizgarriak berreskuratu behar dira, horretarako, jatorrizko taldeari dagokion balioa emango zaio eta talde horrekiko identifikazio ez-iraingarria sustatu eta kultura estandarra, homogeneousazio-prozesua saihestuko da. Bestetik, orotariko gaitasunak garatuko dira, kulturen arteko elkartruke eta aberaste honen bidez.

helburua ez da pertsona guztiek kultura homogeneousoa izateko aukera berak izatea, giza baliabideak eta baliabide materialak banatzea baizik, inor ez dadin menpeko egoeran egon kultur osagai batzuk ez izateagatik (Flecha,; 77,1994a).

Kulturarteko ikuspegi honen aurka ondokoak ditugu:

- *ikuspegi etnozentriko edo asimilatzailea.* Ikuspegi honen arabera kultura bakarrak balio du. Gainerakoak ez dira aintzat hartzen edo, hartzekotan, gutxiengoan dauden kulturetako kideek kultura nagusia bereganatzeko. Honela bada, gutxiengoan dauden taldeak bere kulturari eutsi eta besteari uko egin ala kultura nagusia bereganatu eta berea baztertu aukeratu beharra dauka, betiere bigarren mailan geratuko delarik bai eskolan bai gizartean (askotan ekinza orekatzaile bereziak burutzen diren arren).
- *ikuspegi kulturantza.* Kultura desberdinak daudela onartzen da baina “kultura desberdineko” taldeak ezagutu eta berriazko tratamendua eman beharra besterik ez da proposatzen. Berriazko trataera honek asimilatzailea eta orekatzailea izan daiteke, edo, bestela, norbera bere kulturari eta, asimilazionismoa saihestearren, besteetatik bereizita hezteko duen

eskubidearen aldekoa izan daiteke. Aurreneko kasuari buruz mintzatu gara jadanik. Bigarrenean, berriz, gutxiengoan dauden taldeek hala nahi balute zilegizkoa izango litzatekeen arren, kultura desberdinek bizi duten desberdintasun-egoerari eta, hortaz, kultura horietako hainbat kideren bazterketari eusten dionaren alde txarra du.

Kulturarteko ikuspegiak aurreko bien alde onak hartu eta gainditzen saiatzen da eta norbere kulturen hezteko eskubidea, batetik, eta gizarte konplexu batean moldatzen jakitea, bestetik, uztartzen ditu. Horretarako, beste kulturetako osagaiak bereganatu beharko dira norberarenari uko egin gabe eta kulturen arteko elkarriketa, truke eta aberastearen bidez.

Kultura desberdinek bizi duten egoera sozioekonomiko desberdina dela-eta, batetik, eta eskola kultura horietako baten fruitu delako —bertan alderdi batzuk nabarmendu eta beste batzuk zokoratzen baitira—, bestetik, trukea parekoa ez izateko arrisku nabarmena dago. Nolanahi ere, arrazoi hauek ez dira aski ikuspegi honen alderdi onei uko egiteko eta ahalik eta modu orekatuagoan heldu beharko zaio, bada.

Horretarako ondokoak bete beharko dira:

- ◆ kultura guztietako kultur osagaiak hartu, aztertu eta zalantzan jarri.
- ◆ gutxitxo baloratu izanagatik ere, beste kultura batzuetan garrantzi handia duten alderdiak sustatu, esaterako: ikasteko modu eraginkorragoak eta errealitateari lotutakoak, musika...
- ◆ balioen ikaskuntza, gureez bestelako balioekiko begirunea eta prozeduren ikaskuntza landu.
- ◆ kontzeptuzko eduki askoren garrantzia erlatibizatu, eta gerora ikasteko beharrezkoak direnak eta etengabe aldatzen ari den gizartean hobe moldatzen edo erantzuten lagunduko dutenak nabarmendu.

Osagai hauek guztiak sartzea aberasgarria da ikasle guztientzat, eskolak curriculum-eskaintza zabalagoa baitu, eta horrek interes eta premia ezberdinetara hobe egokitze aukera ematen digu.

Ikuspegi honek gutxiengo baztertuen hezkuntzaren planteamendua, hutsuneak dituen ikuspegi etnozentriko eta kulturantza alegia, aldatzea eskatzen du. Mota bateko

ikasleentzat hezkuntza orekatzailea proposatzen da eta gainerakoentzat pixkana ikaskuntza konplexuagoak emanez joaten zaien hezkuntza trebatzaile eta aberasgarria,. Horren ordean, ikasle guztiei eman beharko zaie aipatu hezkuntza aberasgarri hori eta “baztertutako” ikaslea ebaluatzeko ikuspegia bera aldatu beharko da, bada.

Ikuspegi batek eta besteak eskatzen dituen aldakuntzak ondoko koadroan laburbildu ditugu:

OHIKO IKUSPEGIA: OREKATZAILEA		KULTURARTEKO IKUSPEGIA	
PLANTEAMENDUA	ERANTZUNA	PLANTEAMENDUA	ERANTZUNA
Gutxiengoan dauden taldeetako ikasleek gabezia handiak dituzte. Diagnostiko bat egin behar da gabezia horiek antzemateko.	Dituzten zailtasunak, ahuleziak antzeman, ekintza orekatzaileak taxutzeko: gizarte-laguntzak, laguntza arruntak.	Kultura desberdinetako ikasleek ebaluatu beharreko gaitasun, hezkuntz premia, ahalmen, balio, ezagutza, ohitura, igurikapenak... dituzte, hauek batzuek komunak, besteak desberdinak.	Beren ahalmen, interesak ebaluatzea. Bakoitzarekiko begirunea eta elkar aberaseta. Ikaslearekiko eta <u>familiekiko</u> harremana.
Ez dituzte adin jakin batean dagozkion kontzeptu, ohitura, balio... egokiak bereganatu.	Denak berdin tratatu eta berdin eskatu denei.	Ez dituzte eduki berak une berean zertan bereganatu. Denek gaitasun jakin batzuk garatu behar dituzte: mugimenezkoak, sozialak...	Mota <u>guztietako gaitasunak</u> landu. Mota desberdinetako eduki eta jarduerak landu, bakoitzaren interes eta premien arabera eta kultura desberdinetako edukiak jorratuz.
Porrot gehiago izaten dute eskolan ikasteko dituzten zailtasunen ondorioz.	Ikasgela edo ikastetxe bereziak behar dira atentzio egokia emateko: erreperazioak, jarduerak errepikatzea, eskakizun apalagoak, gutxieneko eskakizunak apaltzea, estimulu gutxiago...	Gutxiengoan dauden taldeetako ikasleek eta gainerakoek ikasteko gaitasun bera dute. Porrota beren errealitatearen eta eskolaren arteko alde handiari eta igurikapen apalei zor zaie, besteak beste.	<u>Beren errealitate</u> , esperientzia, abilezia, <u>igurikapen baikorretatik</u> abiatzea. Estrategia metodologiko desberdinak. Taldekatze desberdinak. Mota desberdinetako jarduerak. Hiru eduki-motak landu.


II. KAPITUA: KULTURARTEKO HEZKUNTZA

Eskolan kulturarteko ikuspegia hartzeak ikastetxearen bizimoduaren alderdi guztietan eragingo duten erabakiak hartzea eskatzen du. Ez da aski “beste” kulturen ezaugarriak ezagutzea edo espazio berean bizitzea. Ez da aski beste gai bat gehitzea edo ohiko edukiari zerbait gehitzea: beste kulturei buruzko ikasgaiak, kulturarteko jardunaldiak.... Kulturarteko hezkuntzaren oinarritzko printzipioak hezkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan txertatzea da koska eta proiektuon zehaztapen orotan eta hezkuntza-praktikan aintzakotzat hartzea.

Kulturarteko hezkuntzaz jarduteak ez du jakintzagai edo arlo berri bat sortzea eskatzen, eta ez da aski arlo bakoitzean eduki batzuk gehitzea; aitzitik, arlo bakoitzaren ikuspegia, helburuak, edukien hautaketa eta sekuentziazioa, estrategia metodologikoak, ebaluazioa... aldatzea eskatzen du.

Ondoko printzipioetan oinarrituko da kulturarteko hezkuntza:

- ◆ Hizkuntz eta kultur aniztasunarekiko begirunea eta ulermena izateko hezi.
- ◆ Askatasuna, begirunea eta elkartasuna modu kritikoan erabiltzeko hezi, bazterketa eta desberdintasunen aurkako borrokan aurrera eginez.
- ◆ Talde eta pertsona desberdinen premiak asetzeko hezi, gizarte konplexu batean moldatu eta txertatu ahal izateko beharrezko baliabideak emanez. Aukera-berdintasuna sustatu.



Jarraian kulturarteko hezkuntzaren bidez Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zehar lortu nahi diren helburuak azaltzen ditugu. Helburuok etapa eta arlo ezberdinetan zehaztu beharko dira.

- Norbere burua eta besteak ulertu, onartu eta errespetatu, hizkuntz eta kultur aniztasuna herriek eta gizabanakoek beren nortasuna izateko duten eskubidearen baitan baloratu.
- Norbere kulturaren eta besteenaren osagaiak (ohiturak, balioak, faktore sozioekonomikoak, harreman-motak...) eta elkarren arteko eraginak ezagutu eta baloratu.
- Hizkuntz gaitasunak eskuratu, hizkuntz aniztasuna errespetatu.
- Egoerak eta arazoak esperientziaren alor ezberdinetatik konpontzen ikasteko gaitasunak eskuratu.
- Pertsonen arteko arazoak konpondu, arazootan sakonduz arrazoiak ezagutzeko.
- Gizarte konplexu eta heterogeneo batean moldatzeko beharrezko diren trebetasun, baliabide, gailu eta jarrerak eskuratu (gutxiengoan dauden kulturetako kideei bere kasa moldatzeko beharrezko bitartekoak eskaini).
- Nortasun pertsonala eta norbere buruaren gaineko estimua garatu, kide deneko taldea errespetatu, irainak gaitzitu eta etnozentrismoa baztertu.
- Aurreiritzi, bazterketa eta bidegabekeriaren aurkako partehartze aktiboa izan.
- Inguratzen duen mundua kultur ikuspegi ezberdinen arabera ulertu.
- Malgutasuna erakutsi beste pertsonen ekarpenekiko eta baiekarpen hauek, bai besteen balioak ezagutzeko interesa erakutsi.
- Talde-jardueretan elkartzunez eta lankidetzarako gogoz parte hartu.

Helburu hauek garatu ahal izateko kulturarteko planteamendua ikastetxeko bizitzako alderdi ezberdinetan erakutsi behar da eta hauen artean ondokoak nabarmentzen dira:

- *Aniztasunaren trataera* Bakoitzaren premia, ezaugarri, interes eta esperientzietatik abiatu, komunitatik zein ezberdinetatik, aberaste eta truke planteamenduak egiteko.
- *Hizkuntz aniztasuna* Ama-hizkuntza errespetatu eta baloratu eta bigarren hizkuntza ikasteko prozesu egokiak taxutu. Komunikazioaren osagai guztiei eta hizkuntza eta lengoia ezberdinei garrantzia eman. Hizkuntza


arlo guztietan landu.

- *Elkarreraginak* Harreman egokiak eratu irakasle eta ikasleen artean. Eta lankidetzan, talde-lana eta besteen bereizgarriekiko begirunea landu ikasleekin.
- *Igurikapenak* Asko lortzeko igurikapenei eutsi. Ikasleen baliabideetan eta beren alderdi onetan oinarritu, gabezietan baino.
- *Helburuak* Mota guztietako gaitasunak landu, batetik, aniztasunari erantzun ahal izateko eta, bestetik, hezkuntza balioanitzan eskaini eta gizartearen eskakizun desberdinei eta aldakuntzei erantzun ahal izateko.
- *Edukiak* Kultura desberdinetako ezagutza, edukiak eta balioak landu eta aztertu. Edukiak ikasleen premia eta interesen arabera aurkeztu eta sekuentziatu. Garrantzi handia eman prozedurazko edukiei. Eskolatzeko osoan zehar eta arlo desberdinetan agertzen direnak lehenetsi.
- *Familiekiko harremana* Harreman oparo eta iraunkorra izan familiekin, elkarren arteko lankidetzan, batetik, eta, bestetik, ikaslea zein familien kultur ezaugarria, harreman-motak, portaerazko jarraipideak eta igurikapenak hobeto ezagutzen eta haiek baloratzen saiatu.
- *Estrategia metodologikoak* Lehian beharrezko lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, talde heterogeneoak, arazoak konpontzeko metodoak erabili, eztabaidak proposatu, arauak adostu eta aztertu... Ikasleen esperientzietatik abiatu ezagutzazko gatazka sortzeko, aberasteko eta zalantzak eragiteko, ikasleek adierazpenak gutxietsi gabe betiere.
- *Ebaluazioa* Ebaluazio hezitzailea burutu eta hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko nondik jo adierazi. Aurrerapenetan oinarritu eta arazoak egoerak ulertu eta konponbideak bilatzeko erabili. Banan banako ebaluazio arautzailea.

1. Aniztasunaren trataera

Kultur aniztasunari heltzeko bi printzipio uztartuko ditugu: aniztasuna errespetatzeko printzipioa eta berdintasun-printzipioa. Printzipio bakarrean oinarrituko bagina ondokoak bezalako egoera kaltegarriak sortuko lirateke:

- Aniztasunaren izenean, ikasle-mota bakoitzarentzako hezkuntza-mota desberdina taxutzera iristeko arriskua dago: gutxiengoentzat, beren kulturarekin lotutako eta gainerakoek ez bezalako edukiak, eduki gutxiago motelentzat, “jatorri ez oso intelektualekoentzat” ikaskuntza “praktikoagoak”, lan-munduarekin lotura handiagoa dutenak... Honela, orain duten estatus berean (bazterketa, lan-maila apalagoa, langabezia) jarraituko lukete, ez bailituzkete hezkuntzaren bidez gizartean moldatzeko beharrezko diren osagaiak eskuratuko.
- “Gauza bera denentzat” berdintasunaren izenean: halere, askotan ez da berdintasun hori eskaintzen. Konturatu gabe egiten bada ere, batzuei behar dutena ematen zaie, haien esperientziatik abiatzen gara, beren kulturak eskolan islada duela ikusten dute, irakas-metodoak beren premietara egokitzen dira... eta beste batzuk, berriz, alboan uzten dira. Alegia, berdintasunaren izenean alternatiba bakarra ematen zaie denei, baina alternatiba hau hobe egokitzen zaie batzuei besteei baino, eta horrek desberdintasunak eta bidegabekeriak eragiten ditu lanean.



Horregatik bada, berdintasuna eta aniztasuna uztartu behar dira: desberdintasunak errespetatu eta baloratu, komuna dena sustatu eta errealitate desberdinak gogoan izan behar dira baliabideak eta eskolako arrakasta denon artean banatu ahal izateko. Horretarako, bakoitzak bere errealitan oinarrituz parte hartzea eta elkartruke kritikoa egitea ahalbidetzen duten estrategia malguak erabiliko ditugu.

Ikasle guztien kultura aintzakotzat hartu ahal izateko, haien ezagutza hartu behar dugu abiapuntutzat. Horrek beren egoera ezagutzea; behatzea; ikasle, familia eta ingurunearekin etengabe harremanetan egotea eta, dokumentazio ezberdinen, komunikabideen, errealitatearen gaineko gogoeta eta beren jarrerren azterketa kritikoa bidez, kultura horren gaineko ezagutza sakontzea eskatzen du.

Ikuspegi honen arabera, norberaren kultura ezagutzeaz dihardugunean, ez gara ezagutza antropologiko handiez ari, ezta zerbait zurrunez ere, norberak bizi duenaz, bere errealitate, esperientzia, errealitatea ezagutzeko moduz, eta ingurune bakoitzean gehien garatzen eta baloratzen diren gaitasunez baizik. Kultura desberdinak elkarrekin harremanetan dauden izaki biziduntzat hartuko ditu ikuspegi honek eta ezaugarri soziopolitiko eta ekonomikoen eragina jasaten duten gizarte-ingurune batean kokatuko ditu. Kultura desberdinei buruzko ezagutza hau guztia ikaskuntzarako tresna eta abiapuntu gisa eta ikaskuntzarako eduki gisa, eskolako kultura eta norberaren jakituria aberasteko elkartruke gisa balio behar dute.

Honek ondokoa eskatzen du:

- ◇ Mota guztietako gaitasunak sustatzea.
- ◇ Mota guztietako edukiak lantzea eta ikuspegi ezberdinak erabiliz eta kultura desberdinen planteamendu, balio, mundu-ikuskerak eta harremanak izateko modua aintzat hartzea.
- ◇ Ikasleen esperientziak abiapuntutzat hartzea.
- ◇ Ikaslearen jatorrizko komunitatearen igurikapen eta nahiak, edota edozein erabakik honengan izan ditzakeen ondorioak aintzakotzat hartzea.
- ◇ Irakasleek eta hezkuntza-komunitate osoak dituzten kulturarteko joerak eta ezagutzak sakontzea.
- ◇ Baliabide desberdinak eskaintzea (metodologikoak, antolakuntzari dagozkionak...).
- ◇ Egoera baztertzailak saihestea.
- ◇ Ikasleen interesak errespetatu eta erantzutea, aldi berean, igurikapen eta interes berriak sortuz.
- ◇ Kultura desberdinetako ikasleen arteko harremana sustatzea.

◇ Harreman honetan desberdintasunaren alderdi aberasgarria eta batzen dituen nabarmentzea.

2. Hizkuntz aniztasuna

Kultur aniztasunaren baitan nabarmendu beharreko funtsezko alderdien artean hizkuntz aniztasuna dugu. Gutxiengoan dauden taldeek kultura nagusiak dituzenez bestelako harreman-motak ohiturak, balioak eta abar izateaz gain, hizkuntza desberdina izateagatik ere bereiz daitezke. Bestalde, hizkuntza bera izanda ere, talde soziokultural desberdinek hizkera desberdina izatea ere gerta daiteke.

Eskolak ikaslearen hizkuntzarekiko begirune eta balorazioa ziurtatu behar ditu hizkuntza behar bezala garatu dadin. Eskolaratzerakoan ikasleak gehien harritu ditzakeen ezaugarrien artean, han beren ohiko ingurunean egiten denaz bestela hitzegiten dutela edo ezer ez edo oso gutxi ulertzen dutela izan daiteke. Gerora ikastea galaraz dezakeen bazterketa-sentimendua edo arbuioa eragin ditzake egoera horrek. Halakorik ez gertatzeko, bere hizkuntzan mintza daitekeela, bestea ikastea komeni zaiola, horrela errazago egingo baitzaio han eskaintzen zaiona eskuratzea, bere hizkuntzari eta bere kulturari ez diola uko egin behar izan gabe sentiararzi behar zaio.

Hizkuntza tratatzeko modu hau eskolatze osoan adierazi beharra dago:

- Eskolako hizkuntza (bigarren hizkuntza denean) ikastea ez da ezarpen gisa hartuko.
- Ikaskuntza hori behar bezala eta modu funtzionalean planifikatuko da, ikasleak balio zaiola sentitzeko moduan.
- Bere hizkuntzak, gutxiengoan badago ere, espazioa eta denbora, islada izango du eskolan: beren hizkuntzan mintzatzeko aukera izango dute, eta hizkuntza hori darabiltenean ulertu egingo zaie, erantzuna eskolako hizkuntzan ematen bazaie ere.
- Senitartean jatorrizko hizkuntza erabili eta garatzea baloratuko da.
- Hizkuntza bietan egindako aurrerapenak aitortu eta baloratuko dira.

Horretarako, irakasleek gutxiengoan dagoen hizkuntza hori pixka bat behintzat ezagutu beharko dute edo, bestela, ikasle horrekin komunikatu eta ulertu ahal izateko baliabide guztiak, hitzezkoak izan ala ez, erabiliko dituzte, horretarako, ikastetxean bertan ikaslearen kultura bereko pertsonak badaude haiengana joz. Gainera, kultura

horretako osagaiak (ipuinak, abestiak eta abar jatorrizko hizkuntzan...) programazioetan sartu beharko dira. Bestalde, ahal izanez gero, beren jatorrizko hizkuntza curriculum arruntean ikasteko aukera aztertu beharko litzateke, esate baterako, hautazkotasun-esparruan.

Hizkuntza elkarreragiteko eta ikaskuntzak burutzeko tresna izango da, ikasle guztiei beren garapen pertsonal eta sozialerako eman beharreko funtsezko tresna hain zuzen. Hortaz, bigarren hizkuntza egoki irakatsi behar da kontrako jarrerak saihesteko. Horretarako ez da aski horretan jarduteko denbora eta espazio bat finkatzea, jarduera orotan agertzea, elkarreragina ahal den guztietan sustatzea edo irakasle guztiak hizkuntza irakasle izatea, ikaskuntza hori testuinguru batean kokatzea eta funtzionala izatea eta esanahia etengabe negoziatzea baizik.

Zenbaitzuetan, berandu eskolaratutako ikasleen kasuan bereziki, berariazko laguntza beharko da arlo horretan, gorago aipatutako guztiaz gainera. Laguntza horrek, betiere, aipatutako printzipio horietan oinarrituko beharko luke.

Colin Baker-ek (1997, 333, 334. orr.) lau ezaugarri nabarmentzen ditu Cumminsek gutxiengoan dauden hizkuntza duten ikasleak gaitzeko interbentzioei buruzko teoriaran agertzen diren eskolei buruz:

◆ Gutxiengoan dagoen hizkuntza eskolako ikasketa-planean txertatzea.

“Eskolak gutxiengoan dagoen hizkuntza bere baitan txertatu, dagokion maila eman eta sustatuz gero, gaitze-aukerek gora egiten dute”.

“beren egitekoa ikasleen berezko hizkuntzari bigarren hizkuntza bat eta kultur afiliazio bat gehitzea dela uste duten hezitzaileek areago bultzatuko dituzte ikasleak beren egitekoa ikasleen jatorrizko hizkuntza eta kultura ordezkatu edo kentzea dela uste dutenek baino” (333. orr.)

◆ Familiek beren seme-alaben irakaskuntzan parte hartzea sustatzea.

“Gurasoei beren seme-alaben eskolatzearen gaineko botere eta garrantzia emateak komunitate eta gutxiengoetako haurrak gaitzea eragin dezake”

“Gurasoek haurren irakurmenean konpromisoa hartzeak, baita ingelesez hitzegiten ez dakiten alfabetatu gabeko gurasoak ere, egundoko eragina izan zuen beren seme-alabek irakurtzeko zuten gaitasunaren garapenean” (334. orr.)

- ◆ Elkarreraginean oinarritutako ikaskuntza aktiboa bultzatzen duen irakaskuntza erabiltzea.

“elkarrekiko elkarreragina.

Eredu honek gertaerak behin eta berriz errepikatu beharreak, goi-mailako ezagutzazko trebetasunak garatzea du helburu, batetik, eta, bestetik, erabilitako formak zuzendu beharreak, ikasleek hizkuntza modu esanguratsuan erabiltzea. Hizkuntza erabiltzea eta garatzea curriculum-eduki osoarekin batera txertatzen da, ez da isolatutako irakasgaien modura irakasten. eta ikasleei kanpo-motibazioa baino, barnekoa eragiteko moduan aurkezten zaizkie ariketak” (335. orr.)

- ◆ Gizarte- zein eskolako ingurunea aintzakotzat hartzen dituen eta testuinguruan kokatutako ebaluazioa.

“Gutxiengoan dauden hizkuntzetako ikasleen balorazioa ikasleen arazoetan beharreak, arazoaren muina gizarte- eta hezkuntza-sisteman edota, ahal den guztietan, ikasketa-planean oinarritutako da” (335. orr.)

Haurrak Haur-Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzako (1H) lehen ikasturtean eskolatuz gero, ama-hizkuntza eta eskolako hizkuntza desberdinak izateak ez du zertan arazorik sortu, baldin eta, aipatutako osagaiak eta Euskadiko eskola-sistemako elebitasunaren eraginez aurki daitezkeen egoera ezberdinak aintzat hartzen badira.

Hona praktikan gehien aurkituko ditugun egoerak:

- * Ikasle guztiek edo gehienek ez dute eskolako hizkuntza ezagutzen ama-hizkuntzaz bestelakoan, 2Han (Bigarren Hezkuntza) alegia, eskolatuta daudelako. Honela, egoera beretsua aurkituko dugu ikasle guztien artean eta ez dugu aurretiazko ikaskuntzarik izango hizkuntzari dagokionean. 2Han irakatsi-ikasteko prozesuak (esanahien negoziazioa edo denon artean bateratzea, mota guztietako baliabideetan oinarritzea...) berdina dira guztientzat. 2H ikasteko motibazioari dagokionean, aldeak egon daitezke ikasleen artean, baita gorago aipatutako hizkuntzaz kanpoko hainbat hizkuntz alderdi ere.

Gehiengoetako eta gutxiengoetako ikasleen arteko alde nagusia hau da: irakasleak ulertu egiten dute haurrak dioena, honen ama-hizkuntza hizkuntza ofiziala (euskara edo gaztelania) denean. Gainera egunerokoan erabiltzen da hizkuntza hori, komunikabideetan, familian eta, maila jakin batetik aurrera, ikastetxean irakasgai gisa.

Gutxiengoan dagoen talde bateko ikasleek ere hori bermatua izan beharko

lukete, hots, bere hizkuntzan mintzo denean, uler dakiela, hizkuntza batetik besterako transferentziak egin ahal izateko; bere ingurune informalean, familian, taldean bere hizkuntza bultzatzea onestea, batean egindako ikaskuntzak bestera edo besteetara transferitu ahal izateko. Eta curriculum arruntaren baitan bere 1Hren ikaskuntza formala egiteko aukera eman beharko litzaioke, halaber, pixkana-pixkana areagotuz, eta ezin bada, eskolaz kanpoko orduetan egingo da.

- * Eskolako hizkuntza ezagutzen ez duen bakarria ikaslea edo ikasle-multzoa izanez gero, komunikaziorako testuinguruak sortzen, esanahiak negoziatzen eta ikasgelan gertatzen dena ulertzen lagundu beharko zaio eta ikaskuntza ez da gainerako ikaskideekiko harreman sozialaren edo ordutegi bereziaren esku utziko. Horretarako, eskaintza desberdinak eratu eta talde handian azaldutako testuak ahal bait gehien murriztu beharko dira, hasieran bereziki, eta testuok lantzean, hizkuntzaz kanpoko laguntzaz, ulertzen dela egiaztatzeko elkarreraginez eta abarrez baliatuko gara. Gogoan izan behar da ikasgela bakoitzean eskolako hizkuntzaren garapen-maila oso desberdinak ditugula.

Desberdintasun soziokulturalek eragindako hizkera-mailako aldeen kasuan ere planteamendu hauxe bera erabil dezakegu. Itxuraz, eskolako hizkuntza bera darabilte denek, baina multzo desberdinen hizkeraren arteko aldeak hain dira handiak, hizkuntza desberdinak bailiran hartu behar direla.

Laburbilduz, ondokoak egin beharko dira kasu guztietan:

- ◇ esanahiak negoziatu eta denon artean eraiki.
- ◇ hitz berak erabiltzean ulertzen dela eta gauza bera esaten dela egiaztatu.
- ◇ mota guztietako baliabideak erabili ikasle guztiak ulertzeko eta guztiak uler gaitzaten.
- ◇ guztiak ikasgelan gertatzen eta esaten dena ulertzen dutela ziurtatu.
- ◇ hiztegi ezezaguna sartzea kontrolatu.
- ◇ egoera desberdinetan eta testuinguru desberdinetan kokatutako egoeretan komunikazioa eta elkarreraginak sustatu.
- ◇ ikasleak *gramatika aldetik* zuzena ez den hizkera erabiltzen badu ere ez barregarri utzi.
- ◇ ikaslearen hizkuntza onetsi.
- ◇ programazioetan gutxiengoan dagoen hizkuntza edo hizkuntza horretako zenbait alderdi txertatu.
- ◇ familiekiko harremanean informazioak, garrantzizkoak edo arruntak,

ulertzen dituztela ziurtatu (horretarako hezkuntza-komunitatean itzultzaile lana egin dezaketenengana joz behar den guztietan)

◇ familiek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte har dezatela bultzatu.

3. Irakasleen egitekoa eta elkarreraginak

Irakasleen egiteko nagusienetakoa, garrantzitsuena ez bada, hezkuntza-prozesuetan laguntzea edo prozesuok ahalbidetzea da. Hau da:

- . estimuluak eta informazioa ematea;
- . ikasleen ezagutzak, balioak, jarrerak... zalantzan jartzen edo “arazoak bilatzen” laguntzea, galdera egokien bidez gatazka sortu eta ikasleek beraiek aurrera egiten laguntzen duten erantzunak bilatu behar izan dezaten;
- . zeregina nola burutzen duten (bakarka zein taldean) gainbegiratzea;
- . etengabe informazio- eta sendotze-*feedbacka* ematea eta ikasleen ideiak goraiatu eta onartzea;
- . “benetazko elkarreraginak” sustatzea;
- . ikasleari arrakasta gehiago lortzeko aukera ematea eta ikaskuntza-jardueran ari denean parte hartzeko denbora gehiago ematea.

Kulturartekotasunari dagokionez, irakasleak artekari gisa egiteko ondokoa bete beharko ditu:

- ◆ *Ematen dituen estimuluak eta informazioa ahalik eta aberats eta desberdinena izatea*, eta kultura desberdinetako alderdiak jasotzea, ikasle bakoitzak laburpen kritiko eta aberatsagoa egin dezan.

Horretarako, ahalik eta zabalena izan beharko du, batetik, eta, bestetik, etengabe berrikusi beharko da informazio hori ikasleekiko elkarreraginez, izan ere, elkarreragin horrek informazio berria eskaini eta zalantzan jartzen ditu irakaslearen usteak, errealitatea beste modu batera taxutzera behartuz. Benetako elkarreragina badugu, ezin da zalantzan jarri eta beste modu batera taxutzeko prozesu honetatik kanpo geratu.

- ◆ *Ikasleen ezagutza, balio eta sinesmenak ezagutu, onartu eta zalantzan jartzea*, horrela, errealitatea interpretatu eta beste modu batera taxutzeko tresna geroz eta konplexuagoak erabili ahal izango dute irakasleek eta, horri esker, taldearekin bat egin, gauzak egitera behartu behar izan ez eta etiketak jartzea saihesten delarik.

Ezagutza oro burutzeko ezagutzazko gatazka sortu behar den bezalaxe, kultura bati dagozkion kontzeptu, balio, ohitura eta abarrei dagokienean ere, aurrera egiten lagunduko digun gatazka sortu beharko da eta ikaslearen esperientzia kultur adierazpen gisa onartu (dela gutxiengoan dagoena, dela nagusia) eta ikasle bakoitzak bere taldearekiko duen identifikazioa kanpotik erabaki edo epaitu gabe. Ikasleak egin behar du egoki deritzon laburpen eta identifikazioa. “Zuek ...-ok” esanaz hori erraztu beharrean oztopatu egiten da. Hobe da, bada, ikaslearekiko elkarreraginak garatzea, pertsonatzat hartzea eta errealitateaz duen ikuskera eta jokatzeko modua baloratzea, eta, gainerako ikasleek beren buruarekin egiten duten bezalaxe, dituen gaitasunen arabera zalantzan jartzea.

Prozesu honetarako lagungarri izango dugu bereizten dituzten ezaugarriak baino, batzen dituztenak biltzea, elkarren arteko hurbilketa batzen dituenean oinarritzea, norberaren esperientzia abiapuntutzat hartuta bestearen larruan jartzeko prozesua ahalbidetzeko.

- ◆ *Ikasle guztiekin harreman afektibo positiboa eratzea*, bereziki gutxiengoan dauden taldeetako ikasleekin. Irakaslearen jarrerak sekulako garrantzia du ikasleek elkar onartu edo baztertzeari dagokionean.

Irakasle-ikasleen arteko harremanak garrantzi handia du beti, areago gutxiengoan dauden taldeetako ikasleekikoa, egoera korapilatzeko eta gutxietsi eta gaitzesteko joera baitago. Gutxiengo hauetako kideek eskola arrotza den erakundetzat badute (litekeena da hau izatea bere taldekoak ez direnekiko harremana duen ingurune bakarra edo bakarrenetakoa eta lehenbiziko aldiz desberdina dela igarriko duen tokia), garrantzi handiagoa du irakaslea erreferente bilakatzea, harreman egokiak ezartzea, lotura bat eskaintzea, behar duenean laguntzeko prest agertzea, ikaslearen aurrerapenean parte hartzea eta bere familiarekin batera aritzea, bere autonomia eta ekimenak bultzatzea, gainerako ikaskideekiko elkarlan eta trukea sustatzea...

- ◆ *Arrakasta banatzea* ikasle guztiak onarpen-maila egokia lor dezaten. Gainera, aurreiritzi etnikoak murrizteko ezinbesteko baldintzetakoa dugu haxe.

*"eskolara joatea derrigor izatea ez da aski aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzeko...
Ikasgela gehienetan izaten da elkarreragin eta arrakasta guztietan nagusi den ikasle-taldetxo bat eta ez den beste taldetxo bat..." (M^a Jose Diaz Aguado; 7,8, 1992)*

- ◆ *Ikasleek ikasteko eta irakasleek hezteko duten gaitasunean sinestea*, eta ikasleekin

dituzten elkarreraginetan erakustea, bai hitzez zein bestela adierazitako onespén eta aldezenetan, bai proposatzen zaizkien ariketetan (zeregin konplexu eta garrantzitsuak), bai beren ibilbidea hautatuz joan daitezén sustatzen zaíen autonomian.

- ♦ *Ikaslea eta taldea orientatu eta tutore-lana egitea*, arazoak konpontzen lagundu. Horretarako ikasle bakoitza eta ikasle horren motibazio, interes, igurikapen, komunikatzeko moduak eta abar ezagutu beharko ditu eta ikaskuntzak burutzean, ikasle-taldeari, lagun-taldeari, familiari, komunitateari... sortzen zaizkion zailtasun edo krisialdiak aintzat hartu.

Gutxiengoan dauden taldeetako ikasleak orientatu eta erabakiak hartzen lagundu nahi izanez gero, garrantzi handia du beren ezaugarri pertsonalak, zein bere taldearenak aintzakotzat hartzea (norbanako erabaki batek beren komunitatean izan ditzakeen ondorioak, ikaslearekin ezezik familiarekin ere aritzea garrantzizko erabakiak hartu behar direnean...), baina ikasle horiei etiketak jarri gabe (alegia, ikasle ijito guztiak eskulanearako iaioak direla pentsatu eta beste aukerarik ez ematea, adibidez).

Ikasgela-taldea ezagutu behar du, baita burutzen diren dinamikak, maila pertsonalean edota beste talde batekoa izateagatik sortutako gatazkak ere, arazoak bideratzen eta konpontzen laguntzeko, eta horretarako, estereotipoak gainditu eta elkarlan eta elkartasuna sustatu behar dira.

Ikaskideekiko elkarreraginei dagokienean eta M^a José Díaz Aguadok egindako ikerlanen arabera (1993), ikaskideek baztertu egiten badituzte gerora arazo larriak izan ditzakete gizartean edota emozionalki egokitzeko. Askotan elkarreragiteko beharrezko gaitasunik ezari edo testuinguruak eskaini ez edo oztopatu izanari zor zaio hori. Aintzat hartu behar dira kultura desberdinetako gaitasun edo jokamoldeak, hizkuntz erabilerak eta gizarteko jokamoldeak.

- * *Gauza nabarmena da jarrera edo jokamolde bera modu ezberdinetara epaitzen dela kulturaren arabera. Esate baterako, solaskidearen begietara begiratzeak zintzotasuna erakusten du mendebaldekoan artean; arabiarrentzat, berriz, onartezina da eta haientzat eskutik helduta joatea gauza arrunta bada ere, ez da oso onargarria mendebaldeko gizonen artean. Hizkuntza semitikoek (arabiera edo berebera) ekintza bukatua eta bukaberearen arabera neurtzen dute denbora... (Soria Gutiérrez, A.L. 21. or.; 1997).*

Komunikatzeko gaitasunak denekin landu behar dira, zailtasunak ez baitituzte gutxiengoan dauden taldeetako ikasleek soilik, ikasle guztiek baizik, baita zenbait

irakaslek ere. Irakasleek beren komunikatzeko gaitasunak sakondu eta hobetu egin beharko dituzte ikasleei aipatutako ikuspegiarekin bat etorriz, lagundu nahi izanez gero. Lagungarri izango da hezkuntza-taldea elkarrekin aritzea, eta elkarlan honetan beren jardueraren gaineko hausnarketa eta kritika egin liteke.

Gutxiengo etnikoen kasuan bazterketa ez zaio elkarreragin-jarraipide desegokiei zor, aurreiritziei eta, distantziarengatik edo ikasleen eta eskolaren arteko jarraikortasunik ezarengatik, eskolara egokitze arazo larriei baizik.

Elkarreraginak ahalbidetzen dituzten zenbait estrategia metodologikok aurreiritziak murrizten lagundu dezakete, esaterako, elkarlanean aritzeak. Hortaz, ikasleen arteko elkarreragin egokia sustatu beharko da, komunikazio-arloko gaitasunak, talde-lana, elkarlana, berdinen arteko tutoretza....

Laburbilduz:

- ◇ Kultur ikuspegitik aberatsak eta anizkoiak diren estimuluak eta informazioa eskaini.
- ◇ Ikasleen eta irakaslearen beraren ezagutza, balio eta sinemenak zalantzan jarri.
- ◇ Ezagutzazko gatazka sustatu, kultur erreferentzia eta egoera desberdinak aintzakotzat hartuz.
- ◇ Kultura desberdinak batzen dituen nabarmendu.
- ◇ Gutxiengoetako ikasleekin harreman afektibo positiboa ezarri.
- ◇ Arrakasta ikasle guztien artean banatu.
- ◇ Ikasleek ikasteko duten gaitasunean sinestu.
- ◇ Ikasleei erabakiak hartzen, arazoak konpontzen lagundu.
- ◇ Orientazio lanean etiketak jartzea eta estereotipoak gainditu.
- ◇ Ikasle eta irakasle guztien komunikazio-gaitasunak areagotu, ez bakarrik gutxiengo taldeetakoena.

4. Igurikapenak

“Eskola- eta gizarte-porrota deritzona talde eta pertsona desberdinen kultur altxorra ikusteko gauza ez diren eta etekina ateratzen ez dakiten eskola eta gizarte baten porrota dugu. Gabeziei buruzko teorietan oinarritutako politika orekatzaile eta laguntzaileek ikasteko igurikapen ezkorrek eragiten dituzte, eta zoriren eraginez betetzen diren profezia bilakatzen dira” (Flecha; 77, 1994)

Aipatu dugunez, batzuetan badirudi gutxiengo etnikoetako ikasleak oker gizarteratuta daudela, edo eskolako ikaskuntzak burutzeko beharrezko ohiturak ez dituztela barneratu eta, horrenbestez, oso zaila egiten zaiela eskolan arrakasta izatea. Gainera, oso zaila zaio eskolari beren kulturak eta gizarteko gainerako faktoreek eragindako zailtasunak gainditzea. Horrela bada, oso gutxi espero da haiengandik eta irakasleek arrakasta izaten laguntzeko dituzten aukeretatik. Dituzten gaitasun eta ahalmenen gaineko konfiantzarik eza honek igurikapen ezkorrek pizten dituzte eta azkenean porrot egitea eragiten dute. Hau ez da porrota eragiten duen faktore bakarra baina bai nabarmentzeko modukoa.

Zailtasunak espero izateak Pigmalion efektua eragin dezake, ikerlan ugaritan frogatu ahal izan denez: irakasleak ikasle bat gauza dela uste izanez gero, litekeena da ikasleak arrakasta izatea eskolan, eta gauza ez delakoan badago, berriz, porrot egin dezake, haurrak duen gaitasuna/gaitasunik ezaren gaineko ustea egokia izan ala ez. Betetzen den profeziaren efektua dugu hau eta hainbat gailu abian jartzeari zor zaio.

Beren gaitasun eta aukeren gaineko hautemate ezkorra ikasleei eman eta ohartaraz dakieke (baita gurasoei ere). Eragina izango du horrek beren buruaz duten kontzeptuan eta “nik ezin dut” ustea barneratu eta zereginari uko egin edo motibazio gutxirekin helduko dio, arrakasta izaten lagunduko dioten estrategia eta ahaleginak egiteari uko eginez.

Gauza bera gertatzen zaie irakasleei, zailtasunak beren gaitasunik ezari edo gabeziei zor zaizkiela uste badute, estrategia hobeak bilatu beharrean, gutxiago eskatuko eta zeregin bera edo oso antzekoak errepikatzeke eskatuko die ikasleei, gutxiago goraiapatuko ditu eta kritikatu egingo dizkio akatsak maiz. Zerbait ulertzen ez badute, pentsatu gabe, agian, gaizki aurkeztu zaiela, normaltzat hartzen da; ikasle hauei

denbora gutxiago uzten zaie galderak erantzuteko, ez baita erantzuna dakitenik espero; proposatzen zaien ikaskuntza ez da hain autonomoa, “laguntza handiagoa” behar baitute eta, ondorioz, arazoak konpontzeko estrategia asko ez dituzte ikasten; zereginak beren gabeziara egokitzen dira, eta gehien kostatzen zaiena edo zailen egiten zaiena behin eta berriz errepikatu behar izaten dute.

Ondorioz ez dute motibaziorik, ez dute ikas dezaketenik uste eta horrek interesik eza eta utzikeria eragiten die. Bestalde, ongi portatuz protagonista izateko aukerarik ez dutela ikusiz gero, nolabait beren irudi txarrarekin bat datorren portaerak edo, besterik gabe, interesik ezak, asperkeriak eta motibaziorik ezak eraginindako portaera ez egokiak erakutsiko dute, horrela, gurpil zoroa itxi eta irudi ezkorra berresten delarik.

“... gutxiengo taldeetako hurrek eta eskolan porrot egiteko joera dutenek, menpekotasun handiagoa izaten dute irakaslearekiko, eta, gainera, irakasleen hautemateak eragin handiagoa du beren buruaren gaineko kontzeptuan eta eskolako errendimenduan, gehiengoetako ikasleengan baino.”(Jordán; 58, 1994)

Hortaz, konfiantzarik ezak eragin negatiboak dituen bezalaxe, beren gaitasunen gaineko konfiantzak emaitza onak ekarriko ditu ikerlan ugari frogatzen dutenez.

Laburbilduz, ereduazko ikaslearekiko jarrera baten alegiazkotan pedagogiko osoaz baliatzean datza koska” (Jordán; 59, 1994)

Horrek ez du esan nahi errealistak izateari utzi behar diogunik, gabeziatan baino ahalmenetan pentsatu behar dela, arrakastei porrotei baino arreta handiagoa eskaini behar zaiela eta ikasleei arrakasta horiek ikusarazi egin behar zaizkiela, zailtasunaren diagnostiko zehatza egin eta, ondoren, ikasteko dituen zailtasunak gainditzeko alternatiba erakargarriak bilatu behar direla, harreman afektibo positiboa eratu behar dela ikaslearekin, eta gizartean ekarpenak egin ditzakeeneko uste osoa dugula erakutsi behar zaiela, baizik.

Laburbilduz, haiengandik gutxi espero izateak gutxi ematea eragin badezake, gehiago espero izateak hasiera batean pentsa zitekeena baino gehiago ematea ekar dezake. Jordánek dioskunez, garrantzi handia du “hurrek haiengandik espero daitekeena baino gehiago ikas dezaketela” sinestea.

- ◇ gehiago espero izan, gehiago eman ahal izan dezaten.
- ◇ arrakasta txikiak txalotu.
- ◇ zereginak beharrezko laguntzen bidez sekuentziatu, porrot ez egiteko eta beren buruaren gaineko kontzeptua hobetzeko.
- ◇ porroten aurrean beste alternatiba batzuk bilatu.
- ◇ zereginekin lotura izateaz gain, beren interes, kezka eta abarrekin ere baduten elkarreraginak bilatu.
- ◇ ariketak aukeratu eta burutzeko autonomia eta erantzukizun handiagoa eman.
- ◇ dituzten aukerei erreparatu eta *feedback* positiboa itzuli.

5. Gaitasunen garapena: Helburuak

Hezkuntzaren helburua oinarrizko **gaitasun** batzuk garatzea da, garapen pertsonalerako eta gizartean txertatzeko beharrezko gaitasunak alegia.

Gogoan hartu behar da aldeak daudela eskolako eta familiako kulturen artean, bata ingurune formalekoa baita, eta bestea, berriz, informalekoa. Ikasleen ingurune informalean, familian, komunitatean era naturalean garatzen diren gaitasunak eta eskolan garatzen direnak desberdinak izaten dira. Jordánek (1996) dioskunez, ingurune informaletako ikaskuntza gehiago oinarritzen da behaketan hizkuntzan baino, aktiboagoa da eta testuinguru batean kokatua, ahozkoagoa eta buruz ikastekoagoa, idatzizkoa eta arrazionala baino, eta pertsonen zuzentzen zaie kontzeptuei bainoago...

Familiaren eta eskolaren arteko alde orokor hauek handiagoak dira gutxiengoan dagoen kultura bateko kideen kasuan. Kultur aldeak ikaskuntza-arloko esperientzia desberdinak eragin ditzake familian eta ezagutzazko estilo, hizkera, motibazio, gizarte-elkarreragin eta abarren inguruko desberdintasunak eragin ditzake. Zenbait kulturetan garrantzi handiagoa ematen zaie zentzuei, besteetan afetuari edo taldeari. Hona Jordánek honen inguruan zer dioen:

Beste zenbait kultura konbentzionalagoetan ondokoak nabarmentzen dira:

- a) gizabanakoaren eta familiaren edo erreferentziazko talde edo komunitatearen arteko lotura afektiboa eta hauekiko menpekotasuna;*
- b) oraina (“orain eta hemen”), emaitzak berehala edo epe laburrera lortzeko jarrera baitago; gehienetan, goraiatu egiten da iragana eta, horrekin batera, zaharreko begirunea edota hildakoen eragina nabarmentzen da;*
- c) familiari (familia zabala) lehentasuna, ematen zaio eta elkarrekiko menpekotasun afektibo eta pragmatikoak sortzen dira (arazoak konpontzeko garaian segurtasun-iturri dugu —giza segurtasuna, instituzionala beharrean—);*
- d) pertsonalki eta izpiritualki garatzeko helburua; alegia, “izataren” nagusitasuna;*
- e) elkarlana edo elkarrekiko menpekotasuna, bizitzaren erronkei aurre egiteko mekanismo gisa;*
- f) negoziazioa, mota desberdinetako arazo edo gatazkei zeharka heltzeko mekanismo gisa;*
- g) sexu-rolen bereizketa: gizonezkoen jarduera, aktibotasun, nagusitasun eta kanporako joera, emakumeen pasibotasun, sumisio eta barnerako joeraren aldean (Jordán, 80, 1996).*

Eskolak familiaren eta eskolaren arteko aldeak aintzat hartzen ditu nolabait. Honela bada, haur txikia lehenbizikoz eskolan hastean zentzuzkoa irizten zaio egokitzeko denbora piska bat behar izateari, jarduera handiagoa, komunikazioa, afektua, egoera informagoak edo etxean dituen antzeko egoerak behar izateari eta, era berean, beste alderdi formagoak pixkana jorratuz joan behar direla uste da. Honela bada, haur-hezkuntza aktiboa izaten da, zentzuei, afektuei lotuta baitago eta azturak berariaz eta pixkanaka ikasten dira.

Dena dela, beste adin bateko ikasleekin burututako ikaskuntza-irakaskuntzak ez dio bide berari jarraitzen. Banakako eta ezagutzazkoarekin ohitu gaude eta gehiago epaitzen da. Kultur aldeak ahaztu eta ziurtzat jotzen da adin jakin batean denek gaitasun berak dituztela, haur guztiek irakaskuntza oinarritzeko ezaugarri batzuk dituztela aurretiaz: lengoaiaren nolabaiteko garapena, ohitura jakin batzuk, ezagutzazko gaitasun jakin batzuk hainbat trebetasun (eserita, geldirik, adi, ondokoarekin hitz egin gabe egotea...) garatu dituztela. Familian edo kultur ingurunean garatutako gaitasunak eta eskolan oinarritzat hartzen diren eta bereganatuta dituztela uste den gaitasunak bat dz badatoz edo elkarren artean loturarik ez izateak haustura edo *jarraikortasunik eza* eragin dezake eta horrek ikasteko zailtasunak ekar ditzake berekin (Jordán, 1994).

Honela bada, askotan haur-hezkuntzan eta, zenbaitzuetan, lehen hezkuntzako lehen zikloan lantzen dira soilik gorputzarekin, afektuarekin... lotutako gaitasunak, eta laguntza-gela edo “berariazko curriculumak behar duten” ikasle jakin batzuei ematen zaien berariazko laguntzen testuinguru itxietan betiere. Mota honetako erabakiak hartzerakoan ezagutzazko gaitasunak, gaitasun konplexuak bereziki, zenbait ikaslerekin landu ez edo gutxiago lantzea eta egokitzapen-gaitasunak, gizarte-alderdiak, oinarritzko ezagutzak, berriz, gehiago lantzea gerta liteke.

Ikuspegia aldatu eta ikasle batek kultur aldeengatik edo desberdintasun pertsonalengatik gaitasun batzuk besteak baino gutxiago landu dituela, eta gaitasun batzuk besteak baino baliagarriagoak direla pentsatzeari utzi behar zaio, guztiak baitira beharrezkoak. Hauxe izango da eskolaren egitekoa, ikasleek badituztenak erabili eta beren kultur onesten direnak eta beharrezkoak izanagatik ere, bere ingurunean garatzeko aukera gutxiago dituenak sustatu edo garatzea. Horrela bada, ikaslearen beraren, zein ingurunearen eta familiaren datuak jaso beharko dira, berdina eta desberdina dena aztertu eta horren arabera oinarritzat hartuko diren abiapuntu eta prozesuak zehazteko.

Hala egin ezean, kultur jarraikortasunik ezak arrakasta izateko aukeren gaineko

igurikapen ezkorra eragingo du eta, ondorioz, hezkuntza-arloko aukera gutxiago izango dituzte eskolan (beste ikaskideekiko elkarreragin gutxiago izango ditu gutxiago garatu baititu komunikazio- eta harreman-gaitasunak, hizkuntza desberdina darabilelako; irakaslearekiko elkarreragin positibo gutxiago igurikapen ezkorrek direla eta...).

Proposatzen diren helburuak lortzeko aukera izan dezaten hezkuntza-komunitate osoak adostutakoak behar dute, horrela denek eginahalak norantza berean bildu ditzaten. Horretarako, guztien partaidetza ahalbidetzen edo sustatzen duten prozesuak garatu beharko dira, gutxiengoan dauden taldeetako familiek eta kide nabarmenek parte har dezaten ahaleginduz. Hauxe dugu Eskola Bizkortzaileetan oinarritutako ikaskuntza Komunitateen Proiektuaren onarrizko printzipioetako bat:

a) Eskolan hainbat helburu komun finkatu eta lortzearren guraso, irakasle, ikasle, zerbitzuko langile, administratzaile eta bertako komunitatearen arteko elkarlan aktiboaz diharduen helburu komuna. Denok adostutako helburu eta balio hauek bakoitzaren ahaleginen arreta-gune bihurtzen dira... Hezkuntza-programak diseinatzen eta taxutzen, programa hauek ezartzen eta ebaluatzen hasten garen unetik bertatik hezkuntza-komunitateko kide guztiak aintzat hartzen direnez, eskolek hezkuntza-ahalegin koherenteagoak eta haiekiko konpromiso handiagoa ziurtatu dezakete (Levin, Henry M., 84, 1995).

Eta eta arlo desberdinetako Curriculum Dekretuen helburu orokorretan gaitasun-mota hauek guztiak jasotzen dira. Ikastetxeko proiektuak eta ikasgelaren programazioak taxutzerakoan aintzat hartu behar dira ikasleen premiak eta beren eta bizi deneko komunitatearen lehentasunak.

Bertan kulturarteko hainbat planteamendu jasotzen dira halaber, berariaz batzuetan, eta oso orokorrean bestetan, eta ikastetxeak zehaztu beharko du, bada, kultur alderdia. Hona horri buruzko adibide bat Lehen Hezkuntzako ondoko helburu orokorrean:

k) Giza bizitza eta bizikidetzara arautzen duten oinarritzko balioen garrantziaz jabetu eta haien arabera jokatzeara.

Helburu honi heltzean gogoan izan behar da kultura bakoitzak oinarritzko balio desberdinak izan ditzakeela eta haien gaineko hausnarketa egitean jarrera kritikoa izan behar dugula. Azterketan balio “unibertsalak” aipatzen dira, baina hauek ere, gainerako balio guztiek bezala, kulturaren eragina dute eta ezin dira beste batzuk epaitzeko erabili. Kulturarteko planteamendu batekin bat etorriz, begirunezko jarrera erakutsi beharko litzateke beti.

Laburbilduz:

- ◇ Gaitasun guztiei garrantzia eman eta landu behar dira, alegia, ikasle guztiengan ezagutzazko, sentimenezko, afektuzko... alderdiak sustatu behar dira eskolatzeko osoan zehar.
- ◇ Dagoeneko garatuta dauzkaten gaitasunetatik abiatu eta bitarteko pedagogiko gisa erabili, eta urritasun handienekoak eta premiazkoenak sustatu.
- ◇ Ikastetxean dauden kultura guztien ezaugarriak jaso maila desberdinetarako (IHP, ICP, unitate didaktikoa...) taxutzen diren helburuetan .
- ◇ Oraindik eskuratu ez dituzten eta dagokion adinean premiazkoetat jotzen diren ohitura eta gaitasun guztien ikaskuntza programatu.
- ◇ Ikasgelan, ikastetxean eta bakoitzari dagokionean finkatuko diren helburuak familiarekin eta ikasleekin (adin jakin batzuetatik aurrera bereziki) negoziatu.
- ◇ Ikastetxe jakin baten helburuak finkatzerakoan hezkuntza-komunitate osoa aintzakotzat hartu eta garapen pertsonalerako eta gizartean txertatzeko garrantzitsuak direnak baloratu.
- ◇ Helburuak ez murriztu ikasleen arabera, aitzitik, guztiek garrantzitsuak diren helburuak denek lortzeko bideak bilatu. Eskola bizkortzaileen mugimenduak bultzatzen duenaren ildotik: *“Eskolak...” (Levin)*. Honela, errazagoa baita aniztasunari erantzutea eta bakoitzari irakaskuntza aberatsagoa eta osoagoa eskaintzea.

6. Edukien hautaketa: Ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala

Gaitasunak ikaskuntza-egoeren bidez eta beren esperientzietan, edukietan alegia, oinarrituta garatzen dira. Kultura bakoitzak garatzen duen eduki (edota ezagutza, balio, joera, esperientzia) motaren arabera, gaitasun batzuk besteak baino gehiago garatuko dira. Eta, era berean, gaitasun berak eduki desberdinen bidez garatu daitezke, ikaskuntza-irakaskuntza ikasleen premia eta interesetara egokitzeko aukera ematen digularik.

Printzipio hori funtsezkoa dugu kulturarteko planteamendu malgua taxutzeko aukera ematen baitigu.

Garrantzia duena gaitasunak garatzea denez, malgutasuna beharko dugu edukiei dagokienean. Horrek ez du esan nahi murriztu egin behar direnik, edukiok hautatu eta sekuentziazteko garaian gogoeta egin beharko dela baizik, eta gaitasun horiek garatzea ahalbidetzen dutenak hautatuko ditugu, batetik, eta talde desberdinen premia eta interesei erantzuten dietenak, bestetik.


Ikaskuntza egon dadin, berria, batetik, eta, bestetik, lehendik ezagutzen zuena, bere esperientzia alegia, uztartu behar ditu ikasleak eta, esanahia emanez, moldatu egin behar du ikasitako hori. Alegia, esanguratsua izan behar du ikaslearentzat, ezagun zaionetik abiatuta esanahia emateko modukoa alegia. Bestalde, funtzionala izan behar du, ageriko erabilgarritasuna behar du eta praktikan jartzeko modukoa. Pertsona guztien irakaskuntzan garrantzizkoa bada ere, areago kultur gutxiengoetakoei dagokienean, norberaren eta eskolako kulturen arteko aldeak eta jarraikortasunik eza handiagoa izan baitaiteke, eta kultura batean zentzua duen zerbaitek, bestean zentzurik izan ez edo beste kultura horietakoentzat erabilgaitza izan baitaiteke.

Aipatu dugunez, ikasle guztiek zenbait ikaskuntza edo bereizgarri badituzteneko ustetik abiatuz gero, eduki batzuk irakatsi gabe utz litezke, edota esperientzia batzuen berri ez ematea gerta liteke, eta, horrela, ikasitakoaren eta irakasten denaren arteko jarraikortasunik eza handitu eta, hortaz, gerora hainbat ikaskuntza eskuratzea oztopatzen da.

... gutxiengoan dauden taldeetako ikasleekin “aukera-berdintasun” handiagoa lortzeko irakasten zaieneko haurren kulturarekin/kulturekin bat datorren “hezkontza-praktika garatu beharko da (...). Kontua ez da, bada, haur horien kultur bereizgarri guzti-guztietan egokitutako irakaskuntza pasiboa burutzea, desberdintasun horiei egokitutakoa baizik, erreferentzia biren arteko bateragarritasunak sustatu eta bateraezintasunak saihesten dituen irakaskuntza..., gutxiengoetako haurren kulturaren gaineko ezagutza etnografikoa izateak ikasgelako bizitzan zein beren familia eta komunitatean izan dezakeen erabilgarritasunaz ohartzea (Jordán, 78,79 1994)

Horrela bada, eduki batzuk esanguratsuak izan daitezke batzuentzat eta ez, aldiz, beste batzuentzat, eta aintzat hartu beharko da hori edukiok sekuentziatu zein hautatzeko. Eta, etapa- edo ziklo-mailan edukiak sekuentziatzeko hipotesi bat taxututa ere, halakotzat hartu behar da, ikasgelaren eta ikasle zehatzen arabera zalantzan jarri beharreko hipotesizat alegia.

Mota guztietako edukiak gertatzen da hori, hots, mota guztietako kontzeptu, estrategia, ohitura, balio eta abarrekin.



Kontzeptuzko edukiei dagokienean, kultura desberdinetako edukiak maila desberdinetan sartu beharra dago:

- ikasleek eskainitako esanahi edo esperientziak.
- irakasleek esainitakoak:
 - . ematen dituen informazioak
 - . hautatzen dituen liburu eta estimuluak
 - . eragiten dituen esperientziak

Maila apalenetan ikasleen ingurune hurbileko edukiak eta beren esperientzia zehatzari, auzoari, familiari, inguruneke familia-mota desberdinei... buruzkoak landuko dira; eta goragoko mailetan, berriz, urrutiagoko kulturak, beste mundu ikuskera batzuk..., hau da, ezagutza abstraktuago eta urrutiagokoak. Osagai hauen guztien arteko elkarreaginean oinarritzen da ikaskuntza hau: bestelako ezagutzak, esperientziak eta kulturak dituzten ikaskideekin; estimuluak, informazioa... eskaintzen dizkion irakasleekin; errealitatearekin eta ingurunearekin dituen elkarreaginean hain zuzen ere.

Edukiak antolatzeko ikasleen esperientzia hartuko dugu oinarritzat, horrela, gizarte-kontzeptuak taxutzerakoan ezagutzazko gatazkak sor daitezen eta esanahi berarentzat ikuspegi desberdinak emanez beren esperientzien esanahia kritikoki berreraiki dezaten.

Prozesu honetan funtsezkoa da esanahiak negoziatzea, hitz berak esanahi desberdinak izan baititzake kultura desberdinetan, objektu bera gauza ezberdinetarako erabil daiteke edota konnotazio desberdinak izan ditzake, eta batzuentzat oso ezagun dena guztiz ezezagun izan liteke besteentzat. Bakoitzaren hizkuntzatik abiatu eta denek ekarpenak jasotzen dituen **hizkuntza komunera** jo behar da. Horretarako mota askotako testuinguruak sortu beharko dira ikasleek eta irakasleek adierazi eta ezagutzeko, besteekin banatzeko, elkarrengandik ikasi eta ikasi beharreko gauza berriak pixkana aurkeztuz joateko, gai interesgarriak erabiltzeko, arlo desberdinetan kultura desberdinetako baliabideak erabiltzeko... aukera ematen duten testuinguruak hain zuzen ere.

Orain arte kontzeptuei buruz esandakoek ez dute inongo zentzurik, irakasten diren **prozedurak** aintzat hartzen ez badira (eta gai hauei dagokienean, are zailago da ezberdintasunez jabetzea aurrekoei dagokienean baino, askotan ez baikara hainbeste konturatzen irakasten eta eskatzen ari garenarekin). Esate baterako, alferrikakoa litzateke azoka txikiei buruzko gaia jorratzean, luzaz adi egoteko eta, gaiarekin gogoratzen dela erakusteko, galdera batzuek idatziz erantzuteko eskatzea.

Litekeena da ohiko prozedura asko oso urrutikoak izatea askorentzat edo eskuratu gabe egotea. Alegia, ikaskuntza programatu beharreko prozedurazko edukiek eskatzen dituzten estrategia metodologikoak erabiltzen egon gintezke, adibidez, entzuten edo beren lekuan eserita egoten ikasten. Gauza bera gertatzen da “metodologia aldatu nahi denean” eta talde-lana, elkarlanean oinarritutako ikaskuntza... egin nahi ditugunean. Ez da aski ikasleak taldeetan banatzea (porrota ekartzen du gehienetan eta denetik saiatu dugula eta ezer egiterik ez dagoela esatea eragiten du); aitzitik, taldean

lan egiten, komunikatzen, besteei laguntzen, arazoak konpontzen... aurretiaz edo aldi berean ikasi behar da, esan nahi baita, prozedura asko aurretiaz ikasi beharrekoak dira gero beste ikaskuntza batzuk burutzeko estrategia metodologiko gisa erabili ahal izateko.

Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako prozedurak beste prozedura batzuk ikasteko eduki ardatzak izan daitezke. Hemen darabilgun ikuspegiaren arabera, garrantzi handiagoa du “ikasten ikastearekin” lotutako edukiak lantzea —informazioa lortu eta erabiltzen, pentsatzen irakastea...— eta testuinguru desberdinetan moldatzen irakastearekin lotutakoak lantzea —egoera jakin batzuei aurre egiten, taldean lan egiten, erabakiak hartzen..., hots, eskolatze osoan zehar eta arlo eta testuinguru askotan errepikatzen diren edukiak—, berariazko ikaskuntza batzuk egitea baino, ikaskuntza hauei buruzko balorazioa bizi garen mundu aldakor honen arabera baita eta garrantzia duten datuak zeintzuk diren erabakitzeko garaian balorazio subjektiboak erabiltzen baitira baitira.

Jakinaren gainean jokatu behar dugu erabiliko ditugun prozedurak aukeratzean eta prozedurok egoki hautatu eta ikaskuntza egoki planifikatu behar dira, eskuratze-mailaren arabera sekuentziatuz eta ikasleei ezagunen eta erabilgarrien zaizkienetik abiatuz, horrela, eskolan ezezik, eguneroko bizitzan ere erabilgarri gerta dakizkien. Erabilgarritasun hori agerikoa izan dadin testuinguru batean kokatu behar dira. Mota guztietako ezagutzak irakatsi behar dira, ez soilik ezagutzazkoak, kulturarteko planteamendu batek proposatzen dituen helburuekin bat datozenak bereziki.

Irakurmena, matematika eta antzeko edukien ikaskuntza zailagoa izan daiteke ikasle batzuentzat besteentzat baino, eta hori ez zaio ikasteko modu desberdina izateari edo beren ezaugarriei zor, edukiak antolatu eta planifikatzeko moduari (orokorki, analitikoki...) eta erabilitako prozedurak barneratuta izateari baizik. Honela bada, ezinbestekoa da bide ugari erabiltzea, zailtasunak zertan datzaten bilatzea, beren esperietziarekin lotzea... Adibidez, baliteke ikasle batek batuketa-eragiketa paper batean egiten jakin ez eta eguneroko bizitzako arazo baten aurrean buruz egiten jakitea. Kasu honetan, zailtasuna ez da batuketa bera, adierazpen grafikoa baizik, zehatzetik abstrakturako pausua, zentzurik eta erabilgarritasunik eza, orokortze-prozesua egin ez izana...

Kulturari dagokionez egundoko garrantzia dute **arau, joera eta balioek**. Kontzeptuzko eta prozedurazko edukietan aldeak aurki badaitezke, areago hauetan.

Batzuek hala uste badute ere, kultura nagusiaren balio guztiak ez dira ez unibertsalak, ez onenak ere. Kultura guztiak dituzte onetsi eta gaitzetsi beharreko alderdiak. Gogoan hartu behar dugu azken hau arauen inguruko eskakizunei, sustatzen ari garen jarrerari eta ikastetxeetako disziplinari heltzeko garaian. Galdetu egin beharko diogu gure buruari zenbateraino ari garen ikasle batzuei, hobebharrez baina aztertu gabe, ohituta daudenarekiko guztiz bestelakoak diren gauzak eskatzen.

Sustatzen eta eskatzen diren arau eta ohiturak aztertu beharra dago eta komunitateko kideen eta, bereziki, ikasleen artean ahal bait gehien adosten saiatu.

... balioei heltzea funtsezkoa dugu Kulturarteko Hezkuntzan: besteen eta norberaren balioei erreparatzea, balio horretara kritikoki hurbiltzea, balioen arteko harremanak zehaztea, balioak finkatzeko prozesua...

Bidegabekeria/indarkeria ororen aurkako konpromisoarekin lotutako balioak sustatu behar dira nagusiki: elkartasuna, lankidetzeta, kultur nortasun guztiekiko —nazionalak zein etnikoak— begirune eta estimua, aniztasuna balio gisa, mota guztietako bazterketa eta zapalketaren aurkako jarrera... Era berean, pertsona bezala eta taldean heltzeko bestelako balioak ere: azterketa eta erabakiak hartzea, erantzukizun pertsonalak eta taldekoak, afektibotasunaren garapen eta adierazpena, ahalegin pertsonala, norbere buruaren gaineko estimua.

*Berez balio hauek sendotzeko balio duten jarrera eta jarraibideen diren **prozedura** eta **tekniken** bidez landu behar dira: elkarriketa, enpatia, banakako zein taldeko hausnarketa, etengabeko kritika, norbanakoaren zein taldearen egoeretan parte hartzea, arazoei heldu eta konpontzea, elkarrekin batera ikastea... (Mesa específica de Educación Intercultural, 9,1993)*

Landu beharreko balioak berdintasuna, justizia eta desberdina izateko eskubidea ditugu, hots, “balio unibertsal” deritzenak, “gizakiengana hurbiltzen gaituzten eta gure jatorria edozein izanda ere, gizaki guztiok ditugun balioak” alegia.

Zenbait balore ez dira kultura guztietan onartzen, beste batzuk, berriz, denok onartu ditzakegun —gutxieneko “unibertsalak” izango genituzke hauek— eta gehienak kultura bati edo besterik dagozkien soilik. Azken hauek errespetatu eta elkarrekin osatzen saiatu beharra dago. Gogoan hartu behar dugu hori eskakizun arau-emaleak, sustatzen ari garen jarrerak eta ikastetxeetako disziplina planteatzeko garaian. Kultura orok, gutxiengoan egon edo kultura nagusia izan, azterketa kritikoa merezi du.

Honela bada, kulturarteko hezkuntzak hiru maila hauek jorratu behar ditu: konzeptuzko zein prozedurazko edukiak eta kultura desberdinetako jarrera eta balioak bildu behar ditu.

Edukiak

Kontzeptuzkoak	Prozedurazkoak	Jarrerazkoak
<ul style="list-style-type: none"> . Ikaslearen esperientziak. . Irakasleak emandakoak. <li style="text-align: center;">----- . Hurbileko testuinguruei buruzkoak: norberaren esperientzia, auzoa, familia... . Urrutiagoko kultur inguruneei buruzkoak: munduko egoera, herrikoa, beste herri batzuetakoak... <li style="text-align: center;">----- . Esanahiak negoziatu hizkuntza komuna lortzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> . Prozedurak egokitu. . Elkarlanean aritzen irakatsi. . Entzun, enpatia, laburpenak egin, txanda itxoin, hausnarketa kritikoa egiteko trebetasunak irakatsi. . Ikasten ikasi. . Bere kasa informazioa lortu. . Arazoak konpondu egoera desberdinetan. 	<ul style="list-style-type: none"> . Kultur alderdi desberdinak onetsi eta errespetatu. . Kultura batzuen eta besteen balioak aztertu. . Balioak sustatu: elkartasuna, lankidetzeta, begirunea, berdintasuna.

Eduki guztientzat berdina direnak:

- ◇ ikaskuntza-sekuentzia orotan aurretiazko ikaskuntzetatik abiatu.
- ◇ ikasgelan dauden kultura desberdinetako edukiak landu.
- ◇ esperientziak, elkarreragiteko jarraipideak, ikasteko estiloak, garatutako gaitasunak, trebetasunak, ohiturak... jasotzen dituen eta testuinguruan kokatutako ebaluazio batetik abiatu.
- ◇ esanahi guztiak negoziatu eta hizkuntza testuinguru batean kokatu.
- ◇ kultura desberdinetako edukiak jaso, trukerako eta aberaskuntzarako modu gisa.
- ◇ era askotako prozedura funtzionalak erabili.
- ◇ ezezagun diren edukien ikaskuntza planifikatu (prozedurak, ohiturak...) nahiz eta gehiengoarentzat arruntak izan.
- ◇ prozedurak ikaskuntzaren ardatz gisa hartu.
- ◇ kultura guztietako (gutxiengoan daudenak zein nagusiak) balio eta jarreraren gaineko hausnarketa kritikoa egin.
- ◇ landuko diren arau eta ohiturak komunitateko kideekin eta, bereziki, ikasleekin negoziatu.
- ◇ garrantzi handia eman "ikasten ikastearekin" lotutako edukiak ikasteari eta testuinguru eta egoera desberdinetan jokatzen ikasteari.

7. Printzipio eta estrategia metodologikoak

Finkatutako helburuak eta edukiak egokiak izanagatik ere, kulturarteko hezkuntzaren garapena ahalbidetu, oztopatu edota eragotzi diezaguketean hainbat aldagaietan —edukien antolamendua, baliabide eta materialak, elkarreraginak eta ebaluazioa— oinarritzen dira estrategia metodologikoak. Helburuak eta edukiak kulturarteko ikuspegi baten arabera behar bezala zehazten ez badira ere, aldagai hauek ikasleen ikasteko moduarekin bat datozen printzipio batzuen arabera taxutuz gero, modu naturalean helduko zaie ikasgelan dauden kultura desberdinei.

7.1. Printzipioak

Ikaskuntzan eta kulturarteko ikuspegiaren baitan gogoan izan beharreko hainbat printzipio aipatuko ditugu eta oinarritzat hartuko dira erabiliko ditugun estrategia metodologikoak taxutzeko. Printzipio hauetako batzuk agertu dira dagoeneko txosten honetan eta argitu ditugu hein handiago edo txikiagoan:

- *Ezagun zaigunetik, norberaren esperientzia, bizipen eta balioetatik abiatuta ikasten da* Horretarako ondokoa egiteko **aukera** ematen diguten estrategiak erabili behar dira: **norberaren esperientzia**, ezagun dena alegia, eta ikasi beharreko eduki berriak lotzeko aukera; norberaren eta besteen jarrera eta balioen jakitun egin eta hauen gaineko **hausnarketa kritikoa** egiteko aukera, batzuetan geureganatu eta beste batzuetan hobetzen edo aldatzen saiatuko garelarik; norbere gaitasun eta trebetasunak oinarritzat hartuz, eskuratutako gaitasun eta trebetasun berriak **frogatu eta arautzeko** aukera. Norberak dituenaz oso bestelako balio, ohitura eta ezagutzak ikasteak porrota dakar.
- *Bizitzen dena ikasten da* Begirune, elkartasun, lankidetzeta, bazterketa eta desberdintasunaren aurkako balioak sustatzeko jarrera eta balio hauek oinarritzat hartzen dituen estrategiak erabili beharko dira. Gauza bera komunikazio, entzuketa, laguntza eta arazoei irtenbidea emateari dagozkien gaitasun eta trebetasunei dagokienez.

- *Dena ez da modu berean ikasten*

Hortaz, **era askotako** estrategiak erabili beharko dira ikaskuntzaren helburuaren arabera. Batzuetan errepikatzea, besteetan modelatzea, beste batzuetan gatazkak sortzea ezagutza berreraikitzeke... baina esanahi bat emanez, testuinguru batean kokatuta betiere.
- *Denek ez dute modu berean ikasten*

Ezaugarri pertsonal eta soziokulturalen araberakoa da, Zenbait kulturek joera handiagoa dute aktibotasuna, talde-lana, bizipenen bidezko ezagutza, zehatzaren alde. Kasuotan informazioa eguneroko mundutik bereizita emateak erruz zailduko du ikaskuntza. Hori ez da beste kulturekin gertatzen soilik, derrigorrezko irakaskuntzan diharduten ikasle gehienekin baizik, nahiz eta talde horiek zailtasun handiagoak dituzten. Hortaz, ikasleek **ikasteko** duten **moduarekin** bat datozen estrategiak erabili beharko dira eta horretarako, ikasteko modu hori ezagutzeko **ebaluazio**-estrategiak bilatu beharko dira.
- *Berdinen arteko harremanean ikaskuntza gertatzen da*

Batetik, komunikatuz eta harremanak izanez, arazoak konpondu eta taldean lan eginez burututako ikaskuntza dugu. Bestetik, ikasgelako ezagutza-maila eta kultur igurikapen desberdinek eragindako ikaskuntza. Horrela bada, elkarreraginak eta ikaskuntza ahalbidetzen duten estrategiak bilatu beharko dira.
- *Irakasleak artekari-lana du ikaskuntzan*

Funtzio hau betetzeko estrategiak taxutu beharko dira eta beharrezko laguntza eman eta irakasteko modua ikasteko moduari egokitu. Zenbait kulturetan elkarreraginen bidez burutzen dira ikaskuntza gehienak.
- *Motibazioa behar da ikasteko*

Horretarako beren interesei, premiei, igurikapenei, erabakiak hartzeko garaiari duen partehartzeari eta jardueraren zentzuari erreparatu behar zaie. Gainera, arrakasta izateko igurikapena behar du. Horretarako, arrakasta izateko eta ikasleek partehartze aktiboa izateko estrategiak erabili behar dira.
- *Ikaskuntza ingurunearekiko harremanetan gauzatzen den*

Horrela bada, ingurunearekiko elkarreragina burutzen deneko banakako prozesu aktiboak sustatu beharko dira. Gogoan izan behar da ikaslea bizi den ingurune desberdinetan ikasten duela, hortaz, ingurune horietan —familian, komunitatean, eskolan— burututako

banakako prozesua ikaskuntzei jarraipena emateko estrategiak bilatu beharko dira.
da, halere,
inguruneak ez du
gutziz baldintzatzen

7.2. Estrategia metodologikoak

Printzipio hauen arabera estrategia batzuk nabarmenduko dira: printzipiook egokien betetzen dituztenak eta kulturarteko planteamednu bat ahalbidetu dezaketenak hain zuzen.

⇒ ***Ikaskuntza orokorturako estrategiak***

Errealitatea, eguneroko bizitzako bizipen eta egoera desberdinak, elkarrekin lotutako osagai ugari biltzen dituen osotasuna dugu. Errealitate hori ezagutzeko erabilitako sailkatze-modua, errealitate horretara hurbiltzeko modua ez da unibertuala, kulturala baizik, alegia, aldatu egiten da kulturen arabera. Honela bada, irakaskuntzan edukiak antolatzeke ohiko moduen artean jakintzagai eta arloka banatzea dugu: matematika, hizkuntza... (metodo zientifiko eta dedukziozkoa erabiliz gehienetan). Antolatzeke modu hau kultura jakin bati dagokio eta beste kultura batzuetan bestela hurbiltzen dira errealitatera. Hezkuntzari arlo edo jakintzagaietatik heltzea oztopo izan daiteke beste kultura batzuetako ikasleentzat.

Ikuspegi orokortzaile batek errealitatea “osotasun” gisa hartzeke aukera ematen digu, eta horri esker, ikasleek bere eskemetan oinarritu ditzakete ezagutzak eta errealitatea osotasunean interpretatu ditzakete, halaber. Lan egiteke modu honek ikasgelako dauden kultura eta egoera desberdinetako edukiak barneratzeke aukera ematen digu, ikuspegi honez gain, kultura horien berri ezaugarriak jasotzen diren eguneroko egoera ugariak, batetik, eta irakaskuntza-ikaskuntza sekuentzietan desberdintasun kultural eta pertsonalak, bestetik, aintzat hartzen badira behintzat.

Ikuspegi analitikoagoek, berriz, berria eta ezagun dena uztartzea eta ikasle askoren interesekin bat etortzea oztopatu dezakete. Esperientziatik, zehatzetik, orokorretik abiatuta abstraktuagora, analitikoagora joko du prozesuak, errealitatea bere konplexotasun osoan interpretatu eta bertan parte

hartu ahal izateko.

Bestalde, jarduera orokortzaileei esker, gaiari edo ikasleen premiei egokitutako taldeak eratu ditzakegu, ikasketak ahalik eta esanguratsuenak egiteko eta, horri esker, eduki berriak ikaslearen ezagutzazko egituren txertatzen dira, jakintzagai bakarrak eskaintzen dituen alorretatik kanpoko interpretazio eta esanguratasun alorretan hain zuzen ere.

Jarduera orokortuek alderdi desberdinak jorrazeko aukera ematen dute eta, honela, premia eta interes desberdinetara egokitzekoa. Honela, ikasle batekin jarduera bateko alderdi matematikoak jorrazten diren bitartean, beste batekin komunikazio-alderdiak jorraztuko ditugu. Bestalde, konplexotasun-maila desberdinak lantzeko aukera ere ematen digu eta ikasle bakoitzak bere gaitasunen arabera parte hartzea ahalbidetzen du.

Estrategia desberdinen artean alde handiak dauden arren, bat etortzeak ere nabarmentzekoak dira:

- Metodo hauetan jakintzagaiak ez dira helburu bat bere horretan, errealitatea hobe eta sakonago ezagutzeko bitartekoa baizik.
- Ikasleen inguruneari, premiei eta interesei lotutako motibazio batetik abiatzen dira.
- Ikasleak ikaskuntza aktiboa egiten du.
- Ekintza etengabekoa da.
- Irakaslea ikaskuntzen sustatzaile, koordinatzaile eta artekari dugu.

arazo sozial eta praktikoei (ikastetxean dauden kulturen arteko harremanak, drogak...) irtenbidea ematakonpontzeko ikasleak nahita ekindako lan bat. Pertsonen bizi-maila hobetzeko beharrezko ezagutza eta trebetasunen ikaskuntza aktibo egiten da honela, lan-proiektu baten baitan egituratuz. Ikuspegi honen arabera, ikasgai edo jakintzagaiak bizitzako egoera konplexuak konpontzeko bitartekoak ditugu.

Arlo edo jakintzagai guztiak edo batzuk orokortu daitezke edo, bestela, arlo edo jakintzagai jakin baten baitan besteetako ezagutzak erabil daitezke.

Proiektu bakoitza burutzerakoan ondoko urratsak jarraitu beharko ditugu:

- Proiektuaren helburua erabaki.
- Informazioa eta aukera desberdinak bilatu.
- Burutu beharreko lan-ildo bat taxutu.
- Taxututako ildoak burutu.
- Burututako lana baloratu.
- Burututako lana aurkeztu edo haren berri eman.

Irakasleak lagundu egin behar du, proiektu honetan gidari lana eginez. Hitzarmen berri bat edo oreka berri bat lortzeko elkarrikidetasun bidez kontraesanak gainditzea eta arazoak konpontzea izango da eskolako lana. Irakasleak beharrezko informazioa emango du edo, behar izanez gero, informazio hori lortzeko jarraitu beharreko bidea erakutsiko du. Sortutako zailtasunen araberrako ereduak emango ditu edo eredu egokiak baloratuko ditu. Ikasleei hitz egiteko, adierazteko, entzuteko aukera emango die. Ongi egindakoari eta zailtasunei buruzko hausnarketa ahalbidetuko du. Laburbilduz, ikaskuntzan artekari lana burutuko du.

Ikerkuntza-proiektuak Metodo hau gelan proposatutako gaia taldeka ikertzean, aztertzean oinarritzen da. Goian aipatutako ezagutzazko prozesuak lantzen dira metodo honen bidez: azterketa, laburpena, ebaluazio kritikoa, adostasunera iristeko arrazoiak... eta gai eztabaidagarriak lantzean, moralarekin eta afektuekin zerikusia duten beste hainbat. Horretarako ondoko lan-urratsak jarraitzen dira:

- Motibazioa.
- Arazoa edo galdera mahaigaineratu.
- Hipotesi bat taxutu.
- Informazio-iturriak finkatu.

Azken urrats hau burutzeko, ondokoak jarraituko ditugu:

- Datuak bilatu.
- Ondorioak zehaztu.
- Orokortu.

Txostenak egin.

Txostenak jakitera eman eta eztabaidatu.

Aurrekoa egin ahal izateko ikasgela taldeetan banatu eta talde bakoitzak azpigai bat aukeratuko du, ikasgelak erabakitako gai orokor batetik abiatuko delarik. Talde bakoitzeko kide bakoitzak azpigai horretako alderdi bat jorratuko du. Honela, talde-lana, bakar-lana eta, talde bakoitzak bere ondorioak aurkeztean, talde handian egindako eztabaida uztar ditzakegu. Gaitik abiatuta datuetara joko dugu, jakintzagai desberdinetako prozedurez... baliatuko gara eta azken txostenera helduko gara.

Kulturarteko ikuspegi batetik eztabaida eragiten duten gaiak proposa daitezke gai komun gisa, besteak beste, legez kanpoko etorkinen egoera, arrazen arteko harremanak, ijitoen bazterketa, pobrezia...

Irakasleek bitarteko jarrera hartu behar dute eta ez dute beren iritzia besteen gainean ezarriko, eztabaida eragiten duten gaiez dihardutenean bereziki. Dena den, hausnarketetan sakontzen lagunduko dio taldeari eztabaidarako galderak proposatuz. Horretarako, desadostasunak eta kontraesanak aintzakotzat hartu beharko ditu eta denek hitz egiten dutela eta prozesuan parte hartzen dutela ziurtatu. Ez dago eztabaidan adostasunera iritsi beharrik, zilegi da ados ez egotea.

Beste teknika asko ditugu honez gain. Zereginaren eta ikasleen adinaren arabera egokiena dena aukeratu beharko dugu.

Erabiltzen den metodoa edozein delarik, ikasleen interesetatik, kultura bakoitzari lotutako gai, produktu edo arazoetatik abiatu beharko dugu.

Metodo orokortuak erabiltzean argi eta garbi finkatu behar da jardueraren eta burutuko diren ikaskuntzen helburua. Era berean, azterketa eta sailkapena aurkeztuz joan beharko dugu, horretarako iturri desberdinak erabiliz. Ikaskuntza orokortu burutzen ari garenean, helburua eta gertatzen ari dena ezagutzen dituen bakarra irakaslea da eta ikaskuntza bereizi gabeko osotasuna bilaka dadin eragotzi behar dugu. Ez soilik ikaskuntza errazten delako, segurtasuna, autonomia eta motibazioa ematen dituelako baizik. Horretarako, ikasleen ezaugarriez gain, beren igurikapenak ere aintzat hartu beharko dira. Esate baterako, baliteke ikasle ijito bat handitan aitari azoka txikian laguntzeko, kalkulua ikastera etortzea eskolara. Bertan "jolastu egiten dela" ikusten badu, nahiz eta azoka txiki batean gaudela jolastu, horretarako hobe aitari laguntzen gelditzea pentsa lezake, eskolan denbora alferrik galtzen egotea baino. Jarduera

bere ezaugarriei (lan aktiboa eta taldean) eta interesatzen zaiola uste dugunari (azoka txikia) begira antolatu badira ere, bere igurikapenak ere aintzat hartu behar dira. Gauza bera gerta daiteke analitikorako, jarduera zehatzerako joera duten edota beste kultura batzuetako ikasleekin ere.

Honela bada, orokortzeak maila desberdinei erantzuteko aukera ematen duen bezalaxe, ikasleen igurikapen eta interesekin bat egiten duten zereginak nabarmenduz eta zabalduz joateko aukera ematen digu halaber. Horretarako ezinbestekoa da ikasleak lortu nahi denaren eta burutzen ari diren ikaskuntzen jakitun izatea.

⇒ ***Banakako ikaskuntzarako estrategiak***

Ikaskuntza banakako prozesua dugu, norberak bere kasa eraikitzen duen eraikina. Ez dago ereduazko ikaslerik, bakoitzak bere erritmo, interes eta estiloak ditu. Ageriago geratzen da hau ikasgelan kultura desberdinak ditugun kasuetan. Horrela bada, jarduera bakoitzerako finkatzen diren helburuak, edukien ikaskuntza/irakaskuntza sekuentzia, zereginak eta ebaluazio-prozesuak egokiak izan beharko dute ikasle guztientzat.

Horrek ez du esan nahi banakako lan estrategiak planteatzen direla, irakasleek plangintzak eta jarraipenak burutzean, goian aipatutakoak aintzat hartu beharko dituela baizik. Dena den, bakarrik lan egiteko eta hausnartzeko uneak beharko ditu ikasleak.

Desberdintasun hauei erantzuteko era askotako ariketak proposatzen dituzten konplexotasun edo zailtasun maila desberdinetako estrategiak proposatu beharko dira, ikasleek bere kasa egiten dakitenaren eta irakaslearen laguntzaz edo ikaskideekin batera egin dezaketenaren artean kokatuz. Honela, proposatutako jarduerak ez dira egiten dakitenetik oso urrun egongo, burutu ezinezkoak gerta ez dakizkien, eta ez dira mekanikoki eta ikaskuntzako osagairik erabili gabe egiteko bezain erraz zaizkienak izango.

Aurreko atalean aipatutako edozein teknika erabiliz, eskuhartze-maila desberdinak lortu ditzakegu, baina, interesen edo proiektuen arabera eratutako taldeetan lan egiten denean, garrantzi handia dauka bakoitzak nola hartzen duen parte, zein helburu eta eduki lantzen ari diren eta lortutako aurrerapenak eta sortutako zailtasunak.

Ikaskuntza-irakaskuntza sekuentziari dagokionez, erabilitako estrategia edozein delarik ere, zereginaren eta ikaslearen ezaugarrietara egokitu beharko da. Esan nahi baita, estrategia bakoitzerako aipatutako urratsak ez dira bere horretan sekuentzia, aitzitik, egokitu egin behar dira. Esate baterako, proiektuen bidez ikastea, eta lanean ari garen ikasleek duten adina, interesak edo premiak arabera, egokiago izan liteke ariketa bera egiten hastea eta ondoren egindakoa gainera hausnarketa egitea, eta aurrerago, antzeko beste egoera batean gaudenean edo antzeko arazo bat dugunean ezer egiten hasi aurretik plangintza egiten hasiko gara, izan ere, estrategia honek kultur edo gizarte-talde batzuei ezezagun zaien gaitasun bat eskatzen baitu (ebalatu eta plangintza egitea). Beste egoera batzuetan, berriz, zerbait burutzea arrotzago gerta dakieke.

⇒ ***Ikaskuntza aktiborako estrategiak***

Aurreko puntuaren haritik, ikaskuntza aktiboari helduko diogu hemen. Planteamendu metodologiko honen arabera ikasleari gauzak erabiliz, aztertuz eta ikertuz joateko aukera, hots, ezagutza bere tresnetatik abiatuta eraikiz, aldatuz eta zabalduz joateko aukera emango dion hezkuntza-ekintza eskainiko zaio. “Eginez” estrategiak ikasi eta sakontzen dira eta hauen bidez ikaskuntza sakontzen da halaber. “Egite” hori ez datza eskuzko jardueretan soilik, baita buru-jardueran ere. Azken batean, ikasleak berak eraikiko du ikaskuntza, bere adimen- eta emozio-eskemetan oinarrituta, ikaskuntza-gaiari esanahiak emanez. Bakoitzak gaitasun edo trebetasun batzuk garatuagoak izango ditu bere kulturaren arabera: behaketa, entzumena, imitazioa... eta gaitasun horietan oinarrituz osatu ahal izango ditu ekintzaren bidez.

Bestalde, kulturarteko hezkuntzak ikasleek beren errealitate eta kulturarekin elkarreragiteko, beren ingurunean eragiteko aukera eman behar du.

Orokortzeari buruzko atalean aipatutako estrategiek ikaskuntza aktibo bultzatzen dute. Bestetik, aurkikuntzetan oinarritutako ikaskuntza, txokoak eta abar ere baditugu.


⇒ ***Ikaskuntza autonomorako estrategiak:***

Ikaskuntzak autonomia bultzatu behar du, ikasten ikastea. Horretarako arakatzeko, informazioa bilatzeko, plangintzak egiteko, erabakiak hartzeko,

gaitsun horiek (informazioa bilatzea, erabakiak hartzea...) ahalbidetzen dituzten kultur eta gizarte-testuinguru desberdinetan komunikatu, hausnartu eta norbere burua arautzeko estrategiak erabili behar dira.

Dakiena irakaslea dela eta ez dakitenak, berriz, ikasleak; ikaskuntza orok irakaslearen beharra duela eta hark parte hartzean soilik burutzen dela ikaskuntza; hura dela, irakatsi beharreko edukien arabera, prozesua zehaztu eta erabakiak hartzen dituen bakarra dioen eredu gaingaitu beharra dago. Ikasgelan autonomia-maila desberdinak ahalbidetzen dituzten estrategiak erabili behar dira, eta dena irakaslearen lanaren eta arretaren mende utzi beharrenean, ikasleek ere parte hartu behar dute prozesuan eta parekoek osatutako taldeez baliatuz, ikaskuntza burutu eta taldearen autonomia sustatzen duten estrategiak erabili behar dira.

Estrategia desberdinak erabil ditzakegu lan autonomorako:



- jarduerak zailtasunaren arabera mailakatzeko estrategiak. Ikasleak bere kasa egiten du lan eta zailtasun-maila bateko jardueraren bat amaitu eta gainditzean, beste maila zailago batera pasako da. Mota honetako estrategien bidez zailtasun-maila desberdinak eta mota desberdinetako interesak landu daitezke ikasgelan. Halere, ikasleak ez du jarduerak berak eskatzen duenaz haratago erabakirik hartzen, prozesua finkatua baitago eta ikasleak jarraitu besterik ez du egin behar, nahiz eta aldaketaren bat egiteko aukera badagoen.
- lan autonomorako gaitasunak garatzen dituzten estrategiak, esaterako, norbere jarduera antolatu eta arautzeko ezagutzazko gaitasunak. Mota honetakoak ditugu bai proiektuen bidezko ikaskuntzak, arazoak konpontzeko estrategiak erabiltzea eskatzen duenak, bai ikerkuntza-proiektuak. Ikasgelan norbere kasa, banaka edo taldean lan egiteaz gain, erabakiak hartzen dira, eta parte hartzen du hautatu beharreko gaia edo arazoa aukeratzen edo planifikatzen, Estrategia hauek ikaskuntza aktiboaz gain, norbere kasako ikaskuntza ere bultzatzen dute, izan ere, ikasten ikasteko, arazoak konpontzeko, gizartea eta ingurunea ezagutu eta bertan eragina izateko behar diren baliabideak eskaintzen baitzaizkie ikasleari eta taldeari. Nolabait esateko, ikasleak berak zehazten du ikasgelako hezkuntza-jardueraren hasiera eta amaiera. Ikasleek beren bizipen, lekukotza, premia eta interesen bidez, ezagutzen, sentitzen eta egiten dakitenaren bidez, eskolako jardueraren abiapuntua finkatzen dute. Eta, era berean, kide guztiek onartzeko moduko konponbidea aurkitzean bukatzen da lana, konponbide hau, egoeraren arabera behar edo ahal izanez gero, aldatzeko aukera dagoelarik. Jakituria, berariaz izan ala ez, ikasgelak egindako eskakizun baten erantzun gisa iristen zaie ikasleei.

Txokoak. Norbere kasako ikaskuntza bultzatzeko ikasgela antolatzeko modua dugu hau. Antolatutako txokoen arabera, lehen mailakoak (jarduera antolatuekin) edo bigarren mailakoak izan daitezke (azken honetan gai baten inguruan proiektuak, interes-guneak edo simulazioak edo “role-play”-ak antolatuz burutzen dira jarduerak). Gehienetan biak uztartzen dira, alegia, ikasgelako txoko batzuetan, antolatutako eta sekuentziatutako jarduerako burutuko dira eta besteetan, estrategia orokortzaileak, simulazioak eta abar.

Programazio negoziatua. Erabakiak hartzerakoan parte hartzeko estrategia dugu hau. Estrategia honen bidez, gaiak, arazoak eta prozesua erabakitzeko ikaslearen interesak soilik aintzat hartzea saihestu nahi da. Edo, bestela, irakasleak edo irakasle-taldeak edo programa ofizialak edo testuliburuek finkatutako programaren, jakintzagaiaren premiak bakarrik.

Ikaslearen interesak aintzat hartzekoak dira, jakina, baina interes berriak sortu behar dira halaber. Areago baztertutako gutxiengoetako ikasleei dagokienez, hauekin muturretara joateko ohitura baitago: edo beren errealitatea guztiz baztertu, edo hainbestera gogoan hartu, ez zaizkiela bazterketa egoeratik ateratzen lagunduko dioten igurikapen berririk sortuko. Ikasleek ez dituzte hezkuntzarako baliagarriak diren proposamenak egiten beti. Atsegin zaizkien proposamenak eskaini behar zaizkie, eta horretarako ikaslearen interesekin bat etorri eta, aldi berean, hezkuntzaren ikuspegitik gizarte konplexu batean txertatu eta moldatzeko baliagarriak diren gaitasunak eskuratzen lagunduko diotenak.

Irakaslea ikasleen eraikitze-prozesuen eta eskolako curriculum osatzen duten edukietan jasotzen den jakituria kolektiboaren arteko zubiak eratzen dituen gidaria dugu. Horretarako gai batzuei arreta eskaini eta beste batzuk baztertu egin beharko ditu, garrantzia duena nabarmendu eta pasadizo hutsa dena aipatu, gaien aukera eta garrantzia agerian utzi eta gizartean duten esanahia eta erabilera praktikoa jakinarazi egin beharko ditu, hots, artekari lana egin hezkuntza-proiektu bati jarraiki.

⇒ ***Elkarlanean oinarritutako ikaskuntzarako estrategiak***

Elkarlanean oinarritutako taldean burututako ikaskuntzak lehian eta bakoitzaren arrakastan oinarritutako beste ikuspegi tradizionalago batzuen bidez nekez landu daitezkeen hainbat gaitasun sustatzeko aukera ematen digu.

Laguntzarako eta desberdintasunak onartzeko, errespetatzeko eta ulertzeko loturak sortzea ahalbidetzen du. Gizartean harrera handia duten gaitasunak lantzeko aukera ematen du halaber, besteak beste, taldean lan egiten jakitea, erabakiak hartzea, komunikatzen jakitea... Gainera, norberaren eskemetatik abiatuta eta etengabe barne- zein kanpo- gatazkak eraginez, bakoitzak bere ezagutza eraikiz joateko espazio zabala sortzen da.


Ikerlari asko (Ovejero, 1990) bat datoz elkarlanean oinarritutako ikaskuntzaren bidez eskon errendimendu handiagoa lortzen dela, bai ikaskuntzan bertan bai sozializaziorako jardueretan, ikaskuntza lehiakorrean baino.

elkarlanean oinarritutako taldean burututako ikaskuntza (...) eskolako porrotari aurre egiteko eta edozein gaitasun-mailako, adineko, arrazako ikasle guztien adimena eta gizarte-zein ezagutzazko gaitasunak hobetzeko tresna oso eraginkorra izan daiteke. Izan ere, adimena gizarte-konstruktua bada, besteekiko elkarreaginean garatzen dena, beraz, (...), eskolako teknika egokiena dugu gaur inoiz baino gehiago, egungo gizonaren

premiak asetzeko (...). Eta elkarlanean oinarritutako ikaskuntzaren eraginkortasunaren arrazoien artean ezagutzazko eta gizarte-gaitasunak trebatzeko aukera ematen digula dugu (...) (Ovejero 274, 1990)

Bestalde, elkarlanean oinarritutako ikaskuntzak desberdintasuna elkarlanerako gailutzat erabiltzeko hausnarketarako elementuak eskaintzen dizkio irakasleari, eta horri esker, ikasleei buruzko ezagutza, haienganako begirune eta estimua eta ikasleen arteko konpromisoa handitu eta aurreiritziak eta bidegabekeria murrizten da.

Teknika asko erabil daitezke elkarlanean oinarritutako ikaskuntzan:



Buruhausgarriak: Ikasketen edukia taldeetan dagoen ikasle-kopuruaren arabera banatzen da. Kide bakoitzak dagokion zatia irakurri edo burutuko du: dagokion zatia irakurri eta ikasi, gai bat ikasteko egokitu zaizkion ariketa edo arazo matematikoak egin... Gero, zati bera egokitu zaien beste taldeetako kideekin bildu eta “aditu-taldeak” osatuko dituzte informazioa eztabaidatu eta sakontzeko. Jarraian, jatorrizko lan-taldearekin berriz bildu eta landutakoa irakatsi beharko diete ikaskideei. Balorazioa banakako azterketa baten bidez egin daiteke, gai osoari erreparatuz, edo taldeak gaiari buruz aurkeztu beharreko lan baten bidez.

Ikaskuntza Taldeen arteko lehiaketak: Ikasleek antzera osatutako lan-talde heterogeneoak osatuko dituzte. Gaiaren hasierako azalpen edo aurkezpena egingo dute ondoren. Talde bakoitzak ahalik eta ondoen prestatuko du kide bakoitza lehiaketa batean lehiatu dadin (batera ikasiko dute, elkarri lagunduz eta ebaluatuz). Lehiaketa horretan ikasketa-maila beretsuko talde desberdinetako kideak lehiatuko dira. Bakoitzak lortutako puntuazioa lehiaketan izandako postuaren arabera emango zaizkion banakako puntuak eta taldeak lortutakoak uztartuz osatuko da. Teknika honen aldagai gisa, **Sailka Banatutako**

Ikaskuntza Taldeak ditugu. Hemen, lehiaketa beharrean, banakako azterketa bat egiten da eta lortutako emaitzak taldearen puntuazioa bihurtzen dira “sailkako errendimendua” deritzon sistema baten bidez: mailaren arabera eraturako taldeen arteko alderaketa, lehiaketetan bezala, baina aurrez aurreko elkarreraginik gabe. Alderaketa intrapertsonala ere erabil daiteke ebaluaziorako, hau da, aurreko azterketarekin erkatu eta nota hori berdindu edo hobetuz gero, puntuak taldeari emanaz.

Berdinen arteko tutoretza: Binakako talde hauetan batek gaitasun jakin bat barneratua du eta besteak ez. Aukera honetan, aurrekoetan bezalaxe, garrantzi handia du ikasle guztiengan gaitasunen bat eta premiaren bat bilatzea, den-denek bi paperak jokatu ahal izan ditzaten. Besteek baloratu beharreko gaitasun ugari aurkitzea zaila den ikasleak ditugunean, irakasleak gaitasunen batean edo gairen batean trebatu beharko lituzke ikasle horiek, gero beraiek gainerakoei irakatsi ahal izateko. Honela, informazioa edo irakasleen eredia beti ikasle aurreratuenek eskuratzea saihestuko dugu. Formula honen bidez paperak orekatzeko eta arreta gutxiago eskaintzen zaien ikasleak trebatzeko aukera dugu.

Ikerkuntza-taldea: Teknika konplexuena eta ikaskuntzaren printzipioei hobekien lotzen zaiona dugu hau, ikaskuntza orokortua, autonomia, aktiboa... uztartu eta goi-mailako hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzen baitu, besteak beste, hausnarketa kritikoa, elkarrizketa, negoziazioa, besteen ikuspegira egokitzea... Gainera, bakoitzaren ahalmenen arabera parte hartzeko aukera ematen du, era askotako gaitasunak lantzea ahalbidetzen duten zeregin balioanitzak direlako, batetik, eta lan-taldean ezezik, ikasgela osoan elkarlan-giroa sustatzen duelako, bestetik.

Ikasgela taldeka banatzen da denon artean irakaslearekin adostutako gai bat jorratzeko. Talde bakoitzak azpigai bat hautatu eta informazioa bilatuko du gai horri buruz. Horretan oinarrituta jarraitu beharreko urratsei buruzko plan bat taxutu eta burutu egingo dute. Batzuetan produktu bat egin beharko dute, besteetan informazio gehiago bilatu, aztertu eta laburtu. Jarraian, egindako lanari buruzko txostena egin eta ikaskideei aurkeztuko diete, denen artean hasierako gaia edo arazoa osatzeko. Talde bakoitzak bere ahalmenaren arabera lan egiteko aukera emanaz, betikoek ekarpen guztiak edo balio handiena duen papera bere gain hartzeko arriskua dugu. Hau eragozteko, garrantzi handia du irakaslearen egitekoak: denak gairen batean adituak izatea eta zereginak eskatzen dituzten gaitasunen batzuk erabil ditzatela bultzatu beharko du eta gaitasun horiek guztiak taldearen lanerako ezinbesteko eta funtsezkoak direla adierazi.

Elkarlanean oinarritutako ikaskuntzaren baldintzak

Elkarlanean oinarritutako ikaskuntzak aipatutako funtzioak bete ditzan ondoko baldintzak bete behar dira:

- Irakatsi egin behar dira elkarlanerako gaitasunak. Ez da aski ikasleak taldeetan banatu eta egin beharrekoa adieraztea. Gaitasun asko elkarlanaren bidez ikasiko dira, baina ez dira berez sortzen, geroz eta indibidualismo eta lehiakortasun handiagoa baitago eskolan eta gizartean (nahiz eta gero lanean eta bestelako esparruetan elkarreragiten jakitea eskatzen den). Hortaz, gaitasun hauek irakatsi egin behar dira: entzuten, konfiantza ematen, laburtzen, komunikatzen, gatazkak konpontzen, buru izaten... Ikaskuntza-irakaskuntza hau berriazko jardueren bidez egingo da batzuetan eta, oro har, elkarlanean oinarritutako ikaskuntza-egoeraren beraren bidez. Gaitasunok garatutago dituzten ikasleen edota irakaslearen ereduari jarraiki, gaitasun hori ikaskideen edo irakasleen *feedback*aren bidez landuz eta, betiere, maiz behar izango diren elkarlaneko testuinguru orokor batean kokatu behar dira betiere.

- Eratzen diren taldeak heterogeneoak izatea. Talde bakoitzean ikasgelan dauden kultura, ezagutzako estilo, maila eta genero guztiak ordezkaturata egon beharko dute. Talde hauen baitan garrantzitsua da denek zerbait irakatsi eta ikasi ahal izatea. Horretarako ikasle bakoitzaren gaitasun eta aukerak bilatu eta baloratzen irakatsi beharko da, laguntza jasotzen duten ikasleak beti berberak (eta hauen artean gutxiengoetakoak) izan ez daitezten.

Garrantzitsua da, halaber, eskolako arrakasta talde guztien artean banatu ahal izatea. Taldeak homogeneoak badira, arrakasta ez da modu orekatuan banatuko (talde batzuek besteek baino arrakasta gehiago izango dituzte) eta kultura desberdinetako ikasleen arteko aldea handitu egingo da, eta oztopatu egingo da, gainera, elkar ezagutzea eta aurreiritziak murriztea. Ikerlan ugarik (Ovejero 1990) agerian uzten dute talde heterogeneoak guztientzat onuragarriak direla, baita ikasle aurreratuentzat ere, irakatsiz ikasten baita gehien.

- Talde-lana elkarlana izatea. Ez da aski zeregin bat burutzeko taldean lan egitea. Taldeko kide guztien arteko menpekotasun positiboa sortu behar da, norberaren ikaskuntzaren gaineko arduraz gain, gainerakoenaren gaineko ardura ere izatea, horrela elkarri beharrezko laguntza eta *feedback*a ematen baitiote. Taldeko kideek zeregina nola burutu duten ezezik, taldeak

jarraitutako prozesuak eta elkarreraginak ere baloratzen dira.

- Banakako lana burutzea. Lana taldean egiten bada ere, banakako ardua izango du bakoitzak, eta egindakoa besteekin banatuko den arren, bakarrik lan egiteko eta bakoitzak lortutako aurrerapena baloratzeko denbora-tarteak ere behar dira. Banakako balorazio honek banakako aurrerapen eta zailtasunen berri eman beharko die taldeko kide bakoitzari eta taldeari berari, ondoren beharrezko laguntza antolatu eta neurtu ahal izateko. Horretarako balio handikoa da egunkari bat idaztea, bertan ikasle bakoitzak izan duen ikaskuntza-prozesua eta arrakastak eta zailtasunak gainditzeko erabilitako bitartekoak jasoko ditu, guztia ere, aurretik taldeko gainerako kideekin batera balorazio bat egin ondoren.
 - Taldeen artean lehiarik ez egotea. Ikasgelan eta ikastetxean elkarlanean, begirunean eta elkartasunean oinarritutako giroa sortu nahi badugu, banakako lanean baztertu dugun lehia hori taldeen piztea eragotzi behar dugu, izan ere, banakako lanari lehentasuna ematen zaion gela batean sortu litekeena baino lehiakortasun handiagoa sor bailiteke eta. Horrek ez du esan nahi lehiakortasuna guztiz baztertu behar denik, egokia izan baitaiteke zenbait ikaskuntzatarako, baina ezin da ohikoa edo ikaskuntzen eragile bihurtu. Honela bada, elkarlanerako gaitasunak irakasten dituzten teknika asko, esaterako lehiaketak, ikasgai bat irakatsi eta gero beste talde batekin lehiatzea hain zuzen, egokiagoak lirateke taldeen arteko lehia baztertu eta jarduera tradizionalagoetarako, buruz ikastea, jardutea... eskatzen duten ikaskuntzatarako utziko balitz.
- Honenbestez, askoz onuragarriago da motibazioa, denon artean taldeko kide guztien interesak asetzen dituen fruitua bat lortzeko bitarteko gisa darabiltzaten teknikak erabiltzea.

⇒ *Komunikazioan eta elkarrizketan oinarritutako ikaskuntzarako estrategiak*

Hezkuntza elkarrizketa eta berdinen arteko norgehiagoka bultzatzen duten ikaskuntza-irakaskuntza egoeren inguruan egituratu behar da.

Ikasleek eta irakasleak ezagutza eta proiektu komun bidez komunikazioa gauzatuz joango den talde bat eratu behar dute. Eduki guztiek ez dute benetako ikaskuntzarik eragiten, baldin eta komunikatu eta besteengan

duten eragina neurtzen ez bada. Taldeak informazioak ulertzen laguntzen eta errazten duten ikaskuntza komunak eta esanahi adostuak eskuratu ahala, handiatu egiten da komunikazioa, areago kultura desberdinekin ari bagara. Ezagutza aditzera eman, berritxuratu, erkatu eta besteekin banatzeko bitartekoa izan behar du taldeak.

Horretarako ikasgelako eta ikastetxeko giroa landu beharko dira, ikasle guztiak ongi hartzen dituen giroa sustatzeko eta kultura desberdinetako komunikazio-baliabide desberdinak ezagutu eta erabiltzeko. Kultura desberdinen arteko harremanak onarpen eta elkarlan giroan ematen direneko kulturarteko giroa sortu behar da.

Kulturartekotasunarekiko jarrerak hobetu egiten dira beste kultura batzuetako pertsonak ezagutu eta haien laguna egiteko aukera izanez gero, eta gizarteko egoera jakinetan, zehazkiago eskolan, elkarlanean oinarritutako ikaskuntzaren edota denbora luzean zehar harremana izateko aukera ematen duten beste une informalagoen edota elkarlanaren bidez. Komunikazioa areagotu egingo da komunikaziorako eta elkarlanerako gaitasunak jorratzen badira, batetik, eta hasiera-hasieratik besteekiko harrera ona, elkar onartzea eta konfiantza lantzen baldin badira, bestetik.

Talde-lana

Ikasgela talde gisa hartzea eta bertan burutu beharreko prozesuak taldeka antolatzea lagungarri izan daiteke jarduerak prozesu hauen bilakaeraren arabera antolatzeko. Horrela, ahalbidetu egiten dira harremanak eta ezagutza eta ikasleen artean konfiantza sortzen da, (arrazoi sozialengatik, aurreiritziengatik, ezagutzarik ezagatik...) integratzeko arazoak dituzten ikasleekin ari bagara bereziki. Ditugun taldeen arabera, eta taldeak izandako bilakaeraren arabera ondokoak jorratzeko jarduerak taxutu beharko ditugu:

- ezagutza, konfiantza, norbere buruaren gaineko kontzeptua
- banakako eta taldekako erantzukizuna, partaidetza, araua
- komunikazio-gaitasunak: ideiak, sentimenduak, ikuspegiak aditzera ematea eta kritika onartzea
- elkarlanerako gaitasunak: ahalbidetzea, koordinatzea, laburtzea, laguntzea
- arazoak konpondu

- norbere kasa lan egitea, antolakuntza, norberaren eta taldearen plangintza, norbere buruaren gaineko kontrola
- erabakiak hartzea
- kulturarteko gaitasunak eta jarrerak: norberaren iritzi eta balioak ezagutzea, etnozentrismoa zalantzan jartzea, bazterketa, arazoei irtenbidea ematea eta kulturarteko zalantzak

Hasieratik bertatik taldearen eraketa-prozesua gidatu behar da eta arazoak sortu ahala konpondu, komunikaziorako giro aproposa sortzeko, izan ere, taldean gauzatuko baitira harremanak eta ikaskuntzak.

Aurretiaz elkar ezagutzea, konfiantza eta elkar onartu eta komunikatzeko giroa sortzen ez badugu, zaila izango da denon artean bat etorri eta elkarlanean oinarritzen den lana burutzea edota arazoei konponbidea ematen saiatzea. Era berean, elkarlanaren bidez taldeko kideen arteko ezagutza eta konfiantza sakonduko da halaber.

Alderdi hauek lantzeko era askotako jarduerak burutu ditzakegu: edozein jakintzagai, arlo edo esparru lantzeko jarduerak, berariaz horretarako taxututako jarduerak (ikasi beharrekoa alderdi horiexek direlarik), jolas-ariketen bidez...

Hasiera batean errazago eta erakargarriago gerta liteke jolasez baliatzea, baina berariazko ikaskuntza hauek ikasgelaren eguneroko bizitzan txertatuz joan beharko dute aldi berean, ikaskuntzok sendotu eta orokortzeko. Bestalde, ikasgelako eguneroko lanerako premiazkoak ez diren gaitasunak aurkeztu edo hobetzeko trebakuntzak edo berariazko jolasak erabil ditzakegu.

- *Abegia, ezagutza eta konfiantza lantzeko jarduerak.*

Aurkezpena, abegia eta ezagutza lantzen duten jokoak. Jardueron helburua jolasen bidez eta lasaitasunez elkar ezagutzea da (dagoeneko elkar ezagutzen badute ezaugarriren batzuk sakontzea): izenak, interesak, gustuak, premiak, beren kulturetako hainbat ezaugarri.

- *Norberaren eta taldearen erantzukizuna, partaidetza eta araua lantzeko jarduerak.* Oso egituratuta dauden jarduera errazak izaten dira, egin beharrekoa oso argi adierazita egoten da eta taldeko kide guztiek parte hartu behar izaten dute. Mota honetako jarduretan arauak sortzen, egitekoak banatzen, denek parte hartzea eskatzen hasten dira. Adibideak: denen artean irudi bat osatzea, historia bat osatzea bakoitzak dituen datuak elkartuz, ikasgai

bat ikastea bakoitzari egokitu zaion zatia batuz...

- *Komunikaziorako eta elkarlanerako gaitasunak lantzeko jarduerak.* Berariaz horretarako taxututako jarduerak edo guztien lanaren batura beharrean, kideen arteko komunikazioa, entzuten, laburtzen... irakastea jorratzen duten talde-jarduerak erabiliko ditugu hemen. Gaitasunok ikasteko aukera ugari ditugu: trebakuntza, antzezpenak, norbait gaitasunen bat praktikan jartzen ari denean haren gaineko balorazioa egitea edota irakasleak emandako ereduak erabiltzea, besteak beste.
- *Gatazkak konpontzea eta erabakiak hartzea lantzeko jarduerak.* Taldeak gatazkaren bat konpondu edo erabakiren bat hartu beharko du eta horretarako jarraitu beharreko prozesua irakatsiko zaio. Arloetan ere landu daiteke, konpondu beharreko arazo bat proposatu eta horretarako jarraitu beharreko urrats batzuk aurkeztuz (arazoa planteatu, informazioa bilatu, konponbidea hautatu eta planifikatu, planifikatutakoa burutu eta burututakoa ebaluatu), urrats bakoitzean erabakiak hartu beharko dituelarik halaber.
- *Kulturarteko gaitasunak eta jarrerak lantzeko jarduerak.* Jordánek dioskunez (Bartzelona 1996), oso interesgarriak dira Kohlbergen “moralak irakasteko programak” edota “zalantzak eztabaidatzeko” teknikak, E. Rathsen “balioak argitzeko” teknika, “ulermen kritikorako” teknika edota “ikuspegi sozioafektiboa”. Azken honetan ikasleari bazterketa- edo bereizkeria-egoerak biziarazteko egoerak antzezten dira. Beste teknika batzuk zuzeneko harremana, harreman bikaria, Lynchen “printzipioak egiaztatze” teknika eta antzezpenak ditugu.

Laburbilduz:

◆ **Printzipioak:**

- . Esperientziatik ikasi
- . Norberaren bizipenetatik ikasi
- . Dena ez da modu berean ikasten
- . Denok ez dugu modu berean ikasten
- . Berdinen arteko harremanean ikaskuntza burutzen da
- . Irakasleak artekari-lana betetzen du ikaskuntzan
- . Ikasteko motibazioa behar da
- . Ikaskuntza: ingurunearekin harremanetan burututako banakako prozesua

◆ **Estrategiak:**

- Ikaskuntza orokortua
 - . Interes-guneak
 - . Proiektuen bidez

- . Ikerkuntza-proiektuak
 - Banakako ikaskuntza
 - Ikaskuntza aktiboa
 - Norbere kasako ikaskuntza
 - . Zailtasunaren arabera mailakatutako ariketak
 - . Erabakiak hartzea eskatzen duten ariketa balioanitzak: proiektuen bidez...
 - . Txokoak
 - . Programazio negoziatua
 - Elkarlanean oinarritutako ikaskuntza
 - . Buruhausgarriak
 - . Ikaskuntza-taldekako lehiaketak
 - . Berdinen arteko tutoretza
 - . Ikerketa-taldea
- Baldintzak:
- . Elkarlanerako gaitasunak irakastea
 - . Talde heterogeneoak eratzea
 - . Elkarrekiko menpekotasun positiboa
 - . Talde-lana eta bakarkakoa uztartzea
 - . Taldeen arteko lehia saihestzea

8. Ebaluazioa

Ebaluazioak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan garrantzizkoa den guztia jasoko du, prozesu horren berri eman eta hobetu ahal izateko. Horretarako hiru sail handitan banatu dugu:

- ⇒ ikaslearen garapenaren gaineko balorazioa, hobetzen laguntzeko ahalik eta modu orokorrean eginga.
- ⇒ ikastetxearen curriculum, IHP, ICP, programazio eta abarren gaineko balorazioa.
- ⇒ praktikaren gaineko balorazioa, ikastetxearen funtzionamenduan eragina duten aldagai desberdinak aztertuz.

Ebaluazioa lagungarri gerta dakiokete irakasleari bere interbentzioa lanean ari deneko ikasleen premia zehatzetara egokitzeko beharrezko erabakiak hartzen, batetik, eta, bestetik, ikastetxearen curriculum ofiziala eta hezkuntza-praktika uztartzen lagunduko dioten ekintza-hausnarketa prozesua burutzeko; horrela, kulturarteko planteamenduak gauzatzeko moduaren ebaluazioa eginez, IHP, ICP, urteko plana... hobetu eta osatu ahal izateko.

⇒ ***Ikasleei dagokienez:***

Ebaluazio hezitzailea: aurrerapen eta zailtasunen eta ikaskuntza-irakaskuntzan egin beharreko aldakuntzen berri ematen duen ebaluazioa, horrela, zailtasunak sortzean, aurreko akatsak errepikatu beharrean arrakasta lortzeko alternatibak proposatu ahal izateko.

Horrela bada, aurrerapen eta zailtasunen berri jaso eta aztertu egin beharko dira, horretarako ikasleei egiten dutenaren logika azaltzeko, lan egiteko eta bere iritziak azaltzeko uneak eskaini behar zaizkie, horren bidez, ezagutza, prozedura, erabilitako logika, konplexotasuna, egokitasuna... eta dituen jarrera eta balioak behatu ahal izan dezagun.

Garrantzi handia du egindako akats eta okerrak aztertzeak. Akatsak,

okerrak edo zailtasunak aztertzean, espero izandako emaitza lortzea galarazten duen strategiaren gaineko informazioa lortu dezakegu eta, horrela, egin beharreko aldaketak zehaztu. Akats edo okerrok behin eta berriro agertuz gero, kausa desberdinen eraginez gerta daiteke eta bakoitzak eskuhartzeko modu desberdina eskatuko du:

- prozesuaren zatiren bat edo azpizereginen bat eskas ikasi duelako edo oraindik ikasten ari delako izanez gero, ikaskuntza sendotzen edo behar bezala sekuentziatzen duten eskuhartzeak taxutu beharko dira.
- akatsareb arrazoia eskola-munduan erabilitakoez bestelako kultur estrategiak erabiltzea ote den, izan ere, estrategia horiek aintzakotzat hartzen ez badira interferentziak eragin ditzake edota akatsa ez dena halakotzat hartzea.

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan erabilitako estrategiak berriz planteatu beharko lirateke, eta aintzat hartzen dituzten eta aberasgarriagoak diren beste estrategia batzuk planteatu beharko dira. Batetik, beste era askotako estrategiak erabili beharko dira, lanerako erabiltzen diren egoera-motak aldatu, ezagun diren egoeretatik abiatu eta pixkana-pixkana orokortuz joan, estrategia bakoitza noiz den erabilgarria bereiztuz joan, falta zaizkionak beharrean, egoki erabiltzen dituenak asko nabarmendu, ahozko eta eskuzko lan asko egin sinbolo grafikoa erabiltzen hasi aurretik eta betiere horrekin lotuta...

- Hutsunea zeregina ikaslearen gaitasunetatik oso urrun egoteari zor bazaio, dela arrazoi pertsonalengatik, dela arrazoi soziokulturalengatik, hobeto mailakatu beharko dira eman beharreko urratsak, erabili beharreko estrategiak edota, batzuetan, helburuak berplanteatu edo hobe egokitu beharko dira.

Ebaluazioa hezitzailea eta ikaskuntzaren arautzailea izango bada, ikasleak berak lortutako aurrerapenen eta sortutako zailtasunen gaineko hausnarketa egin beharko du eta, aldi berean, irakasleen eta ikaskideen laguntza izan beharko du horretarako. Aipatu ditugun hainbat estrategietan (proiektuen, ikerkuntzan bidez burututako ikaskuntza...) ebaluazioa prozesuaren baitan txertatzen da. Egiten ari den lanari buruzko gogoeta eta balorazioa dugu eta banakako, taldearen eta irakasleen gogoetak uztartzen dira.

Mota honetako ebaluazioen baitan Jaime Jorba eta Neus Sanmartí (Bartzelona, 1997) garatutako **ebaluazio hezitzailea** dugu, bertan hiru eratako ebaluazioak uztartzen dira.

- irakasleak burututako ebaluazio-erregulazioa
- ikasleen arteko elkarlaneko elkarreaginean oinarritutako elkarren

- arteko ebaluazio edo erregulazioa
- norberak bere ikaskuntza-prozesuari buruz egiten duen ebaluazioa/norbere buruaren erregulazioa

Ebaluazio hezitzaile hau burutzen den unearen arabera honela zehaztuko da:

Hasierako ebaluazioa: gaitasun positiboen (positibo kontzeptua halakotzat hartu izan ez diren beste gaitasun batzuetara hedatuz), ikasteko erabilitako estrategien berri eta dituen interes eta premien berri eman beharko du. Horretarako ez zaizkigu errendimendua neurtzeko ohiko frogak balio, ezta testak ere, ezaugarri jakin batzuk dituzten kultura eta biztanleria jakin batzuen arabera araututa baitaude. Mota honetako frogak erabiltzean, koantitatiboak gehienak ere, gabeziak ateratzen dira beti, irrealak askotan, eta ez dute ikasle jakin baten ikaskuntza-irakaskuntza planifikatu ahal izateko beharrezko informazioa eskaintzen. Badakienari eta ez dakienari buruzko datuak besterik ez dituzte ematen eta datuok ez dira oso fidagarriak izaten, gainera.

Hasierako ebaluazioa erabilgarria izango bada, abiapuntuari, ikasleak dituen baliabideei, ikasteko estiloari, harreman-estiloari, interes eta igurikapenei eta proposatutako zeregin eta helburuekiko duen egoerari (irakatsi nahi denarekiko ahuleziak eta gaitasunak) buruzko informazioa eskaini beharko dute.

Informazio hori eskuratzeko era askotako jarduerak planteatu beharko dira eta hauen bidez egindako akatsak, erabilitako estrategiak, aurretiazko ideak, burututako prozesuak... aztertu beharko dira. Banakako, talde txikiko eta talde handiko jarduerak, manipulatzekoak, trukeak eta elkarrizketak, jokoak, aurreko ikasturteetan jorratutako jarduerak, ikasle bakoitzari ezagun zaizkionak, berriak... uztartu beharko dira.

Hasierako ebaluazio honen helburua ikasleak ezagutzea eta, aldi berean, beren *ahalmenak*, beraiengandik espero dena, eta irakasleengandik, ikastetxetik espero dezaketena ezagutaraztea da. Kontu handiz burutu behar da, bada, ebaluazio-prozesua, aurreiritziak saihestu eta igurikapen positibo eta errealistak ondorioztatzeko ahalik eta informazio positibo gehien eskuratzeko.

Ebaluazio jarraia: ebaluazio hezitzailearen prozesu osoa garatuko da hemen, aipatutako ezaugarrien arabera, eta ebaluazio honen bidez, irakasleen

eskuhartzea lanean ari deneko ikasle zehatzen premia, interes eta baliabideetara egokitzeko.

Azken ebaluazioa: lortutako aurrerapenen berri jasoko du eta hartu beharreko hurrengo urratsen inguruan ikasleak eta familia motibatzen balio behar du.

⇒ ***Curriculumari dagokionez:***

Ikasleen ebaluazioa egitearekin batera, ikasgelaren programak, zikloko programak, IHP, ICP ere ebaluatu behar dira. Aipatu dugunez, sortzen zaizkigun zailtasun asko curriculumean egiten diren planteamenduak lanean ari garen biztanleriari behar bezala erantzun ahal izateko okerrak edo ez bezainbestekoak izateari zor zaizkio. Horregatik bada, helburu egokiak planteatzen diren, mota guztietako edukiak lantzen diren eta edukiok aniztasunari, eta bereziki, ikastetxeko kultur aniztasunari erantzun ahal izateko egokiak diren, proposatutako sekuentziazioak ikasle zehatzen premia eta interesak asetzen dituen, hautatutako metodologiak ikaskuntza errazten ala oztopatzen ari den aztertu beharko da, alegia, bat ote datorren aukera-berdintasuna sustatzeko taxututako aniztasunaren trataerarekin eta kulturarteko planteamenduarekin.

⇒ ***Praktikari dagokionez:***

Ikastetxe baten curriculumak ebaluatu ahal izateko ez da aski programak ebaluatzea. Ikastetxe batean paperean jasotzen dena baino askoz gehiago irakasten-ikasten da, lotutago dago eguneroko praktikarekin eta, gainera, praktika hori askotan ez dator asmoekin edo planifikatutakoarekin bat. Praktika hori aztertzeko, ikastetxeko bizitzarekin lotutako guztia aztertu beharko da: ikastetxean eta ikasgelan bizi den giroa, gurasoekiko harremanak, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak, jorratzen diren edukiak, planteatzeko modua, irakasleen eta ikasleen jarrerak, sortzen diren arazoei ematen zaizkien konponbideak, erabilitako materialak... Guztia ere emaitzen argitan eta txosten honetan zehar garatu ditugun eta IHPn, ICPn... jaso diren edo jasoko direla espero den kulturarteko hezkuntzarako irizpideen arabera.

Laburbilduz:

◇ Ikasleen ebaluazioak ebaluazio hezitzailea izan behar du eta aurrerapenen berri eman eta zailtasunak gainditzeko lagundu behar du.

- ◇ curriculumaren ebaluazioak programak ikasleen premia, interes eta baliabideetara egokitzeko balio behar du.
- ◇ praktikaren ebaluazioak curriculumaren ebaluazioa osatzen du eta kulturarteko planteamendu bat egiteko beharrezko diren hausnarketarako elementuak eskaintzen ditu.

9. Familiekiko harremana

Funtsezkoa da familiek parte hartzea. Batetik, ezinbestekoa delako elkarlana, helburu komunak edo, gutxienez, ez bateraezinak izatea eta, bestetik, beren kultur, harreman-mota, igurikapen, balio eta abarri buruzko informazioa eskuratzeko.

Nolanahi ere, hainbat faktorek zailtasunak eragiten dituzte askotan:

- Hezkuntza-sistemariz buruzko ezagutzarik eza, bereziki, beste herrialde batzuetatik etorritako familiei dagokienez.
- Beste hizkuntza batean mintzo direla eta komunikatzeko duten zailtasuna, eta askotan eskolako hizkuntza batere ez jakitea eta alderantziz.
- Kultur desberdintasunak, bestelako balio, ohitura, igurikapenak. Honek komunikazioa oztopatu dezake.
- Elkarrenganako konfiantzarik eza. Gutxiengoetako familiek arbuiatuko dituzten, seme-alabek porrot egingo duten, behar bezala hartuko ez dituzten, bere kulturari uko egin behar izango dioten beldur dira. Gainerako gurasoak, berriz, ikasle hauek beren seme-alaben ikaskuntza ez ote duten oztopatuko, ez ote dieten arazoak sortuko beldur dira. Eta eskola mesfidati agertzen da familien interesak eta elkarlanerako gogo eta aukerak direla eta.

Badira beste faktore positibo batzuk:

- Gurasoek onena nahi dute beren seme-alabentzat.
- Seme-alabek ikasi eta gutxienez oinarrizko baliabide batzuk — irakurtzen, idazten... ikastea— eskuratu ditzatela nahi dute gurasoek. Dena den, beren seme-alabek gizartean moldatzeko beharrezkoak diren ahalik eta bitarteko gehien eskuratzeko nahi dute geroz eta guraso gehiagok.
- Beren seme-alabak ondo hartzen dituztela ikusten dutenean, familiek balorazio positiboa egiten dute.

Faktoreok aipatutako zailtasunak, mesfidantzak eta ulermenik ezak gainditzen lagundu behar dute. Seme-alabentzat onena nahi izateak eta ikas dezatela nahi izateak batzen ditu. Hori oinarri hartuta, zailtasunak gainditzen lagunduko duten akordioak eta harremanetarako bideak bilatu dira.

Hortaz, garrantzi handia izango du ondokoak familekin egin beharreko lanean:

- ◇ *Harreman liskartsuak saihestea.* Gurasoekin egindako bilerak ikasleen kexu agertzeko, atentzioa emateko edota aurrerapenei buruzko informazio negatiboa emateaz bestelako gaietarako ere izan daitezela saiatu.
- ◇ *Gutxieneko akordio batzuk adostu* seme-alaben hezkuntzari buruz eta akordio horiek pixkana-pixkana aberastuz joan. Alderdi guztiek adostutako helburuetatik abiatu eta helburuok lortzen laguntzeko bakoitzak egin beharrekoa zehaztu. Aldiroko harremanen bidez eta adostutakoari buruz eta adostutakoa lortzeko egiten ari garenari buruz gogoeta eginez, helburuok aberastuz joango gara. Familiek hezkuntza-komunitatearen parte direla jakin behar dute eta ez dituztela zeregin horretatik baztertu nahi, alderantziz baizik. Gainera, irakasleek ikasleak hobe ezagutzeko beren ekarpenak behar dituztela jakin behar dute.
- ◇ *Bitartekoak eskaini behar zaizkie* beren seme-alabekin lantzen ari garenaren berri izan dezaten. Horretarako ez da aski bilerak egitea edo azalpen orokorrak ematea. Beren seme-alabak zer egiten ari diren, eskolan nola egiten den lan ikusi behar dute eta ikasgelan sartzen utzi behar zaie, banakako zein taldeko bilerak antolatu...
- ◇ *Familiei aniztasunaren abantailak ulertzen lagundu,* eta beren seme-alaben kalterako izango ez dela, curriculuma murriztazago beharrean aberatsagoa izango dela ikusarazi.
- ◇ *Familekin biltzeko era askotako inguruneak eratu.* Dauden familia-mota desberdinak eskolara hurbilarazteko era askotako inguruneak eskaini behar zaizkie, beren artean harremanak eratu eta elkar hobe uler dezaten. Horretarako ingurune informalekoak —kafearen ordua, hiruhilekoaren amaierako jaia, banakako kontsultarako ordua...— eta formalekoak —ikasgelaren bilera, gurasoen eskolak, topaguneak, lan-taldeak...— antolatu beharko dira.
- ◇ *Gutxiengoan ordezkariak* ikastetxeko partaidetza-organoetan ordezkariak izan dezatela sustatu, besteak beste, Eskola Kontseiluan, Guraso Elkarteetan...

- ◇ *Gutxiengoan dagoen kulturako pertsonaren batengana jo* komunikazioa ahalbidetzeko, eta, beste hizkuntza bat darabilten kasuetan, interpretari lana egiteko, edota beste kulturari buruzko datuak emateko.
- ◇ *Kultura desberdinetako gurasoen partaidetza ahalbidetzea* edota familia edo komunitateko beste kide nabarmenena (aiton-amonena, zaharrena), ikasgelan une jakinetan parte hartuz kultura horiek hobe ezagutu ahal izateko.

Ikasleekin burutu beharreko lanak arrakasta izan dezan familiek parte hartu behar dute. Horregatik, ahalegin guztiak egin beharko ditugu hasieran arbuiorik edo mesfidantzarik sor ez dadin eta ikaslea elkarlanerako konfiantzazko giro batean kokatzen lagundu eta desadostasuna eta desberdintasuna galarazten ez dituen giroa sortzeko. Honela, ikaslea bateraezinezko mezuak igortzen dizkioten bi munduren artean aurkitzea saihestuko da.

BIGARREN ZATIA

III. KAPITULUA: HEZKUNTZ PROIEKTUA (IHP)

Eskolak gaioi heldu eta Hezkuntz Proiektuari buruz eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuari buruz duen jarrera erabaki behar du. Gai honen aurrean jarrerarik ez hartzeak, berez, jarrera bat hartzea esan nahi duela konturatu beharra dago, izan ere, berariazko curriculumari dagokionez jarrerarik hartzen ez bada ere, hartu egiten da ezkutukoari dagokionez, etengabe ari baikara kultur jarrera eta balioak igortzen.

“Berdintasunaren” izenean desberdintasuna ukatzeak berdintasunik eza iraurarazten du, “berdintasunezko tratuak” denentzako tratu bera baina kultur eredu jakin batetik, “erdi-mailako” ikaslearen neurrira emandakoa esan nahi baitu. Neurri hau bat dator kultura nagusiak egokitzen dituen ezaugarriekin. Denei berdinean eskatzen zaie beren ezaugarri edo premiak edozein direla ere, zeregin berak agintzen zaizkie, zenbaitzuentzat inolako esanahirik ez badute ere... eta horrek guztiak arazoak sortzen ditu eta ez ditu igurikapen apalak uxatzen.

Ikastetxeak bere curriculum- eta hezkuntza-proiektua taxutzeko hartu beharreko erabaki guztietan aintzat hartu beharko dira kulturarteko ikuspegiaren gaineko gogoetak eta ondoren ezarri beharreko printzipio hauek nortasun-ezaugarrietan eta printzipio nagusietan, edota curriculumaren osagai guzti-guztietan (helburuak, edukiak, metodologiak, ebaluazioa...) jaso daitezten.

Honen haritik, ikastetxeak landu ala ez erabakitzen duen zehar-lerroa baino gehiago dugu honakoa. Curriculum orotan jaso beharreko ikuspegia dugu, bai ikasleen beraren eskubidea delako, bai errealitateari buruzko gertuagoko ezagutza eskaini behar delako. Gutxiengo etnikoetako ikasleren bat egonez gero bertan egon beharko luke.

1. Testuinguruaren azterketa

Lehenik eta behin inguruneari buruzko azterketa egingo dugu lan egingo duguneko errealitatea zertan den ikusi eta zeri erantzun behar zaion jakiteko; horrela, IHPan eta ICPan planteatzen den guztia errealitate horrekin bat etor dadin.

Azterketa hau egiteko partaide desberdinei entzun beharko zaie beren premia, eskakizun, interes eta igurikapenak ezagutzeko. Ez da ezer jakintzat emango eta ez gara irudipenetan oinarrituko, izan ere, aurreiritziek eragindakoak izan bailitezke, areago baztertutako gutxiengoei dagokienean. Lortutako datuak ahalik eta errealen izateko modua bilatu behar dugu.

Kontua ez da urtero ICP egiteko garaian ikasle eta familia guztien iritzi, eskakizun eta ezaugarriak aintzat hartzea (beharrezkoa izango da, halere, ikasgelaren programaziorako eta urtero egin beharreko beste zenbait txostenetarako), baina gizarte-taldeak berak adierazi beharko lituzke bere igurikapenak... (zenbait urterako baliagarri izan daitezkeelarik). Oraindik ere garrantzitsuagoa da hau kultur gutxiengo lan egin behar dugunean (ijitoak, magrebtarrak...). Kanpotik deskribatzeko joera dago eta gabezia eta arazoen zerrenda batean jasotzen da gutxiengo horien berri. Eskakizunak negoziatzerakoan talde hauek irakasleekin batera aritzeko formulak bilatu beharra dago.

Ingurunearen azterketa egiten denean ondoko alderdiei erreparatuko zaie:

- Kanpo-ingurunea
- Ikasleak
- Ikastetxea

Jrraian atal hauetako bakoitza aztertzeke aintzat hartu beharreko alderdiak aipatzen ditugu, kulturartekotasunarekin lotutakoak bereziki:

Kanpo-ingurunearen azterketa

- Ikastetxearen kanpo-ingurunearen azterketa: faktore sozioekonomikoak eta kultur faktoreak.
- Komunitatean eskueran dauden baliabideak: zerbitzuak, ondarea, komunitateko kideen dituzten aukerak eta prest dauden.
- Hizkuntza-testuingurua.
- Familien eta komunitateko kide nabarmenen igurikapenak.

Ikasleen azterketa:

- Ikasleen ezaugarriak: kopurua, adina, ezaugarri soziokulturalak.
- Ikasleen interesak, premiak, igurikapenak.
- Ingurunean gehien garatutako ahalmenak, gaitasunak.
- Zailtasun arruntenak

Ikastetxearen barne-azterketa

- Irakasle-taldearen ezaugarriak: irakasle-kopurua, irakasleen egonkortasuna, partaidetza ikastetxeko berrikuntza-proiektuetan, mintegietan, prestakuntzan.
- Ikastetxearen ildo pedagogikoa
- Familien partaidetza: parte hartu dezaten egituratutako uneak, komunitateko gizarte- eta kultur talde desberdinek (hauen artean gutxiengoan dauden taldeak) erabaki-organuetan duten partaidetza.
- Irakasle-taldeak eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek gutxiengoan dauden taldeekiko duten jarrera.
- Ikastetxeko ikasle guztiei buruz oro har, eta gutxiengoan dauden taldeetakoiei buruz, bereziki, irakasle-taldeak dituen igurikapenak.
- Ikastetxean kulturartekotasuna aintzat hartzen direneko alderdiak: helburuak,, eduki, ebaluazio, multzokatze, estrategia eta aniztasunaren trataeran; Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudia (AFA) egiterakoan; azpiegituretan (ikasgeletako dekorazioa, materialak, jantokia...); gutxiengoan dauden eskolako eta eskolaz kanpoko kultura eta hizkuntzetarako uneak...

2. Ikastetxearen nortasun-printzipioak

Hauxe dugu IHParen lehen atala. Gogoeta eta eztabaida prozesu bat burutu ostean, ikastetxeak dituen edo izan nahi dituen ezaugarri eta balioak, “**nor gara**” jasoko da bertan.

Nortasun-printzipio hauek taxutzeko testuinguruaren azterketan lortutako ondorioen inguruko gogoeta egin beharko da. Kultura desberdinak batera bizitzea ezaugarri nagusienetakotzat duen ikastetxe batean (nahiz eta, hein handiago edo txikiagoan, kultur aniztasuna beti dagoen) finkatu nahi diren helburuei buruzko eztabaida egiterakoan, Euskal Eskola Publikoaren helburuak erreferentziazat hartuz gero behintzat, besteak beste, kulturarteko ikuspegiari lotutako helburuak lehenetsiko dira. Aurreko atalean zehaztu ditugun kulturarteko hezkuntzaren helburuak ere erreferentziazat har daitezke (LOGSE, DDC, gaiari buruzko literatura eta antzeko testu edo txostak):

1. *Hizkuntz eta kultur aniztasunerako hezi modu kritikoan.*
2. *Askatasuna, tolerantzia, begirunea eta elkartasuna modu kritikoan erabiltzeko hezi, bereizkeria eta desberdintasunaren aurkako borrokan aurrera eginez.*
3. *Talde desberdinen premiak ase, gizarte konplexu batean moldatu eta txertatu ahal izateko behar dituzten bitartekoak emanaz. Aukera-berdintasuna sustatu.*

Gogoeta eta eztabaida hauek oinarritzat hartuta ikastetxeak gehienek adostutako ezaugarriak lehenetsiko ditu eta zerrenda batean jaso eta azalduko ditu. Horrek ez du esan nahi komunitateak zein pertsonalki bat gatozen beste ezaugarri batzuk ez daudenik, baina ez dira denak jasoko, lehentasuna dutenak baizik.

Adibidea:

- *Gure ikastetxean kultura desberdinetako taldeak daude eta talde hauetako batzuk baztertuta daude auzoan. Ikastetxean egoera hori saihestu behar delakoan gaude eta aniztasun honen altxorrari etekina atera nahi diogu. Horretarako, berdintasunean oinarrituz, elkar ezagutu eta errespetatu behar dugu.*
- *Eskubide berak ditugu denok eta aukera-berdintasuna sustatu beharra dago.*
- *Ikasle eta familia guztiek eskubidea dute beren kultura eta errealitateko ezaugarriak duin ordezkatzuta ikusteko.*
- *Bat gatoz kulturartekotasun-printzipioarekin eta, hortaz, hezkuntza-komunitatean kultura desberdinei buruzko ezagutza kiritikoa eta kultur aniztasunarekiko jarrera*

positiboak garatzeko asmoa dugu.

- *Ikastetxe honetan jorratzen dugun osagai garrantzitsuenetakoa ikasleek beren buruaz duten kontzeptua hobetzea da, horrela beren buruarekiko estimua hobetu eta, bereziki gutxiengo etnikoetako ikasleei, eskola eta gizarteko giroetan autonomia handiagoz moldatzen laguntzeko.*
- *Autonomia hori lortzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleen hizkuntza-gaitasunak hobetzea.*
- *Mota guztietako gaitasunak sustatuko dira, bakoitzaren erritmo eta interesekin bat etorri eta partaidetza aktiboa eta partaidetza horren gaineko gogoeta kritikoa sustatuko dugu.*
- *Gure ikastetxean erabilitako ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak elkarlanean, taldekatze heterogeneotan, norberaren esperientzian... oinarrituko dira, ez lehian.*

3. Oinarrizko helburuak

Finkatzen diren printzipioekin bat etorri, oinarrizko helburuak zehaztuko dira. Zein helburu dugu ikastetxean? Printzipio bakoitzari hezkuntzarekin eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduarekin zerikusia duen helburu bat(zuk) lotuko zai(zki)o. Gehienak jarraitu beharreko joerak, orientabideak izango dira.

Bat etorri behar dute etaparen oinarrizko helburuekin eta, hortaz, errealitateari buruzko azterketaz eta ikastetxeak finkatutako helburu orokorrez gain, ICDan edo ICPan (dagoeneko taxututa egonez gero) jasotako etaparen helburu orokorrak ere erreferentziatzen hartuko dira. Txosten honetako II. kapituluaren (Kulturarteko hezkuntza, 28. or.) zehaztutako printzipioak ere erabil daitezke:

- Norbere burua eta besteak ulertu, onartu eta errespetatu, hizkuntz eta kultur aniztasuna herriek eta gizabanakoek beren nortasuna izateko duten eskubidearen baitan baloratuz.
- Norbere kulturaren eta besteenaren osagaiak (ohiturak, balioak, faktore sozioekonomikoak, harreman-motak...) eta elkarren arteko eraginak ezagutu eta baloratu.
- Hizkuntz gaitasunak eskuratu, hizkuntz aniztasuna errespetatuz.
- Egoerak eta arazoak esperientziaren alor desberdinetatik konpontzen ikasteko gaitasunak eskuratu.
- Pertsonen arteko arazoak konpondu, arazootan sakonduz arrazoiak ezagutzeko.
- Gizarte konplexu eta heterogeneo batean moldatzeko beharrezko diren trebetasun, baliabide, gailu eta jarrerak eskuratu (gutxiengoan dauden kulturetako kideei bere kasa moldatzeko beharrezko bitartekoak eskaini).
- Nortasun pertsonala eta norbere buruaren gaineko estimua garatu, kide deneko taldea errespetatu, irainak gainditu eta etnozentrismoa baztertu.
- Aurreiritzi, bazterketa eta bidegabekerien aurkako partehartze aktiboa izan.
- Inguratzen duen mundua kultur ikuspegi desberdinen arabera ulertu.
- Malgutasuna erakutsi beste pertsonen ekarpenekiko eta ekarpen hauek eta besteen balioak ezagutzeko interesa erakutsi.
- Talde-jardueretan elkartzunez eta lankidetzarako gogoz parte hartu.

Helburu-zerrenda hauetan oinarrituz, duten garrantziagatik edo dagoen premiagatik bat etortze handiena eragiten dutenak hautatu eta bere helburu propioak

finkatuko ditu komunitateak.

Aipatutako helburuekin lotutako hainbat printzipio aipatuko ditugu jarraian:

Helburuei buruzko adibide bat:

- *Ikasle bakoitzaren premia, interes eta ahalmenak aurkitzea.*
- *Ikastetxearen bizitzan kultura desberdinetako ezaugarriak txertatzea.*
- *Jarrerak eta balioak lantzeari garrantzi handia ematea.*
- *Ikasleen hizkuntza-gaitasunak handitzea, hizkuntz aniztasunarekiko begirunea sustatuz.*
- *Baztertze-prozesuak (dela aipatzeagatik —kultur aurreiritzi, estereotipo eta topikoak—, dela ez aipatzeagatik —beste kulturak bazterrean uzteagatik alegia—) sustatzen ez dituzten hezkuntza-materialak hautatzea.*
- *Praktika guztiak berrikustea planteamendu etnozentrikoak edo baztertzailak saihesteko eta aniztasunari erantzuten diotenak lehenestea.*
- *Ikasleen arteko bizikidetzeta eta ezagutza ahalbidetzen duten metodologiak erabiltzea sustatzea, ikasle hauen arteko desberdintasunak errespetatzen direlarik: elkarlaneran oinarritutako lan-taldeak, taldekatze heterogeneoak...*
- *Gurasoekin komunikatzeko eta haiek parte hartzeko bideak eratzea.*
- *Hezkuntza-komunitateko kideen jarrera aldatzeko sentsibilizaio- eta heziketa-programak sustatzea.*
- *Beste erakunde batzuek sustatutako arrazismoaren aurkako, kulturarteko eta antzeko proiektuetan parte hartzea.*
- *Hezkuntza-komunitateko kideek eredu egokiari jarraitzea (hizkera ez arrazista, begirunezko jarrera...).*
- *Era askotako egoera soziokulturalei erantzun ahal izateko beharrezko malgutasuna izatea antolakuntzan (berariazko premiak, harrera-mekanismoak...)*

4. Ildo pedagogikoa

Helburuak lortzeko sustatu nahi diren oinarrizko ildo pedagogikoak zehaztu nahi ditugu hemen. Curriculum Proiektua taxutzeko garaian jarraibide gisa erabili beharrekoak ditugu ildo hauek. Bestalde, atal honetan hezkuntza-komunitateak parte hartzeko hitza eman duen proiektuen berri ere jasotzen dugu.

Estrategia metodologikoei, edukien hautaketari eta abarri buruzko erabaki orok kulturarteko planteamenduekin bat etorri eta haiekin bateragarria izan behar du.

Estrategia metodologikoei buruzko adibidea:

- *Proiektuen bidez edo interes-gune orokortuen bidez edo arloak ikasleen interes eta premien arabera uztartuz (etaparen arabera) burututako ikaskuntza.*
- *Ikaskuntza funtzional eta esanguratsua.*
- *Aniztasuna orotan: edukien aniztasuna, estrategia metodologikoen aniztasuna...*
- *Ikaskuntzak ikasleen ezaugarrien arabera sekuentziatu.*
- *Lehian beharlean elkarlanean, taldekatze heterogeneotan... oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak erabili.*
- *Kulturarteko jardunaldiak antolatu.*
- *Ikasgelan talde desberdinetako ikasleen gurasoek parte hartzea.*
- *Ikastetxean kulturartekotasunari buruzko hezkuntza.*
- ...

5. Antolamendu-eredua

Funtsezko alderdia dugu hau, lortu nahi duena eskuratzeko aukera ematen baitio ikastetxeari. Oso zurruna bada eta aukera desberdinak jasotzeko prestatutako denbora eta espaziorik uzten ez badu, zailtasun handiak egongo dira finkatutako helburuak lortzeko.

Antolakuntzari dagozkion alderdiei buruzko adibidea:

- *Kulturartekotasuna ikastetxearen bizitzako alderdi guztietan jasotzen dela bermatuko duen eta berariazko jarduerak sustatuko dituen Kulturartekotasun Batzordea eratu.*
- *Familiekin harremanetan jartzeko uneak finkatu. Kulturartekotasun Batzordeak gurasoekin batera egingo du lan ikastetxean harreman eta antolakuntzarako jarduerak antolatzeko (eskaintza zabala: banakako elkarrizketak informazioa eman eta biltzeko, kafearen ordua, hitzaldiak, haurtxoen eta lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasgelarako ikustaldiak, harrera-mekanismoak...)*
- *Talde guztiak ikastetxeko partaidetza-organu guztietan ordezkaritza izatea.*
- *Ikastetxera egokitzeke aldian ikasleen premien araberako ordutegi malgua ezarri.*
- *Taldekatze malguak ezarri ikasleen premia eta interesen arabera.*

***IV. KAPITULUA: IKASTETXEAREN
CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)***

Ikastetxearen IHP eta testuinguruaren azterketa oinarri hartuta, irakasle-taldeak bere curriculum-proposamena taxutuko du, hau da, ICP delakoa.

IHPrik egon ezean, hezkuntza-komunitateak ICPan jasoz joango diren hainbat alderdi orokorren eta printzipioren gaineko azterketa eta hausnarketa egin beharko du, jarraian IHP landuz joateko. Era berean, testuinguruari buruzko azterketa egin beharko litzateke halaber.

1. Aniztasunaren trataera

Aniztasunaren trataerari buruzko erabakiak eta hezkuntza-premia bereziak elkarrekin uztartzeko nolabaiteko joera dago. Aniztasun-kontzeptua ikasteko gaitasunen aniztasunera, eta horren baitan, zailtasunetara murrizteko dagoen joerari zor zaio hori. Dena den, aniztasunaren trataeraz ari garenean, eta gorago esan dugunari jarraiki, ikasteko gaitasun desberdinez gain (ikasle guztiek oro har dituztenak), interes, balio eta ohitura desberdinak, hau da, ezaugarri pertsonal eta kultural desberdinak dituzten ikasleei erantzun behar zaie. Hau guztia elkar aberasteko nola erabili erabaki beharra dago, zailtasun-iturri bihurtu beharrean.

Ikasle guztiek hezkuntza-premia, baliabide eta gaitasun jakin batzuk dituzte, batzuk eta beste batzuk bat datoz gainerako guztiek dituztenekin, berriz, desberdinak dira aniztasun horren ondorioz. Hezkuntza-premiak hezkuntza-premia berezi bilaka ez daitezten, helburuak zehaztu, edukiak hautatu eta sekuentziatu, metodologia aukeratu eta jarduerak planifikatzean premia horiek ezagutu eta aintzat hartu beharko dira eta aniztasunari ohiko testuingurutik erantzungo zaio.

Aniztasunaren trataerari buruzko ICParen atal honetan hau guztia burutzeko erabiliko dituzten irizpideak, aniztasunari orokorrean erantzuteko eta ekintza jakin batzuk zehazteko erabiliko diren printzipio metodologikoak eta antolamendu-alorrekoak finkatu beharko dituzte irakasleek. IHP lantzean ere posible da hausnarketa hauxe bera egin izatea. Hemen zehaztu egingo dugu hausnarketa hori.

Batzuetan ezin izango dira ikasle-multzo jakin baten premia guztiak erantzun eta, hortaz, aipatutako neurriez gain, beste batzuk hartu beharko dira; ez beste kultura batekoak direlako, horrekin lotuta egon daitezkeen beste faktore batzuegatik baizik, besteak beste, ez eskolatzeagatik. Berandu eskolatzea bezalako muturreko eta ez ohiko egoeretan soilik egingo dira laguntza berezia eskatzen duten berariazko eta ez ohiko

planteamenduak: laguntzak, banakako aberaste-programak... Neurri hauek salbuespen moduan eta aldi baterako soilik erabiltzen saiatu beharra dago eta curriculum arruntean aipatutako neurri guztiak hartu direnean soilik izango dira eraginkorrak, alegia, berariazko neurriok ez dira erantzunak emateko bitarteko bakartzat hartuko.

Adibidea:

X ikastetxea gara. Inguruneari buruz egindako azterketa baten arabera erdi/behe-mailako ingurune batean kokatuta gaude eta ijito-multzo handi samarra eta Magrebeko ikasle-multzo bat ditugu. Eskolako porrota oso handia da eta ikasle batzuk ez dira eskolara etortzen. Familiekiko harremana urri samarra edo hutsa da. Kultur aniztasuna dugunez ondoko neurriak hartuko ditugu aniztasuna tratatzeko:

- *Kultura desberdinetako mota guztietako gaitasun eta alderdiak lantzeko helburuak finkatuko dira, ikasleek dituzten mota guztietako premia eta aukerei erantzun ahal izateko.*
- *Benetan esanguratsuak eta funtzionalak diren alderdiak lehenetsiko dira. Kulturarteko ingurune honetan komunikazioa funtsezkotzat dugu eta, hortaz, hizkuntzari lotutako alderdiak lehenetsiko eta, ahal den guztietan, jorratuko dira.*
- *Ikaslearen hurbileko esperientziatik, bere ingurunetik alegia, abiatuko gara eta zehaztenetik urruneko eta abstraktoenera joko dugu.*
- *Kultura desberdinetako ezaugarriak jasoko dira, baita kultura nagusikoak ere, eta hauen gaineko azterketa eta hausnarketa kritikoa egingo da. Horretarako, irakasleek trebatu/informatu egin beharko dute dokumentazioa erabiliz, ikasleen esperientzia behatu eta sakonduz, familia eta elkarteekin harremanetan jarriz, hainbat alderdi — edukiak txertatu eta eztabaidatzeko aukerak, norberaren zein ikasleen jarrera eta balioak, kultur zalantzak...— aztertu eta eztabaidatzeko bilerak eginez aldiro ...*
- *Kultur arrazoiengatik bereizkeria egitea saihestuko da, hizkuntzaren erabilerari, bazterketa eragin dezaketen antolamenduei... erreparatuz.*
- *Ikasle asko ez baldin baditugu, taldea banatu beharrean, denbora gehiena binakako tutoretzak egiten emango dugu, interes-guneka antolatutako taldeen proiektu eta lanen jarraipen hobea egin ahal izateko.*
- *Laguntza behar duten ikasleek ikasgela barruan izango dute laguntza hori (gehienetan).*
- *Laguntzarako pertsonak tutoreekin batera egingo du lan ikasgela barruan komunikaziorako jarduerak burutu ahal izateko.*
- *Ikasleak eta familiak ikastetxera zein irakasleak ikasleetara egokitzeko prozesuak antolatuko dira (elkar ezagutzeko jarduerak, ordutegi malguak, gurasoak une jakin batzuetan ikastetxean eta ikasgelan geratzea...).*
- *Lan-arrazoiengatik eskolan berandu hasitako ikasleak aintzat hartuko dira programazioetan (harrera eta ezagutza jarduerak...).*
- *Era askotako estrategia metodologikoak erabiliko dira: elkarlanean oinarritutako*

ikaskuntza, ikaskuntza autonomoa, tutore batek gidatutako ikaskuntza, zailtasun-maila desberdineko jarduerak, arazoak konpontzea...

- *Familiekin batera lan egitea lehenetsiko da: gurasoek eskola ahalik eta ondoen ezagutu dezaten saiatuko gara, eskolak gurasoen eskakizun eta igurikapenak, hezkuntzaren helburu eta planteamenduetan bat etorri ahal izan dezan.*
- *Batzorde bat eratuko da trebakuntza eta hausnarketarekin lotutako jarduerak koordinatu eta haien jarraipena egiteko.*
- *Ikasleen interesetara egokitzen diren multzo malguak eratuko dira ziklo barruan zenbait jarduera burutzeko (interes-guneka edo proiektuka), gutxiengo berekoek edo gaitasun beretsukoek ez dituzte talde egonkorrak osatuko eta beren interes eta igurikapenak zabalduz joan daitezela bultzatuko da. Talde hauetan jende gehiegi ez egoteko laguntzarako pertsonengana joko dugu eta ziklo desberdinetan banatuko ditugu.*
- *Udaletxearekin elkarlanean, ijitoen etniako pertsona bat kontratatuko dugu irakasleei harrera-lanetan eta ikasle eta familieko harremanetan laguntzeko (pertsona honek informazioa eman eta zubiarena egingo du, egoerak interpretatzen, jarduera batzuk taxutzen lagunduz...)*
- *Harremanetan jarriko gara ... elkartearekin, Magrebko eta ijitoen kulturari buruz ahal bait gehien alderdi jorratu ahal izateko.*
- ...

2. Hizkuntzaren trataera

Ikastetxe bakoitzak burutuko duen hizkuntzaren trataera, ondoko aldagaien arabera izango da, besteak beste: ikastetxearen hizkuntz eredua; etapa; ikasleek darabilten hizkuntza; ikasleen ezaugarriak edo hizkuntz erabilera; ikastetxearen hizkuntz ingurunea; ikastetxe horretako hezkuntza-komunitatearen hizkuntz planteamenduak (bai irakasleena, bai ikasleena eta azken hauen baitan gutxiengoan dauden taldeena).

Honenbestez, edozein erabaki hartu aurretik eta egindako testuinguruaren azterketaren arabera horiei buruz ditugun datu eta informazioak aztertu egin beharko dira (edo, hala behar izanez gero, informazio gehiago bildu). Era berean, gai honi buruz ICPen egindako planteamenduak aintzakotzat hartu beharko dira.

Gutxiengoei dagokienean, batetik, bi hizkuntza ofizialez bestelako ama-hizkuntza duten ikasleak ditugu (Portugal, Magreb, Afrikako beste herriak, Txina eta abarretikako etorkinak) eta, bestetik, ama-hizkuntza gaztelania izanik ere, gaztelania formaletik dezente bereizten den hizkera bat eta, horrez gain, apenas hitzegiten duten arren, beste hizkuntza bat ere badute herri bezala (ijito-hizkera esaterako) duten ikasleak (ingurune pobretuetako taldeak edota inguruneotan bizi diren ijitoak) izango ditugu. Horrela bada, ikasle hauekin lan nola egingo den erabaki beharra dago.

Datu horiek guztiak eta datuon gainean egiten den gogoeta aintzat hartuta, irakasle-klaustroak ondokoak erabaki beharko ditu:

1. Ikastetxean komunikaziorako erabiliko den hizkuntza (irakasleen artean, ikasleekin, familiekin).
2. Curriculumean hizkuntzak nola jasoko diren, zein une edo arlo erabiliko den hizkuntza bakoitzerako eta gutxiengoan dagoen hizkuntza nolabait landuko den.
3. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak: zein hizkuntza erabiliko den jarduerotan. Zenbat leku utziko zaion gutxiengoan dagoen hizkuntzari.

Norberarenaz bestelako hizkuntza batean eskolatzeak berekin dakarren murgiltze-prozesuak ez du zertan zailtasunik eragin, aitzitik, baldintza jakin batzuetan

burutuz gero, aberaste-faktore bat izan daiteke.

Adibidea:

Gure ikastetxea gaztelaniaz mintzo den ingurune batean kokatua dago eta erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarriak ondokoak dira: ... Talde batzuek gaztelaniaren dialektoak erabiltzen dituzte eta beste talde batek, berriz, berebera; azken talde honetan, dena den, denek ez darabilte maila bereko gaztelania. Oro har, interes handia dute beren seme-alabek euskara eta gaztelania ikas dezaten. Ikastetxeko ijito-familiak ijito-hizkera berreskuratu nahiko lukete eta Magrebkoek, berriz, beren hizkuntza irakastea...

- *Ikasleekiko komunikazioa euskaraz egingo da.*
- *Zenbait une eta jardueretan ijito-hizkerareta eta gutxiengoan dauden kulturetako hizkuntz ezaugarriak sartuko dira. Horretarako beren kulturako pertsonengana joko dugu, esaterako, ikasle zaharragoengana, kultura horretako guraso edo beste pertsona batzuegana eta, ahal izanez gero, ikastetxeko profesional batengana.*
- *Behar duten guztietan (hasiera batean bereziki) beren ama-hizkuntzan hitzegin ahal izango dute, nahiz euskaraz erantzungo zaien.*
- *Familiakiko harremanetarako Magrebko kulturako pertsonaren baten laguntza lortzen saiatuko gara interpretari-lana egin dezan, bereziki aurretiaz behar izango dela aurreikus aurreikus daitekeen egoeretan (ikasturte hasierako bilera, aurretiaz finkatutako aldiroko banakako bilerak, ikasgelaren hiru hilez behingo bilerak...). Horretarako arabiar elkartearekin harremanetan jartzen saiatuko gara, bereziki banakako bilerak ditugunean. Talde-bileretan hizkuntza biak dakizkiten gurasoei laguntzeko eskatuko diegu. Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira eta horrez gain, ahoz ere, familia bakoitzari, zuzenean edota beste ikasle zaharragoen edo komunitateko kideen bidez, dakien hizkuntzan informatzen zaiola ziurtatu beharko dugu.*
- *Haur-hezkuntzan ikaskuntzak euskaraz egingo dira nagusiki. Lehen hezkuntzan, ... ikaskuntzak euskaraz egingo dira, eta ... ikaskuntzak, berriz, gaztelaniaz. Ingurunearen ezagutzari buruzko gai batzuk euskaraz egingo dira eta beste batzuk gaztelaniaz. Komunikaziora zuzendutako ikuspegi batetik landuko dira hizkuntza biak eta lagunarteko alderdiak zein alderdi formalak garatuko dira.*
- *Zenbait jarduera, hizkuntza eta ingurunearen ezagutzaren alorrekoak bereziki, ikasleen ama-hizkuntzan jorratuko dira.*
- *(Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, aurreko guztiaz gain, gutxiengoan dauden hizkuntzetako batean aukerako irakasgai bat eskaini lekieke, gutxiengoetako ikasleei ezezik gainerako guztietan ere zuzendutakoa).*
- *Eskolaz kanpoko jardueraren bat talde bakoitzaren ama-hizkuntzan eskainiko da, eta jarduera hau ez zaio talde horri soilik zuzenduko ikasle guztiei baizik.*
- *Kulturarteko aste bat antolatuko da (ikasleei, familiei eta komunitateko gainerako kideei zuzendutako jarduerekin) eta aste horretako jarduera batzuk gutxiengoan dauden hizkuntzetan burutuko dira. Horretarako antolakuntzan elkarre desberdinek, familiak eta komunitateko gainerako kideek parte har dezaten saiatuko gara.*

3. Helburuak

Etapako eta arloko helburu orokorrak derrigorrezkoak badira ere, ikastetxe bakoitzak zehaztu, lehenetsi, zikloka sekuentziatu (arloetakoak) edota osatu egin beharko ditu eta bere ezaugarrien arabera eta kulturarteko ikuspegi baten baitan ikastetxe horrek nola ulertzen dituen azaldu.

Helburuen gaineko hausnarketa egiteko eta ondoren helburuok zehazteko ondoko irizpideak erabil daitezke:

1. Kulturartekotasunari erreferentzia egiten dioten helburuak indartu.
2. Kultura bakoitzean, “balio unibertsalean” eta, haien gaineko hausnarketa kritikoa oinarri hartuta, hezkuntza-komunitatean lortutako hitzarmenean egindako interpretazio eta zehaztapenak aintzat hartu.
3. Eskolatzeko osoan zehar eta arlo guztietan, ikaskuntzak burutzeko edota gizarte konplexu eta aldakor batean txertatzeko funtsezkoak eta funtzionalak diren gaitasunekin lotutako helburuak gogoan izan eta sendotu.
4. Helburuak ez erraztu edo murriztu. Zailago dena mailaka landu hasieratik: hurbilekoen eta errazen zaienetik abiatu eta konplexuen eta urruneko zaienarentz jo.
5. Beste bide batzuen bidez edo beste ingurune batzuetan eskuratu ez daitezkeen gaitasunak sendotu eta badituztenak oinarriztat hartu eta hobetu.
6. Era guztietako gaitasunak aintzat hartu.

1. Kulturartekotasunari erreferentzia egiten dioten helburuak indartu.
--

Hona kulturarteko alderdiei erreferentzia egiten dieten edo haiekin lotura duten hainbat helburu orokor:

Haur-hezkuntzan:

c) Gizarte-harremanak geroz eta esparru zabalagoan eratzea eta horretarako, entzuteko jarrera barneratzen hasi eta bere interes, ikuspegi eta ekarpenak pixkanaka besteekin batera uztartzen ikastea.

d) Helduekiko eta ikaskideekiko harremanak eratzea, elkarri afektua adieraziz, aniztasuna errespetatuz eta laguntza eta elkarlaneaneko jarrerak garatuz.

f) Inguruneko zenbait kultur adierazpen ezagutzea eta haiekiko begirune, interes eta partaidetzazko jarrerak garatzea; ingurune hurbileko beste kultur adierazpenekiko interes eta begirunea izaten hastea.

Lehen hezkuntzan:

c) Talde-jarduerak antolatzen eta burutzen parte hartzea, demokratikoki finkatutako arau eta erregelak onartzea, taldeko gainerako ikaskideen ikuspuntuak errespetatuz, norberaren helburu eta interesak eta haienak uztartzea eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.

d) Ezagun zaizkion gizarte-egoeretan harreman orekatu eta eraikitzaileak eratzea; elkartasunez jokatzeko, sexu, gizarte-klase, sinesmen, arraza eta bestelako banakako zein taldeko ezaugarrietan oinarritutako bereizkeriak baztertuz.

f) Kultur ondarea ezagutu, baloratu eta gozatzea, berau gordetzen eta hobetzen parte hartzea eta hizkuntz eta kultur aniztasuna herri eta gizabanakoen eskubide gisa errespetatzea, eskubide hau gauzatzearekiko interes eta begirunezko jarrera bat garatuz.

Bigarren hezkuntzan:

c) Beste pertsonekin harremanetan jartzean eta talde-jardueretan aritzean elkartasun eta tolerantziarako jarrera izatea eta, batetik, inhibizioak eta aurreiritziak gainditzea eta, bestetik, gizarte-jatorriari zor zaizkion desberdintasunak bereizi eta haien gaineko balorazio kritikoa egitea eta sexu, gizarte-klasea, sinesmen, arraza eta bestelako banakako zein taldeko ezaugarrietan oinarritutako bereizkeriak arbuatzea.

f) Kultur ondarea ezagutu, baloratu eta gozatzea, berau gordetzen eta hobetzen aktiboki parte hartzea, hizkuntz eta kultur aniztasuna herri eta gizabanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide hau gauzatzearekiko eta hizkuntz normalkuntzarako prozesuekiko interes eta begirunezko jarrera bat garatzea.

Ikastetxeak kulturartekotasunari lotutako helburuok nola ulertzen dituen, arlo desberdinetan nola zehazten diren edo nola zehaz daitezkeen aztertu eta helburu horiek garatu ahal izateko aintzat hartu beharreko elementuak aipatu beharko dira.

Honela bada, Lehen hezkuntzako c) helburuari dagokionez, ikastetxe batek bere ingurunearen arabera interpretatu eta egokitu edota ñabartu ahal izango du eta ikastetxearen eguneroko bizitzan helburu hori jaso dadin zein neurri hartu beharko dituen erabaki.

Adibidea:

*c) Talde-jarduerak antolatzen eta burutzen parte hartzea, demokratikoki finkatutako arau eta erregelak onartzea (**gutxiengoan eskubideak aintzat hartuz**), norberaren helburu eta interesak taldeko gainerako ikaskideenekin lotzea, ikuspuntu desberdinak (**norberarenak eta ikastetxean dauden kulturenak**) errespetatzen direla, eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.*

Gure ikastetxean kultura desberdinetako ikasleak ditugu eta talde-lanaren baitan interes eta ikusmolde desberdinak uztartzea oinarrizko helburuetako bat dugu; horretarako, taldeko kide bakoitzak, bere ezaugarri pertsonalen, jatorrizko kulturaren eta abarren arabera, bere interes eta ikuspegiak izango dituela hartzen dugu abiapuntutzat. Arlo guztietan landuko dugu talde-lan hau eta jasotzen ez den arloetan (Matematikak, Euskara, Gaztelania eta Atzerriko Hizkuntza) Helburu Orokorrek, edukiak eta jarduerak garatuko dira.

Arlo guztietan ondokoak landuko dira: talde-lana, norbanakoaren eta ikasgelako kultura desberdinen ikuspegi eta interes desberdinak, zerbait egiteko bide desberdina,; adostasuna edota, emaitza bat lortzearen garrantzia (honek ez du zertan bakarra behar), gureaz bestelako iritzi eta egoerekiko, gutxiengoekiko eta arau demokratikoekiko —gutxiengoak aintzat hartzen dituztenak alegia— begirunea.

2. Helburuak kultura desberdinak, “balio unibertsalak” eta hezkuntza-komunitateak adostutakoa aintzat hartuta helburuak interpretatu eta zehaztu

Irizpide honi jarraiki, ikastetxe desberdinetan etapa desberdinetako zenbait heburu orokor nola zehaztu aipatzen dizuegu jarraian:

Haur Hezkuntzarako adibidea:

*i) Haurren adierazpen-gaitasunak aberastu eta zabaltzea, eskura dituzten baliabide eta bitartekoak erabiliz (**beste kultura batzuetako ikaskideenak**)*

bereganatuz) eta beren adinari dagozkien arte-adierazpideekin harremanetan jarri eta baloratzea (ikasgelan dauden kultura desberdinak aintzat hartuz).

Lehen Hezkuntzarako adibidea:

k) Gizakion bizitza eta bizikidetzara arautze dituzten oinarrizko balioak aintzat hartu eta haien arabera jokatzeko.

Ikastetxe honetan kultura desberdinetako ikasleak daudenez, helburu honi jarraiki, ikasgelan dauden kultura desberdinen funtsezko balioak ezagutzen saiatuko gara, baita berekin lotutako jokamoldeak zein talde-lana zertan errazten diguten ezagutzen ere eta horretarako balioak elkarrekin alderatu eta bat dutena, bereizten dituen eta elkarri zer ekar diezaioketen ikusiko dugu.

Bigarren Hezkuntzarako adibidea:

d) Gizartearen funtzionamendua arautzen duten mekanismo eta balioak aztertzea (gure ikastetxean eta gizartean dauden kultur talde desberdinak aintzat hartuz), herritarren eskubide eta betebeharrak dagozkienak bereziki, eta haien gaineko iritzi eta irizpide pertsonalak finkatzea.

Eta desberdinetako helburu orokor guztiak, batetik, eta kultura bakar bat edo balore gutxi batzuk besterik jasotzen ez dituzten arloetako helburu asko, bestetik, ikastetxean edota gizartean dauden kultura desberdinekin lotu beharko lirateke.

3. Eskolatzeko osoan zehar eta arlo guztietan, ikaskuntzak burutzeko edota gizarte konplexu batean txertatzeko funtsezkoak eta funtzionalak diren gaitasunekin lotutako helburuak sendotzea.

Ikasleei gizarte konplexu eta aldakor batean moldatzen, ikaskuntza berriak egiten, pentsatzen ikasten, ahalik eta autonomia handiena izaten, komunikatzen eta informazioa eskuratzen... lagunduko dieten gaitasunak landu behar dira. Horretarako, ondokoak izan beharko dira gogoan:

- ikaskuntza guztietan funtsezkoak diren gaitasunak.
- ikaslearentzat esanguratsuak diren gaitasunak, hots, bere ingurunean gehien bultzatzen direnak hartuko ditugu oinarritzat.
- bere ingurunearekin eta, oro har, gizartearekin lotutako gaitasun funtzionalak,

orainean erabiltzeko eta gerora gizarteratu eta lan-munduratzeko.

Ikaskuntza guztietan funtsezkoak diren gaitasunak zeintzuk diren ikusteko arlo guztietan edo ia guztietan agertzen diren eta etapa guztietan errepikatzen diren gaitasunak zeintzuk diren ikusi beharko da.

Hona hauetako batzuk:

- *norberaren gorputza pixkanaka ezagutzea*
- *ahozko eta idatzizko adierazpen eta ulermena*
- *arazoei irtenbidea ematea*
- *planifikazioa*
- *gogoeta-ebaluazioa*

Gaitasun esanguratsuen eta funtzionalenak zeintzuk diren erabakitzeko, testuingurua aztertu egin beharko da eta horrez gain, komunitateko kideen partaidetza beharko dugu.

Gaitasun hauek gehiago landuz gero, gaitasunokin lotutako helburuak, bai etapako orokorrak bai arlo desberdinetakoak, lehentasun bihurtzea eragin lezake ikastetxe batean.

Haur Hezkuntzarako adibidea:

Gure ikastetxean haur-hezkuntzako a),b),h), ... helburuak lehenetsiko ditugu:

a) Norberaren gorputza pixkanaka ezagutu eta kontrolatzea eta norbere buruaren gaineko irudi positiboa eratzea.

h) Ahozko hizkuntza ohiko komunikazio-egoeretara egokitzea, besteak ulertu eta norbere burua ulertarazteko, ideiak, nahiak, sentimenduak eta esperientziak adierazteko, esanahien sorkuntzan aurrera egiteko eta norberaren portaera arautu eta besteenarengan eragiteko.

b) Bere ohiko jardueretan geroz eta modu autonomoagoan jokatzeko, afektu eta emozioetan pixkanaka segurtasuna hartuz joatea eta bere kasa aritzeko gaitasunak eta bere buruarenganako konfiantza garatzea.

Lehen Hezkuntzarako adibidea:

i) Eguneroko esperientziatik abiatuta galderak eta arazoak identifikatu eta planteatzea eta, sormena erabiliz eta bere kasa jardunaz, arazook konpontzeko

eskueran dituzten ezagutza eta baliabide material guztiak erabilitzea edota beste pertsona batzuei laguntza eskatzea.

g) g.1. Gaztelaniaz eta euskarazko ahozko zein idatzizko mezuak ulertu eta taxutzea, mezuok komunikazioaren asmo eta ingurune desberdinetara egokituz.

g.2. Atzerriko hizkuntzan ahozko zein idatzizko testu errazak ulertu eta taxutzea.

a) Norberaren gorputza ezagutu eta estimatzea eta garatzen laguntzea...

c) Talde-jarduerak prestatzen eta burutzen parte hartzea...

j) Arazo errazak ebazterakoan dagokion...

Bigarren Hezkuntzarako adibidea:

a, h, j... helburuak ahal den arlo eta jarduera guztietan landuko dira. Honela bada, lengoia ez da soilik hizkuntza irakaslearekin edo hizkuntza ordu batean landuko, irakasle guztiekin eta jarduera guztietan baizik. Gauza bera matematikari dagokionez, arazoei irtenbidea ematea ebazpena gainerako arloetan era landuko da, arazoa plateatu, informazioa bilatu, nola ebatziko den planifikatu, burutu eta burututakoa aztertzen deneko prozesu baten bidez konpondu beharreko arazo bat planteatu daiteke jarduera oro. Era berean, arloetan hauekin lotura duten helburuak lehenetsiko dira.

Komunitateak garrantzitsu deritzonezko helbururen bat talderen batentzat garrantzirik ez balu edo lortzen zaila dela iritziko balio, horri buruzko sentsibilizazio- eta lanerako moduak agerian utzi beharko lirateke, helburuok lortzen laguntzeko.

Lehen Hezkuntzarako adibidea:

a) Norberaren gorputza ezagutu eta estimatzea eta garatzen laguntzea...

Helburu hau dela eta, kultura desberdinek gorputza estimatzea eta garatzen laguntzea nola ulertzen duten jakin eta errespetatu beharra dago eta gutxieneko puntu batzuk adostu behar ditugu familiekin, oso garrantzitsua baita helburu hau eskolan ezezik, etxean ere lantzea; hortaz, alderdiok leku bakoitzean nola landuko diren ere adostu beharko dugu. Ikastetxean aukera desberdinak errespetatzeko neurriak hartuko dira (esate baterako, jangelan gutxiengoan dauden taldeen arauen aurka ez dihoazen jakiak eskainiko zaizkie, esaterako, ikastetxeko gutxiengo Magrebtarrari).

errazen zaienetik abiatu eta konplexuen eta urrunekoen zaienerantz jo.

Lehen eta bigarren mailako curriculumak egon daitezen saihestu egin beharko dugu, alegia eta beren errealitate eta interesetara egokitze aitzakiaz, ez zaizkie ikasle jakin batzuei beharrezko zaizkien eta eskuratzeko eskubidea duen baliabideak ukatuko. Nahiz eta hasiera batean ikasle jakin batzuentzat, beren kultur ingurunea edo igurikapenak direla-eta urrunekoak edo lortzen zailak iruditu, helburu horiek erraztu edo murriztu beharrik gabe ere beren errealitatera egokitu egin ditzakegu. Modu egokian sekuentziatu beharko ditugu eta hasiera-zikloetan bertan hasi beharko dugu helburuok jorratzen, garatuago dituzten gaitasunekin lotuz eta eskakizun- edo konplexotasun-maila areagotuz.

Euskara, Gaztelania eta Literaturako 10. helburua:

Hizkuntza ikaskuntzarako eta jarduerak planifikatzeko tresna gisa erabiltzea ahoz zein idatziz, horretarako ekintzarako alternatibak taxutzea eta aurreratzea, informazioak buruz ikastea eta jarraitutako prozesua laburtu eta berrikustea ahalbidetzen duten prozedurak (eztabaida, eskema, gidoia, laburpena, oharrak) erabiliz.

Honela sekuentziatu liteke:

*Hasiera Zikloa: Hizkuntza ikaskuntzarako eta jarduerak planifikatzeko tresna gisa **ahoz** erabiltzea, horretarako ekintzarako alternatibak taxutzea eta aurreratzea, informazioak buruz ikastea eta jarraitutako prozesua laburtu eta berrikustea ahalbidetzen duten prozedurak (eztabaida...) erabiliz.*

*Erdiko Zikloa: Hizkuntza ikaskuntzarako eta jarduerak planifikatzeko tresna gisa erabiltzea **ahoz zein idatziz**, horretarako ekintzarako alternatibak taxutzea eta aurreratzea, informazioak buruz ikastea eta jarraitutako prozesua laburtu eta berrikustea ahalbidetzen duten prozedurak (**eztabaida, oharrak...**) erabiliz.*

*Goiko zikloa: Hizkuntza ikaskuntzarako eta jarduerak planifikatzeko tresna gisa erabiltzea **ahoz zein idatziz**, horretarako ekintzarako alternatibak taxutzea eta aurreratzea, informazioak buruz ikastea eta jarraitutako prozesua laburtu eta berrikustea ahalbidetzen duten prozedurak (**eztabaida, eskema, gidoia, laburpena, oharrak...**) erabiliz.*

5. Beste bide batzuen bidez edo beste ingurune batzuetan eskuratu ez daitezkeen gaitasunak

sendotu eta badituztenak oinarritzat hartu eta hobetu.

Oinarritzotzat hartu diren helburu guztien artean, ikasle guztiek edo batzuek beren ingurunean erraz eskuratzetik ez duten helburuak hautatu edo lehenetsi behar dira.

Adibidea:

Hizkuntzako 10. helburua zein Ingurunearen Ezagutzako 10. helburua oso garrantzitsuak dira bizi garen informazioaren gizarte honetan, baina ikastetxe honetako ikasle askoren ingurunean ez dute helburuok sustatzen laguntzen duten bitartekoetarako sarbiderik. Honela bada, ikastetxean hasiera-ziklotik landu beharko dira eta era askotako baliabideak erabili beharko dira horretarako (laguntza teknikoen edota ordenagailuen bidez landutako ulermen eta adierazpena)

6. Era guztietako gaitasunak aintzat hartu.

Landu ditugun helburuen artean era guztietako gaitasunak jaso diren eta behar bezainbeste sakondu diren egiaztatu behar dugu. Helbururen bat gutxiegi garatuta egonez gero, gehiago garatu behar ote den edo dagoen moduan aski dela esateko arrazoiak dauden ikusi beharko dugu.

Laburbiltzeko, hona Lehen Hezkuntzako ikastetxe bati buruzko adibidea:

Gure ikastetxearen helburu orokorrak	Iruzkinak
<p>g) g.1. <i>Gaztelaniaz eta euskarazko ahozko zein idatzizko mezuak ulertu eta taxutzea, mezuok komunikazioaren asmo eta ingurune desberdinetara egokituz.</i></p> <p>g.2. <i>Atzerriko hizkuntzan ahozko zein idatzizko testu errazak ulertu eta taxutzea.</i></p> <p>Beste hizkuntzetan (ikastetxean gutxiengoan daudenetan) eta norberarenean (gutxiengoan dauden horietakoa izanez gero) burututako komunikazioa baloratzea.</p>	<p>Hizkuntza arlo guztietan edo ahal den jarduera guztietan landuko da, ez soilik hizkuntzari dagokion ikastordu bakar batean.</p> <p>Ingelesarekin lehen ziklotik hasiko gara, eta komunikaziora zuzendutako ikuspegi batetik landuko dugu.</p> <p>Ama-hizkuntza bere testuinguruan eta ikastetxeak antolatutako jardueretan erabil dezatela sustatuko da.</p>
<p>c) <i>Talde-jarduerak antolatzen eta burutzen parte hartzea, demokratikoki finkatutako arau eta erregelak onartzea (gutxiengoan eskubideak aintzat hartuz), norberaren helburu eta interesak taldeko gainerako ikaskideenekin lotzea, ikuspuntu desberdinak, norberarenak eta ikastetxean dauden kulturenak, errespetatzen direla, eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea..</i></p>	<p>Planifikatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea funtsezko helburutzat dugu. Gure ikastetxean, gainera, kultura desberdinetako ikasleak daude eta, hortaz, ezinbestekoa da lanean interes eta ikuspegi desberdinak uztartzea; horretarako, gogoan izan behar da taldeko kide bakoitzak, bere ezaugarri pertsonalen, jatorrizko kulturaren eta abarren arabera, interes eta ikuspegi bereziak izango dituela. Talde-lanean ezezik, arlo guztietan landuko dugu hau</p>
<p>i) <i>Eguneroko esperientziatik abiatuta galderak eta arazoak identifikatu eta planteatzea eta, sormena erabiliz eta bere kasa jardunaz, arazook konpontzeko eskueran dituzten ezagutza eta baliabide material guztiak erabiltzea edota beste pertsona batzuei laguntza eskatzea.</i></p>	<p>Arazoak ebatzea arlo guztietan jorratu beharreko edukia izango da, ez soilik matematikan. Honela bada, gainerako arloetan ere landuko da eta arazoak konpontzeko ondoren adierazitako prozesua jarraituz konpondu beharreko arazo gisa landu dezakegu jarduera oro: arazoa plateatu, informazioa bilatu, nola ebatziko den planifikatu, burutu eta burututakoa aztertu. Prozesu hau hasierako ikasturteetatik landuko da eta maila desberdinetako laguntza eta konplexutasuna izango du. Gauza bera sortzen diren arazo eta gatazkei dagokienez...</p>
<p>j) <i>Arazo errazak ebazterakoan dagokion informazioa lortu eta kodeen bidez irudikatze beharrezko prozedurak erabiltzea, arazook konpontzeko baldintza materialak eta denborazkoak aintzat hartuz.</i></p>	<p>Arlo guztietan jorratuko da arazoei irtenbidea ematea eta horren baitan, informazioa bilatzea, prozesatzea eta prozesu horretako gainerako urratsak hasierako ikasturteetatik lantzea garrantzizkoa dela uste dugu.</p>
<p>d) <i>Ezagun zaizkion gizarte-egoeretan harreman orekatu eta eraikitzaileak eratzea; elkartasunez jokatzeko, sexu, gizarte-klase, sinesmen, arraza eta bestelako banakako zein taldeko ezaugarrietan oinarritutako bereizkeriak baztertuz.</i></p>	<p>Horretarako elkarlanean oinarritutako taldea-lana lehenetsiko da eta ikasgelan bertan edo ikastetxean mota honetako bereizkeria-egoerei buruz gogoeta egin eta gogoeta horiek oinarri hartuta hartu beharreko neurriak hartzea bultzatuko da.</p>
<p>h) <i>Hitzak, gorputza, ikusmena, plastika, musika eta matematika erabiliz komunikatzea, gaitasun estetikoak, sormena eta ikastetxean dauden kultura desberdinen arte-adierazpenez eta artelanez</i></p>	<p>Ikasle guztientzat, oro har, eta kultura desberdinak batera dauden ikastetxe honetako ikasleentzat, bereziki, aberasgarri izan dadin erabil ditzakegun komunikazio-bitarteko guztiak sustatu beharra</p>

<p>gozatze gaitasuna garatuz.</p>	<p>dagoelakoan gaude, bitarteko horien bidez, kultura horietara ahalik eta hobekien egokitzeko eta ikasleen ahalmenak ahal bait gehien erabili edo sustatzeko.</p>
<p>b) Eguneroko jardueretan eta taldearekiko harremanetan autonomiaz jokatzeko eta bere kasa aritzeko eta afektuzko harremanak eratze gaitasunak garatzea.</p>	<p>Autonomia, batetik, eta erabakiak hartzea, bestetik, oinarrizko gaitasun funtzionalak dira, edozein estrategia metodologiko proposatzerakoan aintzat hartu beharrekoak bada. Egunean zehar bizi diren esparruak aintzat hartu beharko dira: ikasgela-taldea, familia eta bere gizarte-taldea eta gizartea bera (informazioaren gizartea, alegia) oro har.</p>
<p>a) Norberaren gorputza ezagutu eta estimatzea eta garatzen laguntzea, horretarako osasunerako, higienarako eta ongizaterako egokiak diren ohiturak hartuz eta jokamolde jakin batzuek osasunean eta bizi-kalitatean duten ondorioak baloratuz.</p>	<p>Kultura desberdinek gorputza estimatzea eta garatzen laguntzea nola ulertzen duten jakin eta errespetatu beharra dago eta gutxieneko batzuk adostu behar ditugu familiarekin, garrantzi handia baitu eskolan zein etxean lantzeak; hortaz, alderdiok leku bakoitzean nola landuko diren ere adostu beharko dugu. Ikastetxean aukera desberdinak errespetatzeko neurriak hartuko dira (esate baterako, jangelan beren aurka ez dihoazen aukerak eskainiko zaizkie talde desberdinei, besteak beste, ikastetxeko gutxiengo Magrebtarrari).</p>
<p>f) Kultur ondarea ezagutu, baloratu eta gozatzea, berau gordetzen eta hobetzen parte hartzea eta hizkuntz eta kultur aniztasuna herri eta gizabanakoen eskubide gisa errespetatzea, eskubide hau gauzatzearikiko interes eta begirunezko jarrera bat garatuz.</p>	<p>Kultura desberdinen ekarpenak, ikastetxean dauden kulturen ezaugarriak ezagutzea... aintzat hartuko dira.</p>
<p>k) Gizakion bizitza eta bizikidetzaren arautzen dituzten oinarrizko balioak aintzat hartu eta haien arabera jokatzeko.</p>	<p>Ikastetxe honetan kultura desberdinetako ikasleak daudenez, helburu honi jarraiki, ikasgelan dauden kultura desberdinen funtsezko balioak ezagutzen saiatuko gara, baita berekin lotutako jokamoldeak zein talde-lana zertan errazten diguten ezagutzen ere, horretarako alderatu eta bat dutena, bereizten dituen eta elkarri zer ekar diezaioketen ikusiko dugularik.</p>
<p>e) Natur eta gizarte-ingurune gertakari eta fenomeno arteko harremanak ulertu eta finkatzea eta, ahal den neurrian, ingurugiroa babestu eta hobetzeko laguntza aktiboa ematea.</p>	<p>Hemen naturako fenomeno eta gizarte-eredu desberdinen arteko harremanak, kultura desberdinak, gizarteko alderdi desberdinen arteko harremanak eta kultura desberdinen arteko harremanak (bazterketa...) biltzen dira.</p>

Helburu orokorretatik abiatuz eta haiei buruz erabaki denaren arabera (kultur aniztasunaren inguruan batez ere), helburuok eta arloko helburu orokorrak erkatu eta behar dena egokitu edo osatuko da edo, bestela, alderdi orokor horiekin lotuta egon arren jaso gabe utzi dena erantsiko da.

Jarraian aurreko adibidearen arabera egindako lehen berrikusketa bati buruzko adibidea dugu.

Helburu orokorrak	Ingurunearen Ezagutza	Arte Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza	Hizkuntza	Atzerriko Hizkuntza	Matematikak
<i>g) g.1. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako...</i>	Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi	Batzuetan dago Osatu	Batzuetan dago	Ez dago Erantsi
<i>c) Talde-jarduerak antolatzen eta burutzen...</i>	2,3,4an dago Osatu.	5ean dago	Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi
<i>i) Eguneroko esperientziatik abiatuta...</i>	10ean dago	Ez dago Erantsi	4ean dago	10ean dago	Ez dago Erantsi	2,4,8an dago
<i>j) Arazo errazak ebazterakoan dagokion...</i>	9an dago			10ean dago	Ez dago Erantsi	6an dago
<i>d) Ezagun zaizkion gizarte-egoeratan...</i>	2 3an dago	5ean dago Osatu	6an dago	4ean dago Osatu	5 2an dago	Ez dago Erantsi
<i>h) Hitzak, gorputza, ikusmena, plastika...</i>	Ez dago Erantsi	1,3,4,7an dago	8an dago	5ean dago Osatu	6an dago	1ean dago
<i>b) Eguneroko jardueretan eta taldearekiko....</i>	2an dago Osatu	1ean dago	Batzuetan dago	Ez dago Erantsi	8an dago	3an dago
<i>a) Norberaren gorputza ezagutu eta estimatzea...</i>	1ean dago Osatu	Ez dago Erantsi	1,2an dago Osatu			
<i>f) Kultur ondarea ezagutu, baloratu eta...</i>	3,5ean dago Osatu	1 1an dago Osatu		3,9an dago Osatu	Ez dago Erantsi	7an dago Osatu
<i>k) Gizakion bizitza eta bizikidetzaren arautze...</i>	Batzuetan dago Osatu		Ez dago Erantsi	Ez dago Erantsi		
<i>e) Natur eta gizarte-ingurune...</i>	5,6,7,8an dago Osatu					6an dago

4. Edukien hautaketa

Kulturarteko edukiak lantzeko irakasle-klaustroak hainbat aukera ditu:

- Ikastetxe horretan arlo bakoitzaren baitan landu diren edukien azterketatik abiatzea (testuliburua, txostenak, programazioak eta, burutua badago, batik bat ICPa oinarri hartuta).
 - zein edukik dute kulturarteko izaera?
 - kulturartekotasunaren aurkako edukiak al daude? (Gutxiengo batzuei buruzko ikuspegi negatiboa, eduki arrazistak, tartean egon direneko gertakariei buruzko ikuspegi okerra...).
 - zeintzuk dira kulturarteko ikuspegi batetik jorratzeko eduki egokienak?
 - nola aldatu daitezke edo zer erantsi behar zaie kulturarteko izaera hori izan dezaten?
 - egindako sekuentziazioa egokitu egin al zaie ikasleen interes, gaitasun eta abarri?
 - egindako hautaketa eta sekuentziazioak balioa al du arlo bakoitzerako finkatutako helburu orokorrak lortzeko?
 - zein aldaketa egin beharko litzateke?
- Finkatutako helburuetatik abiatzea:
 - kulturarteko izaera duten edukien zerrendak osatu (erreferentziazat finkatutako helburuetan, testulibururen batean, dekretu eta berariazko materialetan jasotako edukietan gaiari buruz emandako ideiak hartu).
 - eskolatze osoan zehar oinarritzotzat ditugun helburu guztien zerrenda egin (eskolatzean zehar garrantzizkoen eta lehenetsi beharreko derizkiegunak, arlo guztietan errepikatzen direnak, ikaskuntzak burutu ahal izateko beharrezko direnak...).
 - garrantzitsuenak aukeratu (aurreko bi zerrendak aintzat hartuz) eta arlo bakoitzeko eduki-bloke bakoitzean erantsi: bloke bakoitzean agertzen direnekin erkatuz, badaudenak nolabait aldatu, berriak erantsi...
 - sekuentziatu. Sekuentziazioa egin ahal izateko aurretiaz jorratutako edukien azterketa eta ikasleen ezaugarriak aintzat hartu beharko dira.

Egokiena aukera biak uztartu eta prozesu deduktiboagoa (aurrena helburuak eta hauetatik abiatuta edukiak) edo induktiboagoa (praktikatik eta praktika honen gaineko hausnarketatik abiatu) burutzen den arabera, batari edo besteari garrantzi handiagoa ematea izango genuke.

Nolanahi ere, helburuok lortzeko aipatu ditugun irizpideak edukiak hautatzeko ere erabil daitezke. Hona laburbilduta:

1. Kulturartekotasuna jasotzen duten edukiak indartzea.
2. Bloke bakoitzean (ahal bada) edo arlo bakoitzean kulturartekotasunarekin lotutako hiru motako edukiak eranstea edo jasotzea.
3. Eskolatzeko osoan zehar eta arlo guztietan ikaskuntzak burutzeko funtsezkoak edo funtzionalak direnak aintzat hartu eta sendotzea. Prozedurak eta jarrerak bereziki.
4. Helburuak ez erraztu edo murriztu. Zailago dena mailaka landu hasieratik: hurbilekoen eta errazen zaienetik abiatu eta konplexuen eta urruneko zaienarentz jo.
5. Helburu bakoitzari helburu hori betetzen lagunduko duten eduki batzuk edo eduki-multzo bana gehitu, hautatutako edukiak talde bakoitzari eta ikasle bakoitzari egokitu ahal izateko moduan.
6. Hezkuntza-komunitateak garrantzizkotzat jotzen baditu ere, talde guztiak bat ez datozen edukiei dagokienez, hauekiko sentsibilizazio-bideak eta lanerako moduak adierazi beharko zaizkie bai gurasoei bai ikasleei, helburuok lortzea ahalbidetzen duten baliabideak eskainiz eta bateraezinak ez izanagatik ere bat ez gatozen beste batzuk errespetatuz.

Kulturarteko edukiak lantzeko arlo egokienetakoa, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezagutza edo Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ditugu eta, gainera, alderdiok bertan landu izan ohi dira. Nolanahi ere, arlo guztietan garatu behar dira, eta Gizarte-arloan ezezik, gainerako arlo guztietako helburu orokorretan ere jaso dira.

Jarraian, arlo desberdinetan landu daitezkeen hainbat eduki ematen ditugu adibide gisa, batzuek arlo guztietan lantzen dira eta oinarritzkoak dira ikaskuntzarako. Adibide hauek lantzeko ondoko materialak erabili ditugu: Euskal Autonomia Erkidegoko Curriculumak Garatzeko Dekretuak (1992), Antonio Muñoz Sedanoren *Educación Intercultural* (1997); Jordánen *Educación intercultural* 1996; Lidia Bañares, Reyes Lalueza, M^a Jesús Vicen (1996). Ondoko arloak jorratzen dira materialkotan:

Adibide zabalena Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezagutzari dagokiona da. Bertan bloke bakoitzean jorratu daitezkeen gaiak proposatzen dira eta 1. eta 4. blokeetan proposatutako gaiekin lotutako mota guztietako edukiei buruzko adibideak ematen dira halaber. Gauza bera egin beharko litzateke gainerako blokeekin eta ondoren

zikloka sekuenziatu egin beharko lirateke.

Lehen Hezkuntzarako adibide hauetako asko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Historia eta Geografia arloan erabil daitezke. Haez gain, etapa hauetarako egokiago diren beste adibide konplexuago edo abstraktuagoak ere proposatzen ditugu. Eduki-zerrenda hauetan hiru motako edukiak jasotzen dira iradokizun edo ideia moduan erabiltzeko.

Ondoko arloetan ere landu daitezkeen edukiei buruzko ideia eta iradokizunak ere ematen ditugu:

Hizkuntza

Arte Hezkuntza

Gorputz Hezkuntza

Matematikak

Adibideotan beste kultura eta taldeak askotan aipatzen badira ere, horrek ez du esan nahi ikasleekin ari garenean berariaz aipatu beharra dagoenik, irakasleak aniztasun hori aukeratu eta mota bakarreko adierazpenak saihestu behar dituela baizik. Kultura desberdin hauek ikasle bakoitzaren errealitatea oinarritzat hartuta landuko dira askotan, kultura batekoa edo bestekoa denik aipatu gabe, pertsona gisa baizik, eta sinesmen, kultur adierazpide eta abarren aniztasuna balioztatuko da hortaz.

Bloke hauetan eta arlo guztietan oinarrizko edukiak landu daitezke, bereziki jarrerak eta balioak. Hona oinarrizko eduki batzuei buruzko adibidea:

Lan-taldea	<ul style="list-style-type: none"> ▫ taldekide desberdinak ezagutzea, ▫ bi edo gehiagoren artean burutu beharreko jarduera batean parte hartzea, ▫ zereginak banatzea, ▫ eraginkortasunez komunikatzea, ▫ erabakiak hartzea, ▫ bat etortzea, ▫ arazoak konpontzea ▫ ...
Kulturarteko gizarte-gaitasunak	<ul style="list-style-type: none"> ▫ entzuketa aktiboa, ▫ ideiak, nahiak eta sentimenduak adieraztea, ▫ kritikak egin eta jasotzea ▫ ...
Arazoei irtenbidea ematea	<ul style="list-style-type: none"> ▫ arazoa planteatzea ▫ informazioa bilatu eta hautatzea ▫ erabil daitezkeen alternatibak eta alternatiba hauen ondorioak planteatzea ▫ alternatiba egokiena hautatu eta planifikatzea ▫ gauzatzea ▫ gogoeta-ebaluzioa ▫ ...
Informazioa eskuratu eta tratatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▫ mota desberdinetako informazio-iturriak ▫ ...
Kulturarteko joera eta balioak	<ul style="list-style-type: none"> ▫ begirunea, tolerantzia, elkartasuna ▫ jarrera kritikoa
...	<ul style="list-style-type: none"> ▫ ...

Jarraian, Lehen Hezkuntzan Ingurunearen Ezagutza arloko blokeetan kulturarteko alderdiak aintzat hartuz landu daitezkeen hainbat eduki proposatzen dizkizuegu. Aurrerago sakonago garatzen dira 1. eta 4. blokeak:

<p>1. blokea □ GIZAKIAK ETA OSASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ gorputzaren ezaugarri desberdinei zor zaizkien desberdintasunak (azalaren kolorea eta bestelako desberdintasun etnikoak). □ besteekiko begirunea eta norberaren gorputzaren onarpen eta balorazioa. □ higiena eta natur eta gizarte-ingurunearekiko duen lotura. □ kultura desberdinek (ikastetxean daudenak bereziki) gorputzaren edertasuna ulertzeko duten modua, jantziak, apaingarriak. □ gizarte- edo kultur talde desberdinen ohitura osasungarriak. □ gizakia izaki sozial gisa: taldea, talde desberdinetako parte izatea (familia, lagunartea, ikasgela), talde desberdinetan parte hartzea, talde horietako bakoitzean duten rola, gizarte-gaitasun egokienak, talde bateko kide gisa arazoak konpontzea... □ eskubideak). □
<p>2. blokea □ INGURUNE FISIKOA ETA GIZA EKINTZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ ingurune fisikoko osagaien eta ikasgelan dauden gizarte- edota kultur talde desberdinen bizimoduen (balio, ohitura eta abarren) arteko lotura. □ kultura desberdinek ingurugiroarekiko erakusten duten begirunea. □ zenbait kulturek naturarekin duten lotura estua. □ ...
<p>3. blokea □ IZAKI BIZIDUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ animalia eta landareen eta talde desberdinen arteko harremana, kultura desberdinen balorazioa. □ beren bizimoduan, ohituretan... izan duen edo duen papera. □ ...
<p>4. blokea □ GIZARTE INGURUNEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ biztanleriaren ezaugarriak □ migrazio-mugimenduak □ taldeen arabera gizarte-antolamenduen ereduak □ taldeen arabera giza jardueren ereduak (lana, aisialdia...) □ talde bakoitzak arazoak konpontzeko darabiltzan arauak eta moduak □ talde desberdinen arteko arazoei irtenbidea ematea □ talde desberdinetakoak izateak eragindako gatazka pertsonalak eta konponbidea □ lankidetzak eta elkartasuna □ kulturarteko gizarte-gaitasunak □ arazo bera konpontzeko erabil daitezkeen konponbide desberdinekiko begirunea eta onespina □ arrazismoa

	<ul style="list-style-type: none"> □ ...
<p>5. blokea □ LANA, ENERGIA ETA MAKINAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ Kultur talde desberdinetako lan arruntenei buruzko azterketa kritikoa. □ Aukera berriak (beraien kulturari uko egin behar izan gabe, bere kultura horretan oso arruntak ez diren lanetan diharduten gutxiengoetako pertsonak). □ Kultura desberdinetan gehien balioztatzen diren lanbideak. □ Gutxiengoan dauden kulturetan egindako eta kultura nagusiak bereganatutako ekarpen teknologikoak. □ Kultura desberdinek natur baliabideez egiten duten (gehiegizko) erabilpena. □ ...
<p>6. blokea □ INFORMA ZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA GARRAIABIDEAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ komunikabideek eta publizitateak darabilten arrazismo eta manipulazioa □ informazioaren trataera □ informazioaren munduan sartzeko aukera ematen duten programa informatikoak erabiltzea ikasle guztiek (gutxiengoan dauden taldeetako ikasleak ia guztiz baztertuta baitaude informatikaren alorretik) □ ...
<p>7. blokea □ HISTORIAK O ALDAKETAK ETA EGUNEROKO BIZITZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ ikasgelan dauden taldeen (bai gutxiengoan daudenena bai nagusiarena) historia, ohiturak, kultur adierazpideak eta bizimoduaren bilakaera. □ ...
<p>8. blokea □ LURRA ETA GURE GARAIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ herri eta arraza desberdinak. □ aberastasunen banaketa herri desberdinen artean, nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuna. □ gatazka nagusiak. □ banaketa ez orekatuaren azterketa kritikoa □ bereizkeria eta bazterketaren aurkako parte hartze aktiboa. □ bereizkeria eta bazterketaren aurka diharduten taldeak (GKE) □ ...

Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezagutza arloa

1. eta 4. blokeetako gai eta edukiei buruzko adibidea:

<p>1. blokea □ GIZAKIA K ETA OSASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▫ gorputzaren ezaugarri desberdinei zor zaizkien desberdintasunak (azalaren kolorea eta bestelako desberdintasun etnikoak). ▫ besteeikiko begirunea eta norberaren gorputzaren onarpen eta balorazioa. ▫ higiena eta natur eta gizarte-ingurunearekiko duen lotura. ▫ kultura desberdinek (ikastetxean daudenak bereziki) gorputzaren edertasuna ulertzeko duten modua, jantziak, apaingarriak. ▫ gizarte- edo kultur talde desberdinen ohitura osasungarriak. ▫ gizakia izaki sozial gisa: taldea, talde desberdinetako parte izatea (familia, lagunartea, ikasgela), talde desberdinetan parte hartzea, talde horietako bakoitzean duten rola, gizarte-gaitasun egokienak, talde bateko kide gisa arazoak konpontzea... ▫ eskubideak. ▫ ... 	<p>Kontzeptuzko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Eskubide-aldarrikapenak: Giza Eskubideena, Haurren Eskubideena, Arrazismoaren aurkako pasaporte. ▫ Higiena eta ingurunearekiko harremana. ▫ Jantziak eta apaingarriak ikasgelako kultura desberdinetan. ▫ Dieta desberdinak ikastetxeko kultura desberdinen arabera. ▫ ... <p>Prozedurazko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Ikasgelako talde desberdinek darabilten apaingarri buruzko informazioa bilatu (familiari edo komunitateko beste kide batzuei egindako kontsulta edota elkarrizketen bidez, liburu, marrazki, ordenagailu eta abarren bidez). ▫ Gorputzaren ezaugarri desberdinei erreparatu. ▫ Jantziei eta apaingarri buruzko gustu desberdinak jakinarazi. ▫ Egoera (ikastetxean, ikasgelan. lagunartea, auzoan...) eta euskarri (testuliburuan, prentsan, telebistan...) desberdinetan egindako adierazpen arrazistak aztertu. ▫ Kultura desberdinek erabili ohi dituzten “sendabideak” aztertu. ▫ Talde-jardueretan parte hartzea eta rolak bere gain hartu, finkatutako arauak betez. ▫ Talde-jardueretan arazoak konpontzeko gaitasunez baliatu. ▫ ... <p>Jarrerazko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Gorputzaren ezaugarri desberdinei (azalaren kolorea, etnia bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak...) zor zaizkien desberdintasunak errespetatu. ▫ Norberaren gorputza onartu desberdintasunak onetsiz. ▫ Osasunarentzat onuragarriak diren ohiturak baloratu eta bereganatu, beren jatorri soziokulturala edozein delarik ere. ▫ ...
--	--	--

<p>4. blokea □ GIZARTE INGURUNEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> □ biztanleriaren ezaugarriak □ migrazio-mugimenduak □ taldeen araberako gizarte-antolamenduen ereduak □ taldeen araberako giza jardueren ereduak (lana, aisialdia...) □ talde bakoitzak arazoak konpontzeko darabiltzan arauak eta moduak □ talde desberdinen arteko arazoei irtenbidea ematea □ talde desberdinetakoak izateak eragindako gatazka pertsonalak eta konponbidea □ lankidetzak eta elkartasuna □ kulturarteko gizarte-gaitasunak □ arazo bera konpontzeko erabil daitezkeen konponbide desberdinekiko begirunea eta onespina □ arrazismoa □ ... 	<p>Kontzeptuzko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> □ Migrazioak. □ Kultura desberdinen araberako gizarte-erakundeen eredu desberdinak. □ Ikasgelako kultura desberdinek berezko dituzten giza jarduerak: lanbideak, kultur eta arte-jarduerak, aisia eta astialdia... □ Bereizkeria eta arrazismoa. □ ... <p>Prozedurazko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> □ Ikaskideekin, senitartekoekin, ikastetxeko beste pertsona batzuekin elkarriketak egin ikasgelan dauden kultura desberdinek berezko dituzten jarduerak ezagutzeko: lanbideak, kultur eta arte-jarduerak, aisia eta astialdia... □ Lanbide desberdinak (gutxiengoan dauden taldeen ohiko jarduerak barne, esaterako, salmenta ibiltaria) aztertu, horretarako errealitatea (ikustaldiak) edota simulazioak behatuz. □ Ikasgelako ikaskideek hezkuntzari eta lanari dagokionez dituzten igurikapenen berri jaso eta aztertu. □ Era askotako iturriak erabiliz (ikaskideak, behaketak, albisteak, irakurgaiak...) kultura, familia, auzoa, herria, klana bezalako gizarte-antolamendu desberdinen ezaugarri bereizgarriei buruzko informazioa bildu. □ Kultura desberdinetako famili mota desberdinak eta eredu bakoitzaren alderdi positiboak aztertu. □ Simulazio-jokoen bidez familia-eredu desberdinen baitako rola aztertu. □ Mota desberdinetako errealitateak (bizimodu ibiltaria, mota desberdinetako ohiturak...) eta norberaren esperientzia (kanpaldiak...) erkatu. □ Emigrazioarekin lotutako egoerak antzeztu: emigratu beharra, arrotzak zaizkigun ezaugarri ugari dituen herri batera iristea, harrera.... □ Komunitatean etorkinei buruzko informazioa biltzeko jarraitu beharreko urratsak planifikatu. □ Talde bateko kide gisa, bizimodu ibiltariari buruzko txosten bat egiten parte hartu. □ Gizarte- edo kultur talde desberdinek arazoak konpontzeko darabiltzaten modu desberdinak ezagutu. □ Arazoak konpontzeko gaitasunak taldean erabili. □ Egoera (ikasleekin, ikasgelan, lagunartean, auzoan...) eta euskarri (testuliburuan, prentsan, telebistan...) desberdinetan egindako adierazpen arrazistak aztertu. □ Erabakiak hartzeko prozesuak erabili.
--	--	--

		<ul style="list-style-type: none"> □ ... Jarrerazko edukiak: □ Talde bateko kide gisa, ikasgelako edozein ikaskiderekin batera lan egin, datorren kultur taldetik datorrela. □ Bizimodu desberdinak baloratu eta errespetatu. □ Lanbide desberdinak eta gizarte osoan duten betekizuna baloratu. □ Pertsonetikiko errespetua izan eta jarrera arrazistak arbuiatu. □ Kultur aniztasuna (portaerak, balioak, ohiturak...) ulertu, baloratu eta errespetatu. □ Hautatu ez diren bizimodu batzuek eragiten duten bereizkeria-egoerak epaitu. □ ...
--	--	---

Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzia, Geografia eta Historia arloko edukiei buruzko zenbait adibide:

- Ingurune fisikoaren eta talde desberdinen bizimoduen arteko elkarreraginak aztertu (bai inguruneak ohituretan bai taldeek paisaietan dutena).
- Lurralde-antolamenduaren, hiriko espazioen eta ezaugarri sozioekonomioen arteko lotura. Pobrezia-guneen, ingurune baztertuen eta gutxiengo etniko eta kulturalen sorkuntza aztertu.
- Pobreziaren eta arrazismoaren arteko lotura aztertu.
- Gutxiengo etnikoei buruzko topiko eta aurreiritziak aztertu.
- Gizarte-talde desberdinen arteko gatazka-egoeretan erabil daitezkeen konponbideak proposatu.
- Baliabideak herrien artean banatzerakoan dagoen desorekaren azterketa kritikoa.
- Elkarren menpekotasuna eta neokolonialismoa.
- Hirugarren Munduko herrien arteko gatazkak aztertu eta mendebaldeko herriek prozesuotan duen eragina aztertu.
- Eskolan dauden gutxiengoen Geografia eta Historia.
- Historiako testuliburuetan agertzen diren alderdikerien azterketa kritikoa.
- Eztabaida sortzen duten gai historiko zein sozialei heltzeko, arrazoi desberdinengatik (politikoak, sozioekonomikoak...) erabili izan diren edo erabil daitezkeen ikuspegi desberdinak aztertu.
- Zalantza moralak aztertu eta erabaki.
- Lankidetzara eta elkartasunera zuzendutako proiektu eta kanpainetan parte hartu, bai ingurune hurbileko gutxiengoan dauden taldeekin, bai nazioartean.
- Bazterketa-prozesuotan dugun zeregina dela eta geure buruaren gaineko kritika egin.
- Herriek beren garapen eta autonomiarako duten eskubidearen balorazio eta begirunea.

Euskara, Gaztelania eta Literatura arloko edukiei buruzko zenbait adibide:

- Hizkuntzak eta hizkuntzen arteko loturak bereizi (joskera eta hiztegia erkatu: neologismoak, parekotasunak, etimologiak...).
- Gutxiengoan dauden taldeen ama-hizkuntzan idatzitako zenbait testu erabili.
- Literatur testuetan, idatzizkoetan zein ahozko tradizioaren bidez heldu zaizkigunetan, kultura desberdinetako gizarte, kultura, etika eta beste alorretako balioak eta ohiturak identifikatu.
- Ahozko zein idatzizko testuetan adierazitako eta norberaren esperientzia, bizipen, kultura eta abarrekin lotutako ideiak interpretatu.
- Ahozko zein idatzizko testuetan bereizkeria salatzen duten adierazpenak aztertu.
- Ahalik eta mota desberdin gehienetako testuak taxutu (elkarrizketak, kontakizunak, errezetak, poemak, esaerak, abestiak...) mota desberdinetako euskarriak erabiliz (komikiak, irratia, bideoa, liburua, egunkaria...).

- Talde-lanean komunikazio-arauak bete.
- Biltzarrean komunikazio-arauak bete.
- Mota desberdinetako testuak antzeztu.
- Egoera bakoitzari (entzuketara aktiboa, enpatia, ideiak edo sentimenduak adierazi, kritikak, laudorioak egin, ezetz esan...) dagokion komunikazio-gaitasunak erabili.
- Kultura desberdinetan erabiltzen diren gizarte-gaitasun linguistiko zein paralinguistiko azterketa (solaskideen arteko distantzia egokia, mota desberdinetako solaskideengana zuzentzeko formulak...).
- Kultura desberdinetako literatur testuak aztertu eta balio artistikoak, azpian datzaten balio moralak, kultur kontzeptuak, ohiturak eta abar hautemateko modu desberdinak eratu.
- Kultura desberdinetako pertsonen bizipenekin lotutako gaiak jorratzen dituzten testuak irakurri: ipuinak, elaberriak, egunkarietako albisteak, aldizkariak.
- Hizkuntz aniztasuna altxortzat eta kultura eta herri desberdinen nortasunaren adierazgarritzat hartu.
- Hizkuntz aldaera desberdinak erabiltzea errespetatu eta onetsi. □

Arte Hezkuntza arloko edukien zenbait adibide:

- Kultura desberdinetako jolasak eta tradiziozko ereduak: funtzioak eta pertsonaiak.
- Kultura desberdinetan erabiltzen diren musika-tresnak.
- Musika-adierazpenen eredu adierazgarriak (musika afroa, flamenkoa...).
- Kultura desberdinetan erabilitako arte-adierazpen eta komunikazio ereduak (erlijio-erritua, eskulangintza, apaingarriak eta antzeko ezaugarri arruntak barne).
- Kultura desberdinetan mota desberdinetako arte-baliabideen bidez igorritako mezuen edukia deskribatu.
- Kultura desberdinetan erabilitako mota desberdinetako arte-adierazpenaz arakatu eta aztertu (musika, dantza, kantua, gorputz-adierazpena, antzezlanak, eskulangintza, pintura, eskultura...).
- Estilo, genero eta kultura desberdinetako arte-lanak ikusi eta musika-piezak entzuteko jarduerak prestatu eta antolatu.
- Kulturarteko jaiak prestatu eta antolatu.
- Arte-hizkuntzak kultur talde desberdinek adierazteko eta komunikatzeko darabiltzaten bitartekotzat hartu.
- Era askotako kultur altxorak oinarritzat hartuta artearen fenomenoak duen izaera unibertsala onartu.
- Arte-alorreko ondare, mestizaje eta trukeak aztertu (musikan, pinturan...). □ Eguneroko kultur aniztasuna ordezkatzeko duten edota kultura desberdinetako artista ezagunen lanen erakusketa antolatu. □

Gorputz Hezkuntza arloko edukiei buruzko zenbait adibide:

- Kultura desberdinetako herri-jokoak.
- Kulturarteko harremanak sustatzen dituzten jokoak.

- Kultura desberdinetako joko eta kirolak.
- Kultura desberdinetako taldekako zein bakarkako jokoak aztertu.
- Kultura desberdinetako joko eta kirolak oinarri hartuta, joko eta kirol eredu berriak taxutu.
- Kultura desberdinetan erabiltzen diren erlaxazio-praktikak erabili.
- Kultura batetik bestera aldatzen diren komunikazio eta gorputz-adierazpen ereduak frogatu.
- Adierazpena, keinuak eta gorputzaren mugimendua kultura desberdinetako adierazpide gisa baloratu.
- Kultura desberdinetan osasuntsu sasoiaren egoteko erabiltzen diren kultur praktikak baloratu. □

Matematika arloko edukiei buruzko zenbait adibide:

- Matematika-hizkuntza era askotako kultur testuingurutan erabili.
- Kultura desberdinetan erabiltzen diren zenbakizko kode, neurri eta bestelako sistemak.
- Kultura desberdinetan kalkulurako erabilitako mota desberdinetako estrategiak.
- Buruzko kalkuluak egiteko estrategiak taxutu.
- Beren eguneroko ingurunean ohiko zenbakiekin eta eragiketekin sortu ohi diren arazoak konpontzeko mota desberdinetako estrategiak erabili, kultura bakoitzean erabilitakoetatik abiatuz.
- Doitasuna eta kalkulua egoeraren eta kulturen arabera nola baloratzen den.
- Neurri-unitate estandarrek erabiltzearen garrantzia baloratu.
- Arazoak ebazteko jarraitutako prozesuak ahoz eta idatziz azaldu.
- Arazo bera ebazteko erabilitako prozesu- eta estrategia-aniztasuna baloratu.
- Ingurunekeo datuei eta ingurune hori osatzen duten kultur taldeei buruzko grafiko estatistikoak egin.
- Estatistikez baliatu ingurunea eta ingurune hori osatzen duten kulturak sakonago ezagutzeko.
- Eguneroko bizitzako egoeretan arazoei irtenbidea emateko prozesuez baliatu.
- Inguruneari buruzko datuak bildu inkestak, neurketak, behaketa... erabiliz.
- Informazio estatistikoa tratatzeko teknikak erabili gizarte-ingurunetik ateratako informazioak modu kritikoan interpretatzeko. □

5. Ebaluazio-irizpideak

Arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideek bat etorri behar dute arlo horretako helburu orokorrekin, eta, bestalde, etapako helburu orokorrak ebaluatzeko balio behar dute. Helburu orokorrak eta edukiak kulturarteko ikuspegi batetik zehaztu direnez, ebaluazio-irizpideek ere bat etorri beharko dute ikuspegi horrekin. Beraz, Curriculum Garapenerako Dekretuko ebaluazio-irizpideak hartuko dira oinarriztat eta aipatutako helburu orokorretan eta oinarrizko edukietan kulturarteko alderdiak jasotzen direla egiaztatu eta, horren arabera, eduki eta helburuok zehaztu, egokitu edo osatuko ditugu.

Esate baterako, Lehen Hezkuntzako Natur eta Gizarte Ingurunearen Ezagutza arloko 5. ebaluazio-irizpidea honela egokitu daiteke:

5. Euskal Herriko bizitzaren ezaugarri nabarmenenak (etxebizitza, janzkera, lana, garraioa...) eta familiaren eta gizartearen antolamenduan izandako gertakari historiko batzuk denboraren arabera ordenatu eta beren bilakaera azaldu.

*5. Euskal Herriko bizitzaren ezaugarri nabarmenenak (**bertan bizi diren gizarte- eta kultur talde desberdinen etxebizitza, janzkera, lana, garraioa...**) eta **euskal gizartean, oro har, eta bertako talde desberdinetan**, familiaren eta gizartearen antolamenduan izandako gertakari historiko batzuk denboraren arabera ordenatu eta beren bilakaera azaldu.*

Era berean, hona Gaztelania eta Euskara arloko 11. ebaluazio-irizpidea:

11. Eskolako jarduerarekin lotutako egoeretan (talde-lanak, eztabaidak, ikasgelako biltzarrak, ikaskideen edota irakaslearen azalpenak...) partehartze aktiboa izatea (entzunez, besteen iritziak errespetatuz, bat etorritik, iritzi arrazoituak emanez...) eta egoera horietan trukea ahalbidetzen duten arauekin bat etortzea.

11. Eskolako jarduerarekin lotutako egoeretan (talde-lanak, eztabaidak, ikasgelako biltzarrak, ikaskideen edota irakaslearen azalpenak...) partehartze aktiboa izatea (beste kulturetako pertsonen entzunez, haien iritziak errespetatuz, haiekin bat etorritik, iritzi arrazoituak emanez...) eta egoera horietan trukea ahalbidetzen duten arauekin bat etorri eta gutxiengoan daudenak aintzakotzat hartzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko 10. ebaluazio-irizpidea honela osa genezake:

Adibidea:

10. Gure gizartean dagoen lanaren banaketa tekniko eta sozial handia, eta banaketa honek talde soziokultural batekoa edo bestekoa izatearekin (gutxiengo etniko batekoa, bereziki) duen lotura identifikatu, aztertu eta modu kritikoan baloratu eta jakituria hori egungo gatazka eta arazo sozioekonomikoak aztertze eta baloratzeko erabili.

21. irizpidean kulturarteko alderdi batzuk jasotzen dira, baina kultura desberdinetako kideek osatutako taldeetan parte hartzearekin lotutako bestelako alderdiak ere gehitu lekizkioke.

Adibidea:

21. Ezaugarri pertsonal eta kultural desberdinetako kideek osatutako talde bateko partaide gisa, egungo munduko gai gatazkatsuei (bazterketa-egoerak, indarkeri kasuak, gazteen arazoak...) buruzko txostenak idatzi eta eztabaidetan parte hartu eta alternatibak eman, komunikabideetatik lortutako informazioa zorrotzaz erabiliz eta norberaren adierazpenetan tolerantziaz eta elkartasunez jokatu.

Gauza bera egin beharko litzateke gainerako irizpide eta arloekin ere. Horrek ez du esan nahi irizpide guztiak kulturarteko ikuspegi batetik egokitu behar direla, irizpide horietako askotan alderdiok jasoak baitaude jada. Dena den, proposatutako helburu guztiak ebaluazio-irizpideren batean jasotzen direla ziurtatu behar dugu.

6. Metodologia

Atal honetan ondoko aldagai metodologikoen inguruko erabakiak hartuko ditugu:

1. Edukien antolamendua: Alegia, ikasleei edukiak nola aurkeztuko zaizkien: interes-gune edo proiektuen arabera orokortuta. Zati bat edo esparru batzuk orokortuta, hau da, Lehen edo Bigarren Hezkuntzako zenbait arlo uztartuz edo, bestela, Haur Hezkuntzako esparruei jarraiki; ikasleen esperientziatik abiatu eta edukiak arloka antolatuz eta arlo hauei buruzko ezagutza batzuk txertatuz edo elkarrekin lotuz...
2. Ikaskuntza-irakaskuntza sekuentziak: ikasgelan jarduerak lantzeko jarraituko den sekuentzia erabakitzeke zenbait irizpide komun erabaki, landuko diren edukien arabera.
3. Hezkuntza-ingurunearen antolamendua: espazioa, denbora eta ikasleen taldekatzea. Espazioak, ordutegi orokorra eta egunean zehar zer motako jardura orokorrak burutuko diren antolatzeko erabaki edo irizpideak.
4. Hezkuntza-elkarreraginak: Irakaslea-ikaslea eta ikaslea-ikaslea: den irakaslearen eta ikaslearen betekizuna zein izango eta ikasleak nola multzokatuko diren.
5. Hezkuntza-material eta -baliabideak: Materialak hautatu eta erabiltzeko irizpidea.

Kultura desberdinen eragina duen Haur Hezkuntzako ikastetxe bati buruzko adibidea:

- *Edukiak modu orokortuan landuko dira, interes-guneka antolatuta.*
- *Aurretiazko ikaskuntzetatik abiatuko gara beti eta gainerako edukiak prozeduretan oinarrituta antolatuko dira.*
- *Interes-guneok beren eguneroko esperientziarekin lotutako alderdiak jasoko dituzte eta era askotara landuko dira, jardueren zentzua edota helburua argi edukita betiere:*
 - ◇ *Denbora baterako egonkorrak diren baina epe luzera kultura desberdinak jasotzeko aldatuz joango diren "txokoen" bidez (esate baterako, hiruhileko batean erosketen txokoa merkatu txiki bat izango da, hurrengo hiruhilekoan denda bat eta hurrengoan supermerkatu bat; etxearen txokoan kultura desberdinetako panpinak eta arropak izango ditugu eta, ahal izanez gero, baita altzariren bat ere...).*
 - ◇ *Talde handian (biribilean jarrita) kultura desberdinetako gai, bizipen, ipuin eta*

abarren inguruan elkarrekin bizi izandako esperientziaren bidez. Egoera hau oinarritzat hartuta, banaka lan egiteko uneak antolatuko dira eta bertan jarduera gidatuak egiteko agindu zaie, eta, ahal delarik, barnekoarekiko berezko lotura bilatzen saiatuko dira, testuinguru batetik kanpo eta isolatuta beharrean, beren esperientziarekin lotutako esanahia emateko modukoak alegia.

- *Banaka zein txokoetan (aukera honetan bakar-lana eta talde-lana uztar ditzakegu) lan egiten denean ikasgelan bi pertsona heldu egon daitezten saiatuko gara, ondoko helburuak betetzeko:*
 - ◇ *Elkarreraginak eta komunikazioa sustatzea, bai ikasle bakar batekin, bai euren artean, gure ikastetxearen helburu nagusietako bat komunikazioa sustatzea dugula gogoan izanik.*
 - ◇ *Banakako irakaskuntza burutu ahal izatea, alegia, banakako planak eta jarraipena egin ahal izatea.*
 - ◇ *Ahalik eta ikasle gehieneri edo talde handienari laguntzea lanak burutzen.*
 - ◇ *Egiten ari direnari buruz gogoeta egiten eta erabakiak hartzen laguntzea.*
 - ◇ *Sortzen diren gatazkatxoak konpontzen laguntzea.*
 - ◇ *Prozesuan egindako lorpen eta ahaleginak baloratzea.*
 - ◇ *Jarduerak burutzeko erabiltzen dituzten estrategia pertsonalak (edo kulturalak) behatzea.*
 - ◇ *Akatsak behatzea, kausak aztertu eta arrakasta lortzeko bide egokiak eskaini ahal izateko.*
 - ◇ *Garatu nahi diren jarreraren ereduak ematea: begirunea, onespena, hausnarketa kritikoa, bereizkeriaren aurkako konpromisoa...*
- *Talde txikian, handian eta bakarrik egindako lana uztartuko da. Azken kasu honetan talde txikitik bildu daitezten bultzatuko dugu, horrela, elkarreraginak eta laguntzarako harremanak sustatzeko.*
- *Denbora-egituraketa finko samarra egongo den arren, ordutegia malgua izango da programatutako jardueren, hauen arrakastaren eta sortzen diren premien arabera.*
- *Materialek, ipuinek... kultura desberdinetako ezaugarriak jasoko dituzte.*
- *Beste etapa batzuetako ikasleen gurasoek eta komunitateko edota elkarteetako beste pertsona batzuek parte har dezaten saiatuko gara, bai materialak prestatu eta biltzeko, bai ikaslearen eguneroko esperientziaren berri jasotzeko, bai ikasgelako jardueraren batean parte hartzeko.*

Haur Hezkuntzako adibide hau Lehen zein Bigarren Hezkuntzara egokitu dezakegu, zenbait helburu berdinak baitira. Bigarren Hezkuntzan egokiago izango da ondokoak jorratzea:

- interes-guneen ordezkari proiektu edo ikerkuntzak
- programazio negoziatua
- biltzarrak, eztabaidak
- arloetako batzuk zenbait alderdi orokortzeko aukera ematen duten arloetan bildu
- ikasleen interes eta premia desberdinak aseko dituzten aukerako irakasgaien eskaintza zabala
- ikaskuntza sekuentziatzeko modu bat arazoei irtenbidea ematea dugu
- jardueren sekuentziak talde baten garapen-prozesua gidatu dezake: hasierako uneetan elkar ezagutzearekin zerikusia duten jarduerak guztiak programatu eta jarraian, talde-lan batean banakako partaidetza eskatzen duten beste batzuk egingo dira ez (bakoitzak oso zeregin zehatza burutu beharko du). Beste une batean, taldean antolatu eta komunikaziorako zenbait gaitasunez baliatzeko eskatzen dutenak... Sekuentziazio hau, dena den, ez da lerro bati jarraiki antolatuko, zirkulu moduan eta malgutasunez baizik, aurrerago elkar ezagutzea sakonago landu ahal izateko moduan (taldeko kide bakoitzaren egoeraren arabera).

***V. KAPITULUA: IKASGELAREN
PROGRAMAZIOA. LAN PROPOSAMEN BAT***

Hezkuntzari dagokionean programatzea zera da: *“zenbait jarduera testuinguru eta denbora jakin batean kokatzea helburu batzuk lortzeko behar diren eduki batzuk irakasteko”*, Imbernon, F. (1992).

Ikasgelako programazioak Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta Ikastetxearen Hezkuntz Proiektuan jasotako hezkuntzazko helburuak taxutuz eta burutuz joateko aukera ematen die irakasleei. Era berean, irakasleen egitekoa bideratzeko gida ere bada eta irakasle-taldeak programazio horren garapena ebaluatu beharko du.

Hezkuntza alderdi ugariakoa, aldakorra eta kokagune jakin baten arabera dela gogoan izanik, programazio orok proiektu malgu eta irekia beharko du eta etengabe hausnartu beharko dugu proiektu horri buruz, irakasleek bere egitekoaren hipotesiak planteatu, jardunean egiaztatu eta hausnarketa eta ebaluazioaren arabera aldatu ahal izan dezaten.

Ikasgelaren programazioan bi atal bereiz ditzakegu: batetik, ikasturte edo zikloko programazio osoa biltzen duena eta erreferentziatzen hartzen dena eta, bestetik, aldi laburretarako (astebete, hamabostaldia, hilabete) programazioak garatzen direnekoa.

Atal honetan hamabost bat eguneko aldi labur baterako adibide bat garatzen saiatuko gara. Proposamenari zentzua emateko ikasturteko edo zikloko programazio orokorraren eta ikastetxearen hainbat ezaugarri aintzat hartu beharko ditugu, kulturarteko ikuspegi batetik betiere.

Txosten honetan ez dizuegu arlo bateko unitate didaktiko bat, batetik, eta, bestetik, kulturartekotasuna, beste kulturekiko begirunea edota besteak onartzea lantzeko alderdiak jorrazteko jarduera jakin batzuk aurkezten, kultura desberdinetako ikasleak elkarrekin dauden Lehen Hezkuntzako ziklo bateko curriculumun arrunteko edukiak jorrazteko hamabost egunerako lan-proposamena baizik. Mota desberdinetako kultur ezagutza duten ikasle guztiak uztartuz lantzen da curriculum arrunta eta ezagutza hori onartu, errespetatu eta denon artean aberastu egingo da, kultura desberdinen arteko trukeari esker.

Era berean, irakasleek etaparen arabera aldatzen diren helburu jakin batzuk lortu

behar dituzte eta, horretarako, ikasle guztiak aukera berak izan ditzaten saiatu beharko dute.

1. Proposamenaren kokapena

Hemen aurkezten dizuegun proposamena Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin jorrazteko pentsatua dago, zehazkiago ziklo horretako bigarren ikasmilako ikasleekin. Aurkezten dizkizuegun edukiak eta duten zailtasuna gogoan izanik, egokiena Lehen Hezkuntzako 2.eko lehen hiruhilekoan, eta zehazkiago aldi honen amaiera aldean (azaroan) ekitea litzateke.

Proposatzen dizuegun ikasgelaren programazioa hamabost egunerako da eta arloetako edukiak lantzeko mota desberdinetako antolamenduak eskaintzen dizkizuegu. Hizkuntza arloko proiektu baten inguruan, lantegien edo hizkuntza, matematika, ingurunearen ezagutza eta arte-hezkuntza arloetako edukiak lantzen diren txokoen inguruan eta arlo batzuetako berariazko edukiak edota trebetasun instrumentalak lantzen diren bestelako uneen inguruan antolatzen dira edukiak.

Proposamena hobeto kokatzeko ikastetxearen IHPko eta ICPko zenbait atal aurkeztu eta hamabostaldi baterako proposamen hau urte osorako programazioan kokatzeko egitura azalduko dugu.

ICPren baitako testuinguruaren ebaluazioaren osagaiak

Ikasgelaren programazioa egiterakoan ICP gogoan hartu dela suposatzen den arren, eta ICP horretako osagai asko eta asko aintzat hartu behar diren arren, hemen gure adibidea kokatu eta ulertzeko garrantzizkoak direnak besterik ez ditugu aipatuko.

Ikastetxea eta bere ingurunea:

Ikastetxea gainpopulazioa duen (10.000 biztanle inguru) auzo batean kokatutako Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola bat dugu, bertako biztanle gehienak eskola-adineko seme-alabak dituzten bikote gazteak dira. Berriki sortua da ikastetxea (orain dela 20 urte) eta inongo plangintzarik gabe eta lurzorua ahal bait gehien erabiltzeko irizpideari jarraiki antolatua dago; horren ondorioz jolaserako eta aisialdirako espazio libreak falta zaizkigu. Etxebizitzetara dagokienez, babes ofizialekoak eta txiki samarrak dira. Auzoak nolabaiteko berezko bizitza du eta eskolak leku garrantzitsua du ikasleek, ikasle izandakoek eta auzoko bizilagunek antolatutako eskolaz kanpoko jarduera soziokultural eta kirol jarduera ugari eskaintzen baititu.

Ingurunearen azterketatik zera ondoriozta dezakegu: ikastetxea hirigunean dago kokatua, berdegune gutxi ditu, industri sektorea da nagusi, gehienak langile koalifikatuak dira, baina Euskal Herriak bizi duen industri narriaduraren ondorioz, langabezia izugarri handitu da azken urteotan.

Maila sozioekonomikoari dagokionez, erdi-behe mailakoa dela esan dezakegu, gurasoek lehen mailako ikasketak dituzte eta gehienek lanbideren bat dute. Langabeziak etxean lan egiten zuten ama asko aldi baterako eta orduzkako lanak egitera bultzatu ditu eta, ondorioz, familiako kide guztiek familiaren ohitura, erritmo eta erreferentzia berrietara egokitu behar izan dute.

Ikastetxeko ikasleak:

Ikastetxeak bitik hamabi urtera bitarteko 384 ikasle ditu, auzokoak eta herritik urrutixeago dauden beste ingurune batzuetakoak; izan ere, A eta D ereduak eskaintzen ditu eta azken eredu hau udalerriko bi ikastetxetan eskaintzen da soilik.

Azken urteotan ugaldu egin dira gutxiengo etnikoetako ikasleak (ijitoak, ekialdekoak, afrikarrak...), egun %5 osatzen dutelarik.

Hezkuntza premia berezikoak dituzten bost ikasle ditugu.

Azken urteotan berezitako gurasoak dituzten ikasle-kopuruak gora egin du nabarmen.

Ikastetxeko ikasleek, auzoak eta gurasoek ikastetxearekiko errespetuzko jarrera positiboa dute oro har.

Ikasgelaren urteko/zikloaren programazioan jasotako elementuak

Taldea osatzen duten ikasleak:

Taldean hogeit hamar neska-mutil ditugu, hauen artean 3 ijito eta Magrebko bat. Gure taldea ari da pixkana ikaskideen artean integratzen eta adiskidetasuna baloratu egiten dute.

Taldeko haurrek era askotako interes, zaletasun eta motibazioak dituzte, eta mugitzeko eskatzen duten jarduerak dituzten gogokoen (bi haurren kasuan premia bihurtu da ia-ia). Bestalde, ikasleek etorkizunera begira dituzten igurikapenak ere era askotakok dira, batzuek familiaren ildoari jarrailu nahi diote, beste batzuek nahiago dituzte sendagile, abokatu eta antzeko lanbide liberalak, baina lortzen zail samarrak direla uste dute. Ikasgelan ikaskuntza-erritmo desberdinak ditugu eta neskato bat nabarmendu egiten da, gaitasun handiegiak dituela esaterik ez dagoen arren, lanean eta edukiak bereganatzen oso bizkorra baita. Beste ikasle bat, berriz, berriki eskolatu dute (iaz hain zuzen ere).

Ikasle-taldearen ikaskuntza-erritmo desberdinei erantzuteko proposamena:

Ikasgelako metodologian ikasleen ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzen dira, ikasle bakoitzari dagoen tokitik bertatik erantzun ahal izateko proposamen zabalak egiten saiatzen baikara. Horrez gain, ohiko lanetan eta une jakinetan banakako laguntza eskaintzen zaie etengabe.

Ikastetxean laguntza-gela bat dugu baita ikasleek ikasgelatik atera behar izan gabe, ikasgela arruntean laguntzen duen eta bertan laguntza material eta pertsonala eskaintzen duen irakasle bat ere. Irakasle hau astean hiru saiotan (ordubetez) aritzen da ikasgela arruntean eta ikasgelako irakaslearekin batera koordinatzen du bere laguntza.

Bestalde, elkarlanean aritzen dira oro har, eta beste une batzuetan parekoen arteko tutoretza burutzen dugu: ikasle guztiek egin behar dute tutore-lana, une desberdinetan eta burutu beharreko jardueraren arabera, eta ikasle bakoitzak besteei erosoan burutzen duen horretantxe lagun diezaizkietela saiatzen gara. Proposamen honen gaineko kontrola ikasgelako irakasleak egiten du.

Ikaskuntzen funtzionaltasun eta esanguratsutasuna: ikasgelan lantzeko proposatutako edukiak esanguratsuak eta funtzionalak izan behar dute.

Edukiak esanguratsuak izango badira, barne-koherentzia behar dute eta ikasleen aurretiazko ezagutzekin bat etorri behar dute, ikasitakoari zentzua eman eta ikaskuntzarekiko aldeko jarrera sortzeko.

Funtzionaltasunak bere gizarte-taldeko kultur ezaugarriekin bat datorrela esan nahi du, alegia, ikasleak modu aktibo eta kritikoan eta sormenez parte hartu eta ikasitakoa bere denbora-espaziozko ingurune egoera praktikoetan erabili ahal izango duela.

Unitatearen gaia eta proposatutako jarduerak aukeratzekoan bi ezaugarri horiek aintzakotzat hartu dira.

2. Ikasgelaren programazioa

Ikasgelaren urteko programazioan arlo desberdinetako edukiak ikaskuntza-egoera jakinen inguruan uztartzeko aukera ematen duen antolamendua finkatu dugu, ikasleek egoera horiek ebatzi edo lantzeko mota desberdinetako edukiak erabili behar izan ditzaten.

Honela, programazioa lau lan-ardatzen inguruan antolatu dugu: ikasgelaren gizarte-antolamendua, proiektuak, lantegiak eta arloetako berariazko lana. Aurrerago sakonago azalduko ditugun lan-ardatz hauetan ondoko irizpideei jarraitu zaie:

- a) Ahal den neurrian ikuspegi orokortzaile bat erabiliko dugu, behar den guztietan planteamendu analitikoagoak egiteko aukera izanik. Honela, egokiago erantzuten zaie kultura desberdinetan eta adin honetako ikasleengan aurki daitezkeen ikasteko modu desberdinei. Arlo desberdinetako edukiak ikasiz ebatzi beharreko egoerak edo proiektuak proposatzen zaizkie ikasleei.
- b) Bestalde, lan sistematikoa eskatzen duten eta kasu guztietan egoera orokortuetan txertatu ezin diren arloetako zenbait eduki lantzeko berariazko trataera burutzen dela ziurtatu beharra dago.
- c) Proposatzen diren jarduera guztietan kulturarteko ikuspegia jaso beharko da eta ez dira soilik une jakin batzuetan edo arloren batzuk aldi berean garatzean landuko.
- d) Ezinbestekoa da ikasgelako ikasleen artean dugun aniztasunari ikuspegi guztietatik heltzea: gaitasun, interes, motibazio, **kultura**, jatorri desberdina izango baitute ikasleek. Bestalde, ikasgelan ditugun kulturen artean elkarrizketa eragiten saiatu beharko dugu etengabe eta horretarako elkarlanean oinarritutako ikaskuntzaz balia gaitzke..
- e) Ikasleei etorkizunerako igurikapenak sortu behar zaizkie eta, bestetik, batzuentzat arruntak izanagatik, beste batzuentzat, berriz, ezezagunak diren mota desberdinetako baliabideak eskaini behar zaizkie ikasle batzuei (teknologia berriak...).

Lantegietan era askotako edukiak lantzen dira: Arte Hezkuntzarekin lotutako trebetasunak, osasun-azturak, irakurketa sortzailea, matematikazko edukiak, ingurunearen ezagutzarekin lotutako esperientziak....

Arloko berariazko lana. Edukiak antolatzeko hiru ardatz hauek (gizarte-antolamendua, proiektuak eta lantegiak) garatzean hizkuntz, matematika, plastika, musika eta gorputz alorretako edukiak jorratzen dira. Honela bada, zeregin guztiak ikasgelaren gizarte-antolamendurako zein proiektu eta lantegietarako ezinbesteko tresnak ditugu. Dena den, ezin dira arloetako eduki guztiei hemen aipatu ditugun hiru ardatzetatik jorratu eta, horrenbestez, laugarren ardatz bat proposatzen da programazioan: **arlo jakin bati lotutako eta berariazko uneetan lantzeko ardatza.** Hortaz, arlo desberdinetako edukiak ikuspegi bikoitzetik lantzen dira: ikasgelaren gizarte-antolamenduan, proiektuetan eta lantegietan sortzen diren testuinguru desberdinetako ikaskuntzen euskarri gisa, batetik, eta, honen osagarri, bestelako ikaskuntza-egoeretan berariazko lana burutzeko, bestetik.

Ikasgelako urteko/zikloko programazioaren gizarte-antolamenduari buruzko adibidea:

*Esparru honetan bi alderdi nagusiri helduko zaie: **ikasleak taldean sozializatzea eta bere kasa lan egiteko ohiturak hartzen hastea.** Hona antolamendu honen egitura:*

Ikasgelako biltzarra. Ondokoak burutzeko lan-esparrua:

- ikaskide guztien arteko komunikazio eta elkarriketa eragin.
- denon artean funtzionamendurako arauak bateratu.
- erantzukizunen gaineko jarraipena egin.
- proposamenak aurkeztu.
- lan-plana aztertu eta xehetasunak argitu.
- gatazkak konpondu.
- zalantzak adierazi.
- egindakoa aztertu eta lana ebaluatu.

Ikasgelaren kudeaketaren gaineko erantzukizuna. Oinarrizko lan-talde desberdinek hamabostaldi baterako erantzukizunak izango dituzte eta arduradunek agindutako lanak bete eta, aldia igarotakoan, beste batzuek burutuko dute zeregin hori, ziklo osoan zehar ikasgelako ikasle guztiek lan guztiak burutu eta lanon onura eta zailtasunak frogatu izango dituztelarik. Ondoko zereginak bete beharko dituzte besteak beste: landareak, egutegia eta liburutegia zaindu, bere taldean materiala banatu, taldearentzako informazio-orriak bildu...

Lan-taldeak. *Ikasleak launakako lan-taldeetan banatuta daude, ikasgelan bost talde*

ditugu beraz. Taldeak bi hilabete inguru mantenduko dira. Taldeek osaketa heterogeneoa dute eta ikasleen nahiak, batetik, eta irakasleak proposatu eta taldeak eztabaidatutako beste erabaki batzuk, bestetik, uztartuko dira. Taldeak neskez eta mutilez osatuko dira eta, ahal delarik, ikasleak ez dira aurreko aldian bezala multzokatuko. Zikloan zehar ikasle guztiek elkarrekin taldean lan egiteko aukera izan dutela bermatu beharra dago, guztiek ikasle desberdinen ekarpenekin aberastu ahal izateko aukera izan dezaten.

Denon materiala: Ikasgelan erabiltzen den material guztia ikasle guztiek erabil dezakete, ez baitago inorena den materialik. Gauza pertsonalak etxean lan osagarrietarako erabil ditzatela eskatuko zaie. Testulibururen bat izango da salbuespen bakarra, gainerakoa (arkatzak, guraizeak, axotak, kartulinak, kola, ipuinak...) denona da.

Ikasgelako espazioa norberaren espazio gisa. Garrantzitsua da ikasleek ikasgelako espazioak banatu, dekoratu eta zaintzearen inguruko erabakietan parte hartzea.

Espazioaren, denboraren eta ikaslearen antolamendua. Hemen aurkeztutako ikasgelaren eta denboraren banaketa, ondoko helburuak lortu behar direla gogoan izanik egin da:

- ikasgelan irakasle-ikasleen eta ikasle-ikasleen arteko elkarreragina sustatzea.
- ikaskuntza autonomoa sustatzea, horretarako, autonomia pertsonalerako ohiturak sustatuz; zereginak burutzea, materiala...
- ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzea.
- ikasle guztiak, une guztietan ikasten ari direla ziurtatzea.
- mota desberdinetako edukiak gogoan izatea.
- mota desberdinetako jarduerak eta jarduerok antolatzeako modu desberdinak aintzat hartzea.
- estetika zaintzea, ikaskuntza errazteko bitarteko gisa.
- uneoro egiten dena eta zergatik egiten den azaltzea.
- zikloan zehar malgutasunez jokatzeko.


Elkarreragina, elkarlanean oinarritutako ikaskuntza, norbere buruaren gaineko estimua eta nork bere burua ebaluatzea ahalbidetzeko moduko multzotan banatuko dira ikasleak.

Ordutegiari buruzko adibidea:

	Denbor a	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Goiza 9-12'30	15'	Biltzarra: antolatzeko eta plangintza egiteko denbora				
	30'	Arloetako berariazko lana/trebetasunen garapena				
	60'	Lan-proiektua				
	30'	JOLASORDUA				
	75'	Lantegiak				
Arratsa 15-16'30	45'	Gorputz Hezkuntza	Arloetako berariazko lana	Arte Hezkuntza (Plastika/Antzerkia)	Arloetako berariazko lana	Arloetako berariazko lana
45'	* Erljioa/ Alternatiba		Arte Hezkuntza (Musika)	Gorputz Hezkuntza	* Erljioa/ Alternatib a	

Espazioa:

- | | | |
|-------------------------|----------------------|-------------------------|
| 1.- irakaslearen mahaia | 4.- armairuak | 7.- arbela/pantaila |
| 2.- ikasleen mahaiak | 5.- armairuak-apalak | 8.- liburu-erakustokiak |
| 3.- ordenagailua | 6.- artxibategia | 9.- alfonbra |



3. Hamabostaldi baterako lan-proposamena: *Kontaidazu ipuin bat*

Jarraian hamabostaldi baterako lan-proposamena azalduko dizuegu, eta horrekin batera, hasierako ebaluaziorako iradokizunak, helburu eta edukien inguruko proposamenak eta burutu beharreko zeregin eta estrategiak ere aurkezten dizkizuegu. Hamabostaldi batean burutu daitekeena baino estrategia eta jarduera sorta zabalagoa proposatzen dizuegu atal bakoitzean, egoera bakoitzaren, ikasleen interesen, eskueran dauden baliabideen... arabera egokienak hautatu edo beste batzuk taxutu ditzazuen.

3.1. Hasierako ebaluazioa

Hasierako ebaluazioa edozein lan-proposamenei ekin aurretik burutu beharreko prozesua dugu. Lanean ari gareneko ikasle-talde honek dituen ezagutza, gaitasun eta jarrereri buruzko informazioa lortzea da hasierako ebaluazio honen helburua.

Hasierako ebaluazioak aurreko unitateetan planifikatu eta garatutako oinarrizko edukiak eta landu nahi diren eduki berriak hartzen ditu oinarritzat. Ebaluazioa burututakoan, lortutako informazioa aztertu eta, horren arabera, planteatu nahi den unitatearen jarduerak, sekuentzia edo planteamendu metodologikoa taxutu, egokitu, aldatu edo berregin egingo dira.

Hasierako ebaluaziorako balio duten jarduerak proposatzerakoan eta ikasleek teoriar barneratuta dituzten oinarrizko edukietatik abiatzean, gerta liteke haien kultur jatorria, eskolatzea eta beste aintzat ez hartzea. Horregatik bada, ikasleei era askotako jarduerak proposatuko zaizkie jarduera hauek modu desberdinetara eta estrategia desberdinak, beren aurreko ezagutzak (hezkuntza formalean eskuratutakoak izan ala ez, kultura nagusikoak izan ala ez) eta abar erabiliz burutu ahal izan ditzaten.

Ikasle-taldearen eta aldi honetan lantzeko proposatutako helburuen arabera estrategia, jarduera eta hasierako ebaluazioa egiteko modu bat ala beste erabiliko dugu. Atal honetan erabil ditzakezuen hainbat iradokizun proposatzen dizkizuegu. Gogoan izan behar dugu beti ez garela azterketa bat egiten edo judizio-balio bat ematen ari, ikasleek proposatuko ditugun zenbait eduki barneratuta ote dituzten ikusten baizik, eta

ebaluazio hau dagozkion egokitzapenak egiteko erabiliko dugu. Ebaluazio honek, bestalde, ikasleek taldeari eskain diezaizkieketen ezagutza erreal eta positiboen berri ere emango digu.

⇒ ***Hizkuntza arloari dagokionez:***

Ikasleak landuko den testuaren (ipuin bat) inguruan dituen ezagutzak ezagutu nahi ditugu, batetik, eta idazmen-sistemaren ingurukoak, bestetik. Horretarako jarduera bat edo batzuk egin daitezke bai bakarka bai talde txikietan. Garrantzi handikoa da giro lasaia eta konfiantzazkoa izatea eta ez dezatela azterketatzat hartu.

Hizkuntza arloko hasierako ebaluaziorako zenbait adibide edo iradokizun:

- *Ezagutzen eta gustatzen zaizkien ipuinei buruz lasai hitzegin, elkarrizketa lasaia izateko.*
- *Ezagutzen dituen ipuinen zerrenda egiteko eskatu eta ikasleek beraien hautatutako irizpideren baten arabera sailkatzeko (irizpide bat zer den argi dagoen egiaztatu); orriak, arkatzak, borragoma... eskaini.*
- *Ikasleak zerrenda egiteko erabilitako idazkera oro onartu eta onetsi egingo da.*
- *Bakoitzak gehien edo gutxien gustatzen zaion ipuina hautatu eta ipuinaren hasiera idazteko eskatu. Idazten ari diren bitartean lagundu, egiten ari direnarekin bat gatozela adieraziz.*
- *Irudiak baino testu gehiago dituen ipuin-liburu bat eskaini eta ipuin horretan agertzen diren pertsonaien izenen zerrenda egiteko eskatu. Kultura desberdinetako ipuin desberdinak eskaini.*
- *Hautaketa egiteko modua, erabilitako estrategia edo baliabideak, testua osorik eta lerroz lerro ala saltoka, letra larriak bilatuz irakurtzen duen, irudien laguntza erabiltzen duen eta abarren berri jaso (aski da pare bat parrafotan bilatzea).*
- *Egin nahi dugun zereginerako parrafo bat hautatu, lehen hezkuntzako lehen zikloan gaudela gogoan izanik, aurreneko parrafoa hautatuko dugu (burutu beharreko zereginaren arabera mailakatu baitezakegu), eta isilik irakurtzeko eskatuko diegu.*
- *Nola irakurtzen duen berri jasoko dugu: marjinak aintzat hartzen dituen, lerroz lerro irakurtzen duen, ezpainak higituz laguntzen den, irakurtzen ari dena hatzaz jarraitzen duen,... eta bukatu duela antzematen zaionean, parrafoak zer dioen argitzeko eskatu eta berak esandakoa jasoko dugu.*

Mota honetako ebaluazioak ikasleek mota honetako testuiei buruz, ipuina alegia, duen ezagutzaren eta idazmen-sistema nola darabilen, hots, nola idazten eta irakurtzen duen berri ematen digu. Jaso dugun informazioak erabiltzen dituen

estrategiak ezagutzeko aukera ematen digu eta informazio hau oso erabilgarria da gerora proposatuko zaion lana burutzeko behar dituen laguntzak zeintzuk diren jakiteko.

⇒ **Matematika arloari dagokionez:**

Matematika arloko edukiak lantzeko mugimenduak deskribatu, manipulatu, irudikatu, bereiztu eta imajinatu eta planotik espaziora eta espaziotik planora igaro behar da, besteak beste.

Zenbait irudi eta gorputz geometriko, espazio-irudikapenak, dirua, txanponen baliokidetasunak, batuketak eta kenketak landuko dira. Proposatutako ariketek ikasleek alderdion gainean duten ezagutzaren berri emango digute:

Matematikako hasierako ebaluaziorako zenbait adibide edo iradokizun:

Behaketa- eta hautemate-jarduerak:

- *Talde txikietan gorputz geometrikoak banatu eta manipulatu, jolastu eta, nahi izanez gero, izenak jarri beharko dizkiete. Gehien gustatu zaizkien biak irudikatu eta margotu ahal izango dituzte. Zirkulu, triangelu, lauki edo lauki zuzen bat ikusteko nondik begiratu behar den galde dakieke.*
- *Objektuak ikuspuntu desberdinetatik erakusten dituzten diapositiba edo marrazkiak erakutsiko zaizkie. Ikusten dutena hitzez adierazi beharko dute, horretarako “argazki hau nondik egin dugu?” galde dakieke, beren iritzia azaldu dezaten eta eztabaida sustatzeko.*
- *Domino-jokoak: talde txiki edo handian dominoan jokatu. Dominoak objektuak ikuspuntu desberdinetatik aurkezten ditu.*

Eraikuntza- eta osaketa- jarduerak:

- *Polikuboekin eraikitako zenbait irudi erakutsi eta hurrek ere irudi horiek eraikitzen saiatu beharko dute. Irudiek ez dituzte 10 kubotxo baino gehiago izango eta ageri-agerian egongo dira uneoro. Galderen bidez irudia eraikitzen hasi aurretik arretaz begiratu dezaten saiatuko gara. Ariketa hau binaka edo hirunaka egin dezakete, elkarreaginaren bidez elkarlana eta ikuspegi desberdinen arteko osaketa sustatzeko.*
- *Posizio desberdinetan kokatutako irudi-segidak osatu.*

Erlazio- eta deskribapen-jarduerak:

- *Gorputz geometriko bat eta bere marrazkia azpitik ikusita (fitxa) erlazionatu.*

Aurretiaz fitxan azaltzen diren gorputzak manipulatu egingo dira.

- *Aurreko gorputz geometrikoak eta ingurune hurbileko objektuak erlazionatu.*
- *Orientazioa lantzeko jarduerak:*
 - *Taldearekin batera eskolan barrena ibili eta ondoren eskolako planoaz aztertu eta ikasgela, liburutegia, sarrera eta jolastokia non dagoen adierazi. Bide motzak eta luzeak irudikatu.*
 - *Bidea egiaztatu egingo da berriz eta ondoren ikasgelatik urrutien eta gertuen dauden lekuetara, liburutegira, jolastokitik-ra dauden bideak irudikatu beharko dituzte.*
- *Ondokoak irudikatu:*
 - *plano batean tik rako bidea*
 - *mahaia goitik ikusita*
 - *aulkia aurretik ikusita*

Diruari buruzko jarduerak (100 pezetatik beherako txanponekin):

- *1, 5, 10 eta 25 pezetako txanponak eskaini eta 50 pezeta elkartu arte txanponak hartzeko esango zaie.*
- *Kromoak 85 pezeta balio du eta Jonek bat erosi du. Ordaintzeko erabil daitezkeen txanponak adierazi. Aukera desberdinak bilatu.*
- *Salneurriak agerian dituen feria bateko saltoki baten argazki edo marrazkia erabiliz mota desberdinetako objektuak erosteko proposatu eta ordaintzean ahalik eta txanpon gutxien erabilzeko.*
- *Ebazpen desberdinak bilatu. 25 pezetako bost txanpon eta 10eko birekin, zenbat diru lor daiteke denak erabili behar ez badira?*

Oso garrantzitsua da ikasleek arazoak ebatzi eta konponbideak bilatzeko erabilitako estrategiei erreparatzea. Konponbide bakar bat baino gehiago bilatzeko eskatuko zaie. Era askotara aurkez daitezke erabili beharreko materiala, bideak, estrategiak, emaitzak: paperaren bidez, ahoz, objektuak manipulaturaz... eta guztiak onartukoko dira baita egindakoa zuzenetsiko ere. Lortutako emaitza edo erabilitako bitartekoa harrigarria bada, galderen bidez erabilitako strategiaren berri arakatu.

3.2. Arloetako irakas-helburuak eta edukiak

	IRAKAS- HELBURUAK	EDUKIAK		
		KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
Hizkuntza arloa	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Narrazio-testu bat (ipuin bat) entzun eta orokorrean ulertzea ▫ Norberaren esperientzia eta sentimenduak ahoz modu ordenatuan adieraztea ▫ Hizkuntz aniztasunaz jabetzea ▫ Testuetako zenbait osagai manipulatzeko, duten garrantzi eta erabilgarritasuna ezagutzeko 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Idazmenaren norantza eta norabidea: hizkuntza desberdinak erkatu: gaztelania, euskara, ijito-hizkera, arabiera. ▫ Irakurtzen eta idazten ikasten ari garen hizkuntzan hitzak nola bereizten diren. ▫ Letra bakoitzak hartu ditzakeen itxurak bereiztea: apaingarria... 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Testu-motak identifikatzea: narrazio-testua. Ipuinaren euskarria. Izenburua, autorea. ▫ Ipuin bateko pertsonaiak identifikatzea. ▫ Zenbait ezaugarri fisiko eta psikologiko deskribatzea. ▫ Ipuin baten adierazpen-aukerak arakatzeko, antzezpenaren bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Gizartearen (eta ingurunearen) izaera eleanitzaren balorazio positiboa. ▫ Hizkuntz aldaera desberdinak erabiltzearekiko begirunea eta balorazio positiboa. ▫ Besteen ideien adierazpenekiko begirunea. ▫ Ahozko lengoaiako baliabideak (keinuak, gorputzaren mugimenduak) erabiltzeko joera.
Matematika arloa	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Beren eguneroko bizitzan konpontzeko oinarrizko kalkulu-eragiketak (batuketa eta kenketa) erabiltzeko eskatzen duten egoerak antzematea eta dagokien algoritmoak erabiliz ebaztea ▫ Egungo moneta-sistemako baliokidetasunak erabili eta eguneroko bizitzako egoera eta arazoak konpontzea. ▫ Bere ingurune hurbileko irudi geometrikoak identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Egungo moneta-sistema: indarrean dauden txanponak (100 pezetaraino). ▫ Eragiketak: batuketa eta kenketa. ▫ Irudi espazialak: kuboak, zilindroak, konoak eta esfera. ▫ Irudi lauak: irudi biribilak, lauak, lauki-zuzenak eta hirukiak. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Indarrean dauden txanponak ezagutu eta erabiltzea eta baliokidetasun errezenak ezagutzeko. ▫ Erabilitako txanponen balioa zenbaki eta letren bidez idaztea. ▫ Irudi lauak behin eta berriz agertzen diren elementuak bilatzea. ▫ Gorputz geometrikoak beren forma eta funtsezko ezaugarrien arabera erabiltzeko hastapenak ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Arazo batentzako konponbidea aurkitu arte aritzea. ▫ Txanponak erabiltzean egiten diren kalkuluen garrantziaz jabetzea. ▫ Egoerak, orientabideak eta espazioko loturak oinarrizko hizkera geometrikoa erabiliz deskribatzeko interesa.

	IRAKAS- HELBURUAK	EDUKIAK		
		KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
Natur eta gizarte ingurunearen ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Beren gizarte-taldeko, familiako, lagunarteko kide dela konturatzea eta baloratzea. ▫ Kultura desberdinetako familien elikadura-ohiturak bereiztea. ▫ Hurbileko inguruneako animaliak eta basokoak bereiztea eta beren ezaugarri batzuk aztertzea. ▫ Sukaldeko zenbait material eta tresna erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Osasuna: elikadura eta hazkuntzan duen eragina. ▫ Elikaduraren eta kulturaren arteko lotura. ▫ Animaliek pertsonen dakarkieten onura. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Pertsona ezagunen elikadura-arloko gustuei buruzko datuak eta informazioa bildu. ▫ Ikasgelan eta ingurunean bizi diren kulturetako mota desberdinetako elikadurei buruzko informazioa bildu. ▫ Sukaldaritzako errezeta erraz bat prestatu eta burutu. ▫ Laminen eta ikusentzunezko materialen bidez animaliak identifikatu. ▫ Sailkapena: basapiztiak eta etxabereak kultura desberdinetan. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Elikadura osasungarria hartzeko hastapenak. ▫ Beste kultura eta herrietako elikadura-arloko desberdintasunekiko begirunea. ▫ Animaliekiko begirunea. ▫ Etxabereak zaintzeko ardura hartzea.
Arte Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Ipuintxo bat edo ipuin horretako eszenaren bat txotxongiloaren bidez antzeztea. ▫ Ikasgelako kulturetako kanta tradizionalen bat identifikatzea. ▫ Kulturotako musika-tresnen bat bereiztea (txistua, danbolina, txalaparta, /ud, tar, derbika/, pandereta, gitarra) 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Antzerki hizkuntzaren funtsezko osagaiak. ▫ Ingurunea: norberaren eta hurbileko espazioa, objektuak. ▫ Ahotsa: intonazioa. ▫ Euskal Herria, Magreb eta ijitoen kulturako haur-kanta tradizional batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Antzerki-alorrean bat-batean jarduteko hastapenak. ▫ Objektuak (txotxongiloak) erabiltzea, bakoitzaren asmoetara egokituz. ▫ Musika-pieza eta zatitxoak entzuteko hastapenak. ▫ Soinua aztertzekeo hastapenak: altuera eta iraupena antzematea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Lotsarik gabe eta bat-batean keinuak egin eta mugitzea. ▫ Ahotsa eta ahotsak adierazpenerako dituen aukerak baloratzea. ▫ Ikasgelako kultura desberdinen arte-ondarearekiko (musika) begirune eta balorazioa.
Gorputz Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Zenbait jarduera fisikok eragindako arrisku-egoerez jabetzea. ▫ Gorputza txukun izateko ohitura hartzea. ▫ Jokoetan parte hartzea, jokamolde oldarkorrak saihestuz. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Espazio-nozioak: espazioaren orientazio eta antolamendua: gorputzaren eta objektuen harteko harremana. 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Norbere kasa zein higigailuak erabiliz mugitzean erabilitako denboraren eta espazioaren arteko harremana hauteman eta egituratzea. ▫ Espazioko dimentsioak, objektuen multzokatze eta barreiaketa, espazioek hartutako lekua... 	<ul style="list-style-type: none"> ▫ Materiala txukun gordetzeko arauak onartzen eta erabiltzeko hastapenak. ▫ Egoera eta objektu arriskutsuak azaletik ezagutzea. ▫ Gorputza garbitu eta zaintzeko oinarritzko ohiturak bereganatzea. ▫ Gorputz-ekintzetan arropa desberdinak erabiltzearekiko errespetua.

4. Proposamenaren garapena

Lan-proposamen honetan talde bakoitzak ipuin edo istorio bat antzeztu beharko du txotxongiloen bidez. Gai nagusizat narrazio-testu bat hartuko da, ipuina, eta testu horretatik abiatuz hizkuntza, matematika, ingurunearen ezagutza... arloekin lotutako alderdiak orokortuko dira. Hauxe izango da lan-proposamen honen ardatza eta bai lantegietan, bai arloetako berariazko lanerako espazioetan, ikasgelan jorratutako ipuinekin lotutako edukiak edo ipuinotatik ateratakoak lantzen dira (batzuetan irakasleek proposatutako ipuina landuko da eta besteetan taldeek aukeratutakoak). Honela bada, plastika-lantegietan antzezpenerako behar diren txotxongiloak eta panpin hauen jantziak egingo dira (hautatutako ipuinaren arabera), beste lantegi batzuetan kultura desberdinetako janzkerak jorratuko dira... Bukatzeko, talde bakoitzak burututako lana aurkeztu eta ipuina eszenaratuko du.

4.1. Zergatik ipuin bat?

Ipuina berezko egitura logikoez, sozializazio-funtzioez eta irudimenaz osatutako erreferentzia dugu literaturaren baitan. Idatzizkoaren ulermena eta idazmena ikaskuntzaren oinarriak ditugu eta egunero erabiltzen dira gainera. Eskolan, halere, ipuinak entzun, irakurri edo idaztearen gozamina baztertuxea dago askotan eta ezarpen gisa bizitzen da. Gauzak honela, irakurri eta idazteko nahia pizteko jolas modura, sormenez eta atseginez aurkeztu beharko zaie.

Ekintzaren bizkortasuna, misterio kutsua darion soiltasuna eta etengabe agertzen zaizkigun osagaiak ditugu ipuinaren ezaugarri nabarmenenak, eta ezaugarriok garrantzi handia dute haur txiekiengan.

Helburua Ipuinaren helburu nagusia atsegingarria izatea eta jendea alaitzea da, eta funtzio ludikoa hezkuntzaren gaintik egongo da beti.

Zer izan behar da gogoan? Neska-mutilen gustuak. Edozein gai atsegingarri gerta dakieke, nolabaiteko misterioa duen kontakizuna bihurtzeko gauza garen heinean. Haurrek lilurarako egundoko gaitasuna dute, baina lilura hau gehiago oinarritzen da sinesgarritasunean fikzioan baino.

*Ipuinak
kontatzeko
zenbait truku*

- Kontakizuna entzuterakoan elkarrengandik hurbil egotea, horrela *burua* ere hurbil egoten laguntzen baitu.
- Kontakizunari ekin aurretik isiltasuna lortu behar da, giro egokia sortu ahal izateko. Kontakizuna ez eteten saiatu beharra dago, bestela lilura galtzen baita.
- Kontakizunaren izpirituak hasiera-hasieratik gailendu behar du. Horretarako narratzaileak kontakizuna ezagutu eta barneratu egin behar du derrigorrez.
- Ongi ikasitako kontakizuna modu argi, logiko, dramatikoan eta bizitasun handiz kontatu behar da.
- Hizkuntza aberats eta konplexua erabili behar da, errealitatea bera bezalaxekoa. Irakasle gisa dugun egitekoa ez da errealitatea erraztea, ikasgelan erabili ahal izateko edukiak aurkeztea baizik. Ikastea merezi duen oro konplexua da berez, ipuinekin lan egitean, beraz, hizkuntza aberatsena dutenak (deskribapen ederrak, hizkuntz egitura aberatsak), giza psikologiaren gatazkei buruzko gai erakargarriak —bekaizkeria, maitasuna, gorrotoa, tristezia...— jorratzen dituztenak aukeratuko ditugu.
- Antzeztu egingo da, izan ere, antzezle ona izatea kontalari onaren ezaugarri nabarmenenetakoa dugu. Dena den, ez dago gehiegi behartu beharrik (ez dira pertsonaiak antzeztu behar, eszenak bere kasa irudikatzen utzi behar zaie entzuleei).
- Gogo biziz. Kontalariak istoria kontatzeak ematen dion gozamena ikusarazi behar du, horren bidez, gainerakoen interesa piztu eta berak ere kontakizunarekin gozatuko baitu.

Gaur egun merkatuan hurrei zuzendutako argitalpen ugari eskura daitezke oso erraz, baina literatura berri honen ugaritasunak ezin du ipuin klasikoan eta kultura bakoitzeko tradiziozko ipuinen lilura bazterrean utzi. Telebista eta ikusentzunezko baliabide berriak etxeetan sartzearekin batera, hurrei ipuinak kontatzeko ohitura galdu da eta horren ondorioz, litekeena da ez dutela ahoz igorri izan diren ipuinak eta ipuin klasikoak ezagutzeko aukerarik izan.

Ipuinek, gainera, herri eta leku arrotzetara bidaiatzeko, beren mundutik ateratzeko eta besteen lekuan ipintzeko aukera ematen die hurrei. Ez da, gero, hurrek gai handiak eta autore handiak ulertzeko duten gaitasuna gutxietsi behar.

4.2. Nola garatuko da proiektuan?

Jarraian proiektua garatzeko hainbat jarduera proposatzen ditugu. Jarduera hauek burutzeko merkatuan dauden ipuinak, jatorrizko herrietako egunkariren batean edo liburutegian aurkitutakoak, bideoak, hizkuntza desberdinetako testuekin grabatutako kaseteak... erabil daitezke. Oso garrantzi handikoa da familiekin batera lan egitea.

Literatura kultur aniztasunera hurbiltzeko modurik aproposenetakoa dugu

Jarduerei buruzko adibideak:

1. jarduera

Ipuin bat kontatu

Ikasleei ipuin bat kontatuko zaie goian aipatutako jarraibideei jarraiki. Proposamen gisa "Txokolatezko etxetxo" hautatu dugu.

Ondoren ipuinari buruzko elkarrizketa bat izango dute eta pertsonaiei, beren ezaugarriei, gertatutakoari, bizi ziren lekuari, ekintza garatzen den lekuari eta abarri buruz mintzatuko dira. Jarraian lantegietan landuko diren zenbait alderdi jorratuko dira: esaterako, gozoki eta litxarrerien gaia (elikadura), basoa eta ipuinean agertutako animaliak..., eta, bukatzeko, etxea eta gozokiak ikuspegi geometriko batetik deskribatuko dituzte.

2. jarduera

Liburuen sailkapena

Ikasgelako liburutegian liburuak sailkatuko dituzte ipuinak direnak eta ez direnak bereiziz eta izenburuak eta autoreen izenak idatziz. Lan hau launaka egingo dute.

Jarduera hau taldean egiten da eta ipuinaren euskarriaren ezaugarri orokorrak lantzen dira. Taldeek heterogeneoak izan behar dute eta elkarrizketa eta ipuina denari eta ez denari buruzko ideiak elkarrekin banatzea bultzatzea da helburua. Izenburuak eta autoreen izenak idazteko lana taldean egingo dute, elkarri laguntzea sustatzeko, izan ere, baliteke taldeko kideren batek idazmen-prozesua gutxiago garatua izatea baina ideiak eman ditzake ahoz eta, hortaz, baliagarria izan daiteke ikasle honen laguntza.

** Ikasgelako liburutegian kultura desberdinetako ipuin eta liburuak egongo dira.*

3. jarduera

Kultura desberdinetako ipuinak kontatu.

Etxean dituzten ipuin-liburuak ekartzeko eskatuko zaie, mota desberdinetako ipuinak

edukitzeko. Ikasgelan kultura desberdinetako ipuinak daudela gogoan izanik, beren kulturetako zenbait ipuin prest izatea komeniko litzateke, taldeko gainerako kideei aurkezteko. Zenbait kulturetan literaturaren ahozko igorpena oso garatua dago, beraz, ikasgelan daukagun kultura horretako ikasleen senitartekoren bat edo kultura horretako ordezkariaren bat gonbida genezake kultura horretako ipuin bat kontatzen laguntzeko. Beste kultura eta hizkuntza bateko ipuin bat behatu, irakurri edo entzun ahal izatea oso lagungarria da hizkuntz aniztasun kontzeptua aberasteko.

Jarduera honetan ikasgelan dauden kultura desberdinek ipuinen bidez elkarrizketa bat izatea da helburua. Balio unibertsaleko literatur testuaren eredu delako proposatu dugu ipuina.

Kultura desberdinetako ipuinak entzun, ikusi eta irakurtzeaz gain (ahal delarik bakoitzaren hizkuntzan), elkarrizketa bat egingo da, ipuinak elkarren artean erkatzeko eta ondorengoei buruzko parekotasun eta aldeak ikusteko:

- ipuinetako pertsonaia guztiak eta ezaugarriak
- paisaia-mota, landareak, animaliak, beren funtzioa
- etxebizitza, etxe-motak, taldekatzeak,
- elikagaiak, janari-mota
- ohiturak, jaiak.

Jarduera honetarako taldean dauden kultura desberdinetako ipuinak prest eduki behar ditugu, baina horrez gain, garrantzi handia du familiek lagundu eta ikasgelan zuzenean parte har dezatela, beren kulturaren berri emateko.

4. jarduera

Ikasgelan kontatu eta landutako ipuin bat berritxuratu.

Taldeko kide bakoitzak gehien gustatu zaion ipuina idatziko du, ez da ipuin berririk asmatu behar, ikasgelan landutako bat beren hitzak erabiliz idatzi baizik. Jarduera hau burutzeko modu desberdinak proposatzen ditugu ikasle guztiek arrakasta izan dezaten: binetadun ipuina, marrazkiduna, soilik testua duena, testua eta marrazkiak dituena... Ikasle bakoitzari egin dezakeena egiteko eskatuko zaio eta idazmena menderatzen duen araberako laguntza emango zaio.

5. jarduera

Ipuina hautatu

Haurrek berritxuratutako ipuinak taldeko gainerako ikaskideei kontatuko zaizkie eta ipuinok oinarritzat hartuta, bat aukeratuko dute txotxongilo gisa antzezteko. Txotxongilo hau lantegietan egingo dute. Proiektu honetan, ikasgelan dauden kultura desberdinetako ipuak antzezteko komeni litzateke; eta horretarako, hautatzeko garaian ikasleekin gai hau negoziatu liteke, denon artean gutxiengoak aldezteko arau batzuk adostu ditzaketelarik.

Hautaketa-prozesua neketsua izaten da eta arazoak ematen ditu batzuetan, baina oso aberasgarria da aukeraren zergatikakoa arrazoitu eta adostasun batera iritsi behar izaten baitute. Garrantzi handikoa da prozesu hau, arazoak konpontzen saiatzen

hasteko balio baitu. Arazoak taldean konpondu behar dituzte eta irakasleak artekari lana egingo du eta hautatutako ipuina egokiena iruditzen ez bazaio ere, ez ditu bere irizpideak sekula besteenen gain ezarriko.

6. jarduera

Testu-mota honen ezaugarriak eta idazmen-sistema landu.

Mota honetako testuekin lan egiteko, batetik, testu-motaren ezaugarriak eta, bestetik, idazmen-sistemaren ezaugarriak jorratzen dituen plangintza bat erabiliko dugu.

Testu-motaren bereizgarriei dagokienez, ondokoak jorratuko dira:

- *pertsonaiak: fitxategi bat egingo da.*
- *euskarria: izenburua eta egileak.*
- *lexikoa: ipuinetan agertzen diren hitzen zerrenda.*

Idazmen-sistemari dagokionez:

- *hitzen arteko bereizketa*
- *ipuinetako hitzak erkatu letra-kopuruaren arabera*
- *norantza*

Idazmen-sistema hizkuntza jakin batean (euskara edo gaztelania) lantzen ari bagara ere, hiru kultura desberdinetako testuak erabiltzea hizkuntza desberdinetako idazmen-sistemak alderatzeko aukera ematen du. Ondoko jarduerak egin daitezke gaiok lantzeko:

- *euskara, gaztelania, ijito-hizkera eta arabieraren norantza erkatu.*
- *letren formari erreparatu eta aipatu lau hizkuntzetakoak erkatu.*
- *hitzen sonoritatea, parrafo edo testu labur oso baten kadentzia.*
- *hitz bera (ezaguna, hautatua, ipuinetatik aterea...) lau hizkuntzetan idatzi.*

4.3 Nola garatuko da tailerretan?

Lantegietan arlo desberdinetako edukiak lantzeko eta lan-proiektuko zenbait alderdi garatzeko jarduerak burutzen dira. Honako proposamenen aurkeztu dizuegun ipuinetik —*”Txokolatezko etxetxo”*— atera ditugun lau gai landuko ditugu: elikadura, gozoen eta litxarreraren inguruan batik bat; basoko animaliak; jantziak, txotxongiloak egiterakoan eta dirua —astesaria, litxarreriak erostea eta gorputz geometrikoak—. Talde bakoitzak hautatutako ipuinekin zerikusia duten beste gai batzuk ere gehitu ahal izango dira.

Lantegian aldi berean eta txandaka jardungo dute, astean zehar ikasle-talde bakoitza jarduera guztietatik pasatzeko moduan.

Jarduerei buruzko eredia:

Sukaldaritza tailerra

Sukaldaritzako errezetaren bat prestatzea: gozokiak, postrea...

Lan-saioan bukatzeko moduko plater bat prestatuko dute, ez da platera prestatzen denarena egingo, benetan egin baizik. Amaitzean aukera desberdinak ditugu: taldekoen artean jan, gainerako ikaskideak gonbidatu ala etxera eraman familiakoak gonbidatzeko.

Ikaskide guztiek ez dute postre edo gozoki berdina prestatuko, aitzitik, talde bakoitzari desberdina egiteko eskatuko zaio eta aniztasun horren baitan kultura bakoitzeko plater bana egon behar du.

Errezetak taldeko denen artean idatziko dira eta prestatu beharreko jakiaren marrazki, irudi edo argazki bat beharko du errezetak eta haur bakoitzak txostentxo bat idatziko du etxera eraman eta, bertan, egindako lana erakutsi ahal izateko eta familiarekin batera errezetaren bat egiteko.

Errezeten kopia bat ikasgelako liburategian geratuko da.

** Prestatu beharreko platerak merkatuan dauden errezeta-liburuetatik aukeratu daitezke eta arabiar edo ijitoen plateren bat prestatzeko familiei laguntzeko eskatuko zaie.*

Plastika tailerra

Txotxongiloak egin, ipuinetako pertsonaiak

Talde bakoitzak antzeztu nahi duen ipuina hautatu eta lantegi honetan antzezlanerako txotxongiloak modu errazean egingo dira. Antzeztuko den ipuina, garaia, kultura, pertsonaia-mota eta abarri erreparatuko zaie mota bateko edo besteko soinekoak egiteko.

Ikerkuntza tailerra

Animaliak

1.- Sailkapena: basapiztiak eta etxabereak

Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegietako ipuinetan begiratuta animaliak sailkatu ahal izateko prestatutako galdera errezen eta fitxen bidez ikerketa bat egin behar da lantegi honetan. Animaliak bi multzotan banatuko dira: beren natur ingurunean bizi direnak eta etxean bizi edota familiari laguntzen diotenak. Jarduera honetan lanaren emaitzek ez dute zertan berdinak izan, kultura batetik bestera aldatu egiten baitira gizakiei laguntzen dieten animaliak.

2.- Basoan bizi diren animaliak: ezaugarriak

Ipuinetako basoko animalien argazki eta marrazkiekin hormirudi bat egin. Ezaugarri nabarmenenak identifikatu.

Matematika tailerra

Astesaria. Txanponak. Arazoak

Lantegi honetan salerosketak egingo ditugu 100 pezetako balioa arteko itxurazko txanponak erabiliz. Merkatu txiki bat hartuko dugu abiapuntutzat, bertan egin beharreko jarduera ezaguna baitzaie ikasleei: haurrek beren astesariarekin erosi ohi dituzten litxarrerriak, kromoak, arropa eta abar saldu eta erostea hain zuzen ere. Erabilitako materiala benetakoa ala asmatua izan daiteke (argazkiak, plastikozkoak, plastilinazkoak...).

Joko honetan ikasleek saltzailearena eta eroslearena egin beharko dute txandaka. Erosleak erosi nahi dituen objektuen zerrenda egin eta 100 pezetako txanpon batekin ordainduko du. Saltzaileak sobera dagoen dirua itzuliko dio. Salerosketa hau oinarritzat hartuta, arazoak modu desberdinetara aurkezteko aukera dago.

Jokoaren emaitza idatziz jaso daiteke, horretarako matematikazko algoritmoak erabiliz edo ahoz azalduz. Ikasleei txanponak nola zenbatu dituzten adierazteko eskatuko zaie eta erabilitako zenbaketa estrategiei arreta handia emango zaie.

Merkatu txikian produktuak erosterakoan tratuak egin beharko dituzte, ijitoen eta arabiar kulturen ezaugarri bereizlea baita hori. Tratua lantzean buruzko kalkulua lantzen da, Lehen Hezkuntzako Matematika arloko funtsezko alderdia, hain zuzen ere.

Gorputz geometrikoak

Lantegi honetan gure inguruneko irudi eta gorputz geometrikoei erreparatu beharko diete. Horretarako etxeak, eskola, auzo bat, mota desberdinetako elikagaiak, kirol zelaiak eta abar erakusten dituzten mota desberdinetako argazkiak eta inprimitutako materiala erabiliko dugu, bertan agertzen diren irudi eta gorputz geometrikoak bereizteko.

Lan hau binaka egingo da eta ondoren emaitza launakako taldeetan emango da jakitera, denon artean eskainitako materialetan ikusitako irudi eta gorputz geometrikoei buruz elkarrizketa izan eta eztabaidatzeko.

** Lan honetarako eskaintako materialean kultura desberdinetako etxeak, auzoak, elikagaiak, hiriak... jaso beharko dira.*

4.4. Nola burutuko da arloetako berariazko lanean?

Lana modu orokortuan eta lantegiekin osatuz burutuko bada ere, zenbait eduki arloetako berariazko lanarekin sendotu beharko dira.

⇒ **Matematika arloari dagokionez:**

Jarduerei buruzko adibidea:

Txanponak

Denbora-tarte honetan ondoko motako jarduerak landuko dituzte txanponekin:

- *txanponak ezagutu*
- *diruaren balioa*
- *egoera bati irtenbidea emateko aukera desberdinak bilatu*
- *buruzko kalkulua*

Gorputz geometrikoak

Kuboak, prismak, esferarak eta zilindroak landu.

Landuko dituzten formako objektuak (kutzak, pilotak...) ekartzeko eskatu ikasleei.

Behaketa, hiztegi berezitua, ahozko deskribapena eta espazioaren hautematea garatzea da helburua.

Ekarritako objektuak sailkatu egingo dira forma berekoak elkartuz, baina objektu berdinak ez izatea eta tamaina desberdinekoak izatea saiatu beharra dago. Jarraian, ondoren adierazitako manipulazio-jarduerak egingo dituzte:

- *objektuak ikutu*
- *deskribatu, osagaiak aipatu (aurpegiak, erpinak, ertzak)*
- *zenbat aurpegi, erpin eta ertz dituzten zenbatu*
- *forma berekoak elkartu ditzakeen egiaztatu*
- *aurpegien formak*
- *errodatzen duten eta, egitekotan, zein posiziotan egiten duten begiratu*
- *marratzu*
- *kuboak, prismak, esferak eta zilindroak ikuspegi desberdinetatik behatu (diapositibak, gardenkiak...).*

⇒ **Musika Hezkuntza arloari dagokionez:**

Edukietan aipatu dugunez, euskal, ijitoen eta arabiar (Afrikako iparraldeko) kulturetako piezen entzunaldiak, musika-tresnak eta abestiekin lotutako alderdiak landu nahi ditugu hemen.

Musika-tresnak:

Euskal kultura: Txistua eta danbolina, txalaparta.

Arabiar kultura: Ud (lautea), tar (pandereta), derbuka (bustinezko ontzi baten gainean teinkatutako danborra mintzaduna).

Ijitoen kultura: Pandereta eta gitarra.

Abestiak:

Euskal kultura: Euskal Autonomia Erkidegoko edozein abesti herrikoi erabil daiteke, esaterako: *Aldapeko, Haurtxo txikia, Maritxu nora zoaz* eta abar.

Arabiako kultura: *Sehaska kanta* (Maroko), *Goazen, goazen hibaira!* (Tunisia), *Eraztunak, eraztunak* (Libia).

Ijitoen kultura: Rumba.

Entzunaldiak:

Musikaren ondoko alderdiak jorratu eta behatu:

- a) Erritmoa eta mugimendua.
- b) Soinuaren ezaugarriak aztertu: intentsitatea, altuera, tinbrea eta iraupena.

Adibideak:

Erritmoa eta mugimendua

Oztoporik gabeko espazio batean zehar ibili entzunaldi bakoitzaren erritmoari jarraiki. Martxak eta mugimenduak bat etorri beharko dute entzuten den musikaren erritmoarekin. Haurrek bere kulturako musika entzutean edo arrotza zaien kulturakoa entzutean erritmo eta mugimendu aldetik duten erantzun desberdinei erreparatu beharko die irakasleak.

Soinua (ezaugarriak)

Tinbrea: Interpretazioan parte hartzen duten musika-tresnak adi entzun. Antzemandako aldeei buruz hitz egin. Musika-tresnen izena. Entzundako tresnaren bat ikastetxean izanez gero, jo. Grabaketan agertutako tresnen irudiak ikusi.

Altuera: Melodia osatzen duten soinuaren altuera alderatu (soinu baxuak eta altuak).

Ahosaz soinu horiek imitatu.

Intentsitatea: Soinuak egiteko indarra. Soinu fuerteenak eta ahulenak zeintzuk diren ikusi. Mimikaren bidez adieraz daiteke batekoak eta besteak noiz entzuten diren.

Iraupena: Musikan soinu luze eta motzak daude. Adi entzunda, melodian soinu luzeenak eta motzenak noiz agertzen diren ikusi. hiru entzunaldi egingo dira eta soinu luzeenak eta motzenak non agertzen diren ere aldera liteke.

Erritmo-ariketa

klabezinak edo _____ 2 aldiz

kutxa txinatarra

panderoa _____ 2 aldiz

triangelua _____ 2 aldiz

- Lerro bakoitza bere aldetik landu txaloak joaz.
- Bi talde egin eta bakoitzak aurreneko bi lerroak landu adierazitako musika-tresna erabiliz.
- Hiru talde egin eta denok batera aurreneko hiru lerroak landu. Azken hau haurrek 2. puntua menperatzen dutenean egingo da.

* Musikarekin lotutako alderdiak lantzeko:

Euskal kultura: Tradiziozko tresnak entzuteko Joxean Goikoetxea eta Juan Mari Beltranen “Egurraren orpotik dator” CDA entzun daiteke eta tradiziozko musikari dagokionez, berriz, zortzikoa landu liteke, bere 5/8ko erritmoa oso arrunta baita euskal musikan.

Arabiar kultura: Zidane nuba delakoa (Maroko, Tunisia eta Aljerian jotzen dute) VIII. mende inguruan sortua da eta egilea Ziryab poeta eta musikaria dela uste da. Espainian Tetuango Orkrestak grabatutako edizio bat dago (1984). Horrez gain *Andalustar* musika ere entzun daiteke.

Ijitoen kultura: Ijito-herria Indiako iparraldean sortu zen eta Europa osoan zehar barreiatuta dago XV. mendeaz geroztik. Zenbait eskualdeetan ijitoen musikatzat ezagutzen dena ijitoek bertako musikaz egindako egokitzeapena izaten da. Espainian flamenkoa da horren adibide. Horrenbestez, musika-estilo honetako sorta zabala dugu aukeran, bai tradiziozkoa bai herrikoia.

⇒ **Gorputz Hezkuntza arloari dagokionez:**

Adibidea:

Desplazamenduak

Gimnasioan eta jolastokian ariketak eta jokoak burutu. Espazio osoan zehar desplazamenduak egin modu ezberdinetara (urrats handiak eginez, hanka-puntetan, lasterka, atzeraka) espazioan oztoporik jarri gabe, oztopoak jarrita (goma-aparrezko kuboak, gurpilak...). Ariketa hauek objektuak eramanez zein soinean ezer eraman gabe egin daitezke.

Gorputz-ariketa saioen ondoren garbikuntza-ohiturak landuko dira.

* Gure kulturaren txandala eta, eguraldi ona dagoenean, galtza motxak eta tirazko edo mauka motzeko kamiseta bat erabiltzeko ohitura dugu; dena den, beste kultura batzuek bestelako jantziak nahiago izatea errespetatu egin behar da eta familiekin hitz egingo da, beraz, malgutasunez eta begirunez jokatzuz beti ere.

⇒ Ingurunearen Ezagutza arloari dagokionez:

Elikadura, janzkera eta etxebizitzari buruzko lantegietan burututako lana urri samarra gerta daiteke eta, horregatik, jarduera hauek proposatzen dizkizuegu lan hori osatzeko. Atal honetan dakarzkizuegun jarduerak beste lan- eta lantegi-proiektu batzuetarako hastapen gisa ere balio dute, jarduerak zertxobait sakondu eta ikerkuntza-proiektu gisa burutu beharreko galdera irekien modura planteatuz gero.

Aipatutako alderdi bakoitza lantzeko jarduera bana proposatzen da. Lana talde batean edo bitan banatuko da eta amaitutakoan taldeak egindako ikasgela-multzoari aurkeztuko dio. Jarraian eztabaida bati ekingo zaio eta bertan sortzen diren galderei ikaskide guztien artean erantzungo zaie. Irakasleak artekari lana egingo du eta zalantzak sortzen dituzten gaiak argitzen lagunduko du edo, bestela, nora jo adieraziko die: testuliburua, entziklopedia, pertsona zehatzak...

Adibideak:

Elikadura

Aipatutako hiru kulturetako pertsoneri eta ikasgelako, ikastetxeko, auzoko edo elkarteren bateko pertsoneri inkesta bat egin (telefonoa, faxa eta abar erabil daitezke galderak egiteko). Hona egin daitezkeen zenbait galdera: Zure etxean jan ohi dituzuen hiru jaki aipatu; Zer edaten duzu bazkarian?, Zer jaten duzue posttrerako?, Zenbat otordu egiten dituzu egunean zehar?, Non jaten duzue?, Zer ordutan?, Bazkalostean ezer berezirik egiten al duzue?, Mahaiak eta aulkiak erabiltzen dituzue bazkaltzeko?, Urtean zehar bazkari berezirik egiten al duzue?, Zein?

* *Elikadurari buruzko lan honek eragina izan beharko luke ikastetxeko jantokian, balego, kultura desberdinetako oinarrizko ohiturak errespetatu eta bazkariak egokituz. Hemen aipatzen dugun kasuan, arabiar komunitateak zerririk ez jatea errespetatu egin behar da eta beste jakiren bat eskaini beharko zaie (familiari galdetu ostean betiere).*

Janzkera

Hormirudi bat egin euskal, ijitoen eta arabiar kulturetako jantziekin: eskualdeko jantziak, erlijio-jaiekin lotutako jantziak, emakume eta gizonezkoenak jaso.

Etxebizitza

Taldeka hiru kulturen etxebizitzak irudikatu: marrazkiak egin, plastilina erabili edota paper eta kartulinazko eraikin bat egin.

Lanak gainerako taldeei aurkeztu.

Ikastetxeko beste ikasgeletan aurkeztu lanak edo familiak lanak ikustera etortzera gonbidatu.

Biltzarrean lan osoa baloratu eta jarduera desberdinak kritikatu dira.

5. Unitatearen ebaluazioa

Ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa

Ebaluazioaren bidez ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetu egin nahi da. Etengabeko prozesua dugu, izan ere, oinarrizko unitatea zikloa deneko aldi baterako planteatutako ikaskuntza-prozesuaren baitan burutzen baita. Horrenbestez, prozesu zabalago baten baitan kokatzen da ebaluazioa, ez da, beraz, zerbait isolatua. Ez dugu prozesu mugatua, ikaskuntzak amaitu gabe baitaude, eta berriro helduko zaie geroago, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren adierazlea besterik ez da, bada.

Lan-aldi hau ebaluatzeko irakasleak ikasleek burututako lana, batetik, eta izandako zailtasun eta jokabidea, bestetik, behatuko ditu. Ondoren, beharrezko laguntza, egokitzapena eta orientabideak adieraziko ditu.

Zeregin hau burutzeko, ikaskuntza-jarduerak berak erabiliko ditugu ebaluazio-jarduera gisa eta ez dira, bada, berariazko jarduerak proposatu edo burutuko, prozesuak hala eskatu ezean, behintzat. Informazioa jasotzeko ondoko taulaz baliatuko gara:

- bai, aise, arin, trebetasunez, arazorik gabe, osorik, beti...**
- erdizka, batzuetan, laguntzaz, ikaskideen laguntzaz...**
- ez, kostata, zailtasunak ditu, osorik ez, gutxietan...**

Ikasleen izenak

INFORMAZIOAREN ERREGISTROA				
Kontatutako ipuina orokorrean identifikatzen du				
Pertsonaia nagusiak ahoz deskribatzen ditu				
Jorratutako hizkuntz aniztasunaren ezaugarri batzuk bereizten ditu				
Ipuina idazten du	<i>marrazkien bidez, sekuentziatutako binetak erabiliz, marrazkiak erabiltzen ditu testua osatzeko, testu baten bidez</i>			

Idatzizko ekoizpenetan hitzen arteko tartea eta erabilitako hizkuntzaren norabidentza egokia errespetatzen ditu			
Ahozko hizkuntzari dagozkion baliabideak erabiltzen ditu zerbait adierazkortasunez kontatzeko (keinuak, gorputzaren mugimenduak, ahotsaren doinua aldatu...)			
Arazoak ebazteko eragiketetan algoritmoak erabiltzen ditu.			
100 arteko legezko txanponen balioa ezagutzen du			
Buruzko kalkuluak egiteko eta arazoak ebazteko estrategiak erabiltzen ditu			
Inguruneko gorputz geometrikoak bereizten ditu (zirkulua, kubo, prisma eta zilindroa)			
Elikadura, jazkera, etxebizitza eta abarrei dagokienean, ohitura desberdinak daudela badaki eta errespetatzen ditu			
Irizpide bat emanik animaliak sailkatzeko gauza da			
Sukaldeko tresnak erabiltzen daki			
Hiru kulturetako musika-tresnen soinuak identifikatzen ditu			
Txotxongiloaren teknikaren bidez eszenak antzezten ditu: aise, urduri...			
Antzezpenean ahotsa erabiltzen du tonua, tinbrea eta abar aldatuz			
Bere gorputza garbitzeko ohitura hartzen hasia dago.			
Espazio handietan desplazamenduak honela egiten ditu:			
Arrisku-egoerak bereizten ditu			
Objektu arriskutsuak ezagutzen ditu			
Entzun egiten die besteei: <i>arreta eta interesez, arreta galtzen du, ez du aditzen.</i>			
Talde-lanan: plangintzak eta ekarpenak egiten ditu kosta egiten zaio taldean lan egitea pasiboki jokatzeko du bizikidetzarako arauak betetzen ditu adostasunera iristen saiatzen da			
Txukuna eta ordenatua da bere lanekin			
Bukatzean materiala ordenatzen du			
Aldi honetako erantzukizunak honela burutu ditu:			
Ondoko jarrera du ikaskideekin: <i>hotza, lasaia, laguntzailea, zirikatazaileria, bortitza, lehiakorra, oldarkorra.</i>			
Taldeak: <ul style="list-style-type: none"> • <i>onartu egiten du,</i> • <i>ez du onartzen,</i> • <i>barre egiten dio,</i> • <i>maite du...</i> 			

BIBLIOGRAFIA

- ALLEGRET, J. LL. eta beste. (1994) Sobre Intercularitat. Girona: Fundacio Ser. Gi. Palahi.
- ARRATIBEL MUJICA, A. (1996): Elaboración de materiales curriculares para trabajar la lectura y la escritura en E. Primaria, según un enfoque constructivista. Eusko Jaurlaritzza: Mintegiak, 1995-96 deialdia.
- ANTUNEZ, S. (1987): Proyecto educativo de centro. Barcelona: Graó.
- BAKER, C. (1997): Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo. Madrid: Cátedra.
- BAÑARES, L. eta beste (1994): Niñas y niños gitanos en la escuela. Educación intercultural. Huesca: MEC - Dirección Provincial de Huesca.
- BAÑARES, L.; LALUEZA, R.; VICEN, M.J. (1996): Un enfoque curricular de la educación intercultural. Zaragoza: Universidad de Zaragoza. Ice.
- BEASKOETXEA HORMAETXEA, M.J. (1996): Elaboración de materiales curriculares para trabajar la lectura y la escritura en E. Infantil, según un enfoque constructivista. Eusko Jaurlaritzza: Mintegiak, 1995-96 deialdia.
- BITARTE (1996): Materialen gida. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- BRUNET, J. J.; NEGRO, J. L. (1989): Tutoría con adolescentes. Madrid: S. Pío X.
- BUXARRAIS, M. R. eta beste (1993): El interculturalismo en el curriculum. El racismo. Barcelona: Rosa Sensat.
- CARBONELL I PARIS, F (1995): Inmigración. Diversidad cultural, desigualdad social y educación. Girona: MEC. Centro de Publicaciones. Secretaria general.
- COLECTIVO AMANI (1994): Educación Intercultural: Análisis y resolución de conflictos. Madrid: Popular.
- COSTA CABANILLAS, M.; LOPEZ MENDEZ, E. (1991): Manual para el educador social. Habilidades de comunicación en la relación de ayuda. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales.

- DEL CARMEN, L.; JORBA, J.; SANMARTÍ, N. eta beste: La enseñanza y el aprendizaje de las ciencias de la naturaleza en la educación secundaria.
- DIAZ-AGUADO, M. J.; BARAJA, A.(1993): Interacción educativa y desventaja sociocultural. Un modelo de intervención para favorecer la adaptación escolar en contextos inter-étnicos. Madrid: CIDE.
- DIAZ-AGUADO, M. J.; BARAJA, A.(1992): Educación y desarrollo de la tolerancia. Programas para favorecer la Interacción Educativa en contextos Étnicamente Heterogéneos. Madrid: MEC.
- ELOSUA, M. R. eta beste (1994): Interculturalidad y cambio educativo. Hacia comportamientos no discriminatorios. Madrid: Narcea.
- ETXEBERRIA, F (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.
- FANTOVA, F. (1988): Dinámica de grupos. Bilbao: Esc. Dioc. Educ. J.
- FERNANDEZ ENGUITA, M. (1996): Escuela y etnicidad. El caso del pueblo gitano.
- FERRER, E. y LLUCH, X. (1993): Ejemplificaciones de unidades didácticas. Una perspectiva intercultural. Madrid: MEC.
- FLECHA, R.; CASTELL, M. eta beste (1994a): Nuevas perspectivas críticas en educación. Barcelona: Paidós Educador.
- FLECHA, R.; AYUSTE, A. eta beste (1994b): Planteamientos de la pedagogía crítica. Comunicar y transformar. Barcelona: Graó.
- FLECHA, R.; GOMEZ, J. (1995): Racismo: No, gracias. Ni moderno, ni postmoderno. Barcelona: El Roure.
- GALINO, A eta ESCRIBANO, A. (1990): la educación intercultural en el enfoque y desarrollo del curriculum. Narcea.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio -

afectivo en niños de 6 a 8 años. Madrid: Seco Olea.

GARCÍA GONZÁLEZ F. (1996): Diseño y desarrollo de Unidades Didácticas. Madrid: Escuela Española.

GIMENO SACRISTAN, J. (1992): Currículum y diversidad cultural. En Educación y sociedad nº 11, 127-153 orr. eta in ETXEBERRIA, F (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.

GOLDSTEIN, A.P.; SPRAFKIN, R.P.; (1989): Habilidades sociales y autocontrol en la adolescencia. Barcelona: Martínez Roca S.A.

GRUPO CERO (1996): Matemáticas. Materiales curriculares para la Educación Primaria. Madrid: MEC / Edelvives.

IMBERNON, F. (1992): La programación en el aula, ayer y hoy, en Aula de Innovación educativa 1, 6-8.

JORDÁN, J.A. (1994): La escuela multicultural : un reto para el profesorado. Barcelona: Paidós.

JORDÁN, J.A. (1996): Propuestas de Educación Intercultural para profesores. Barcelona: CEAC.

JULIANO, D. (1993): Educación Intercultural . Escuela y minorías étnicas. Madrid: Eudema.

LAIZ SASIAIN, E. (Koord.) (1996) : Irakurketa, idazketa eta matematikaren irakaskuntza konstruktibismoaren ikuspegitik. Eusko Jaurlaritza. Mintegiak. 1994-96 deialdia.

LASA, BEGOÑA (1990): Papel del profesorado de E.G.B. con niños y niñas gitanas Cuadernos de Adarra 30; Bilbo: Adarra.

LOBATO, C.; MEDINA, R. (1996): Técnicas de animación para grupos de preadolescentes. Bilbo: Adarra.

LOVELACE, M TITULO: Educación Multicultural. Lengua y cultura en la escuela

plural. Madrid: Escuela Española.

LLUCH, X.; RODAS, A. M.; SALINAS, J. (1995): Educación Intercultural. Modulo de Formación. Eje transversal. Valencia: Generalitat Valenciana.

LLUCH, X.; SALINAS, J. (1995): Programa d'educacio en valors. Pla d'educacio intercultural. Valencia: Generalitat Valenciana.

LLUCH, X.; SALINAS, J. (1996): La Diversidad Cultural en la Práctica Educativa. Materiales para la formación del profesorado en Educación Intercultural. Madrid: MEC.

MALGESINI, G.; GIMENEZ, C. (1997): Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad. Madrid: La cueva del oso.

MARTÍNEZ , ISABEL (Koord. (1995): La socialización en la escuela y la integración de las minorías: Perspectivas etnográficas en el análisis de la educación de los años 90. Madrid: Aprendizaje.

MENDIA, R. (Koord.) (1997): Guía para la elaboración de proyectos integrados de aprendizaje en los programas de Garantía Social. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

MEROÑO I OTÓN, N. (1996): La práctica intercultural en el Desarrollo curricular de la Educación Primaria. Madrid: MEC.

MESA ESPECIFICA DE EDUCACION INTERCULTURAL (1993): El tratamiento de los valores desde una perspectiva intercultural. Encuentros Cuenca: Confederación de Movimientos de Renovación Pedagógica.

MESA FRANCO, M.C.; SANCHEZ FERNANDEZ, S. : Educación y situaciones bilingües en contextos multiculturales. Estudio de un caso: Melilla. Madrid: CIDE.

MICHELSON, L.; SUGAI, D.P.; WOOD, R.P (1987): Las habilidades sociales en la infancia. Evaluación y tratamiento. Barcelona: Martínez Roca S.A.

MUÑOZ SEDANO, A. (1997): Educación Intercultural. Teoría y práctica. Madrid: Escuela española.

- OVEJERO, A. (1990): El aprendizaje cooperativo. Una alternativa eficaz a la enseñanza tradicional. Barcelona: PPU.
- PALLARES, M. (1989): Técnicas de grupo para educadores. Madrid: ICCE.
- PEREDA, C.; PRADA, M.A. DE; ACTIS, W. (COLECTIVO IOE) (1996): La educación intercultural a prueba. Hijos de inmigrantes. Marroquíes en la escuela. Madrid: CIDE.
- PINEL, J. (1984): Fundamentos y técnicas grupales para E.G.B. Madrid: Marsiega S.A.
- RODRIGUEZ, M. (1995): La educación para la paz y el interculturalismo como tema. Barcelona: Oikos tau.
- RUBIO, M.T. eta REY, G. (Koord.) (1997): Proyecto Curricular de Educación Infantil y Primaria. Áreas de E. Primaria. Bilbo: Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- SOCIEDAD ESPAÑOLA DE PEDAGOGIA (1992): X Congreso Nacional de Pedagogía. Educación Intercultural en la Perspectiva de la Europa Unida. Tomo I. y II. Salamanca: Diputación Provincial de Salamanca.
- SORIA GUTIERREZ, A.L. Educación Intercultural y prevención de las actitudes de violencia. Comunidad Educativa nº 241. 1997ko apirila.
- TORRES, J. (1994): Globalización e interdisciplinariedad: el curriculum integrado. Madrid: Morata.
- TORRES, J. (1992-93): Los silencios en la selección de la cultura en el curriculum. En Por una sociedad intercultural y sin racismo. XII Jornadas de Enseñantes con Gitanos. Bilbo: Adarra. eta in ETXEBERRIA, F (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.
- UGALDE ZUBIZARRETA, A.(Koord.) (1996): Txikitatik idazle eta irakurle. Eusko Jaurlaritz. Mintegiak, 1994-96 deialdia.
- VÁSQUEZ, A eta MARTÍNEZ, I (1996): La socialización en la escuela. Paidós:

Barcelona.

ZABALA, A. (1995): La práctica educativa. Cómo enseñar. Barcelona: Graó.

ZENBAIT EGILE (1989): Cultura gitana. Propuestas para un trabajo intercultural en la escuela. Valencia. Generalitat Valenciana.

ZENBAIT EGILE (1996): Educació intercultural. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

ZENBAIT EGILE (1995): Del currículo a la práctica de aula. Programaciones. Madrid: MEC.